

g txostena report 2009  
Saindegia

**Izenburua:** Gaindegia Txostena 2009/ Gaindegia Report 2009

**Egilea:**

GAINDEGIA- Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

**Argitaratzea:**

GAINDEGIA- Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

Martin Ugalde Kultur Parkea

20140 Andoain

Tel. +34 943 304 365

www.gaindegia.org

gaindegia@gaindegia.org

**Indexatzeko hitz gakoak:** Euskal Herria, ekonomia, gizartea, garapena, kohesioa, Euskal Herriko ekonomia

**Argitalpen Batzordeko Zuzendaria:**

Joxerra Bustillo

**Koordinatzailea:**

Irati Azkue Leunda

**Argitalpen eta aholku batzordea:**

Joxerra Bustillo, Jose Mari Zendoia, Xabier Lekuona, Bego Zubia, Eugenio Etxebeste, Kepa Gordejuela, Iñaki Egaña.

**Gaindegia Txostena 2009ko**

**kolaboratzaileak:**

Joxerra Bustillo, Juan Mari Ollora, Nekane Jurado, Mertxe Larrañaga, Ana Beraza, Jon Barrutia, Goio Etxebarria, Mikel Gomez Uranga, Roberto Bermejo, Juan Carlos Longas, Juan Ignacio Perez Iglesias, Eguzki Urteaga, Karmele Aranburu, Iker Aranburu, Idoia Eraso, Iker Bizkarguenaga, Juan Mari Arregi, Aitor Renteria, Carlos Etxeberri, Miren Garate, Miren Ibañez, Juan Angel Monreal, Imanol Esnaola.

**Gaindegia Txostena 2008ko**

**kolaboratzaileak:**

Joxerra Bustillo, Mari Carmen Gallastegui, Goio Etxebarria, Mikel Navarro, Michel Garicoix, Gorka Bueno, Aitziber Etxezarreta, Irati Susperregi, Philippe Arretz, Iñaki Elorriaga, Sandra Barrenetxea, Iñaki Ruiz de Pinedo, Juan Mari Arregi, Juan Kruz Lakasta, Mikel Iribarren, Idoia Eraso, Mikel Aramendi, Ivan Santamaria, Carlos Etxeberri, Begoña Martin, Angel Rekalde, Aimar Maiz, Xabier Lekuona, Joxe Mari Zendoia, Bego Zubia, Iñaki Egaña, Eugenio Etxebeste, Kepa Gordejuela, Imanol Esnaola.

**Gaindegia Txostena 2007ko**

**kolaboratzaileak:**

Koldo Saratxaga, Mikel Zurbano, Iñaki Conde, Ion Andoni del Amo, Txema Mendibil, Helena Franco, Anton Borja, Koldo Nabaskues, Mixel Garikoitz, Ivan Santamaria, Juan Angel Monreal, Alazne Basañez, Aitor Renteria, Begoña Martin, Aitziber Arzallus, Xabier Aja, Carlos Etxeberri, Imanol Esnaola.

**Kazetari lanak:**

Estitxu Elduaien

**Itzulpenak:**

*Euskara-gaztelania:* Ainara Barreña - Ander Mendizabal - Joxemi Hernandez - Amaia Apaulaza

*Gaztelania- euskara:* Iraia Amundarain - Ramon Iriarte - Nerea Elorriaga

*Frantsesera:* Mercedes Camblor

*Ingelesera:* Kit Cree

**Lehenengo edizioa:** 2010eko maiatza

**Copyright:** © GAINDEGIA—Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

**Diseinua eta maketazioa:** nabarrerria.com · Tel: (0034) 948 22 71 25

**Inprimaketa:** Gráficas Iratxe

**Lege Gordailua:** SS-437-2008



# Aurkibidea

<i>Sar hitza</i> . . . . .	.5
<i>Hitzaurrea</i> . . . . .	.6
<i>Euskal Herria 2009 adierazleetan</i> . . . . .	.8
· <i>Galeria nagusia</i> . . . . .	.10
· <i>Monografikoak</i> . . . . .	.14
- <i>Lan merkatua</i> . . . . .	.14
- <i>Enpresa demografia</i> . . . . .	.15
- <i>I+G</i> . . . . .	.16
- <i>Iparraldeko argazkia</i> . . . . .	.17
- <i>EBko erregioen adierazleak</i> . . . . .	.18
<i>Zifratan gakoa</i> . . . . .	.19
<i>Adituen analisisa</i> . . . . .	.22
<i>Urteko ikerketak</i> . . . . .	.48
<i>Prentsan jasotakoa</i> . . . . .	.55
<i>Euskal Herriko eragile sozio-ekonomikoen oinarrizko gida</i> . . . . .	.61





*Xabier Isasi Balanzategi*  
*Gaindegiako Lehendakaria*

## *Krisiak zaila dakar*

Igarotako urtea, 2009, nonahitik ikusita ere, urte latza izan da. Ekonomia eta gizartea azturetan, esan genezake bereziki urte zaila eta luzea izan dela. Krisialdiak gogor astindu ditu eragile ekonomiko eta sozial guztiak, Euskal Herrikoak ere bai. Horrek nork bere defentsajarrera piztu du eta bakoitzak bereari eusteko moduak bilatze-lanetan murgildu da.

Joandako urtea ez da izan Euskal Herriaren eraketa eta garapenerako urtea. Euskal Herriko Laborantza Ganbararen aurkako ekimen judizialak edo Rafa Diez Usabiaga sindikalista esanguratsua eta Gaindegiako Zuzendari-tzako kidearen kartzelatzea diogunaren adibide batzuk besterik ez dira. Euskal Herriko lurraldeen arteko banaketa areagotu egin da, eta ez bakarrik eguraldietako mapetan, batez ere, krisialdiari aurre egiteko politika bateratuetan.

Edozein modutan, krisi garaiak agerian ipini du, berriro ere, zein diren garrantzitsuak dimentsio ekonomikoak eta sozialak Euskal Herria biziberritzeko. Gaude, Euskal Herriak, bere osotasunean, batera joz gero krisialdiari aurre egiteko lanabes gehiago eta indar handiagoak izan genitzakeela. Ez du zentzu han-

dirik lurraldeen arteko lehia izateak problema bertsuei erantzun bateratua eman behar zaie-nean. Ez du zentzurik estatuen mendekotasuna, krisialdia areagotu besterik egiten ez duenean, Espainiakoaren kasuan, edo, Frantziakoan, estatuaren interesen arabera Iparraldea sakrifikatzen duenean.

Krisiak joan, krisiak etorri, Gaindegiak bost urte bete ditu. Bost! Atzera begiratuz gero, ereindako behategiaren hazia ernatzen ari dela esan dezakegu. Gaindegiaren eskuetan ipinitako baliabideak zuzen eta eraginkor erabili ditugu. Argitalpen hau, hirugarren urtez, adibide horietako bat da.

Dena den, Euskal Herriko Ekonomia eta Gizar-tearen garapenerako Behategia beharrezkoa dela agerian jarri badugu ere, laguntza eta babes handiagoak behar ditu. Euskal Herri oso-ko informazio nahikoa eta kalitatezkoa biltzea eta ustiatzea posible dela erakutsi dugu. Aurrerantzean, ostera, Euskal Herria biziberritzen duten eragile ekonomikoak eta sozialak lankidetzeta eta saretze lanetan aurrera urrats sendoagoak egin behar dituztelakoan gaude. Azken buru, eragile horiek baitira behategiaren behineneko euskarria. Hala bedi.

# Juan Mari Ollora Otxoa De Aspuru

(Ekonomialaria)

## I

Irakurle hori;

Hementxe duzu Gaindegia Txostena 2009: Euskal Herriko ekonomian eta gizartean 2009an gertatutako alderdi garrantzitsuenei buruzko txosten on bat.

Ez da ohikoa -hobeto esanda, ia ezinezkoa da- era honetako lanak edo informazio zehatzak aurkitzea, non Euskal Herria osoa aztertu eta behatzen den. Hori da informazioaren eta argitalpenen errealitate gordina eta, batzuentzat, tristea.

Horrenbestez, horixe da, nire ustez, azterketa honen lehen bertutea, eta niri hitzaurrea idaztea egokitu zait.

Lan honetan, politika –eta administrazio– mugak alde batera utzita, urteko ikuspegia adierazten da, euskaldunak zenbait alderditan nolakoak garen eta nola gauden azaltzeko.

Agian, ikusten duguna ez dugu gogoko. Beste batzuek –horiek ere euskaldunak– ez dute ikusi nahi oro har horrelakoak garenik eta horrela gaudenik, baina, hala ere, hor gaude.

Eta hau da 2009an gertatu zaiguna.

## II

Xabier Isasi Balanzategi Gaindegiaiko presidenteak bidalitako idazki batean jaso nuen hitzaurrea idazteko enkargua. Testu horretan, hau idatzi zidan, hitzez hitz: “Egin beharreko lana argitalpenaren HITZAUURREA idaztea izango litzateke. Iruzkina pertsonala egin behar da, 2009ko ekonomian eta gizartean deigarrien iruditutako arazoak ardatz hartuta”.

Normalean esanekoa naizenez, enkargua betetzen saiatuko naiz, enkarguaren metodologiari eusten saiatuz (hau da, 2009an deigarrien iruditu zaizkidan gaiei buruz hitz egitea), baina lizentzia txiki bat hartuko dut: 2010. urteari eta gerta daitekeenari buruz ere hitz egingo dut.

Goazen bada.

## III

Ekonomia eta gizarte-arloan, 2009. urtea behea jotzearena izan da. Ez da izan ekonomia-parametro edo aldagai positiborik, ezta bat bera ere. Paisaia ilun horretan, gertaera hauek txunditu naute.



Juan Mari Ollora Otxoa de  
Aspuru  
Ekonomialaria

A) Ekonomia-areala eta gune nagusietako banku zentralak koordinazio handiz eta bat eginez jardun dute, depresio handiaren itxura zuen egoera eraldatzen saiatzeko, eta egoera hori ekonomia-atzeraldi larria bihurtzea lortu dute. Gertaera horrek adierazten du zein gertu egon garen ekonomia-eta/edo gizarte-hondamenditik, gizadi osoarentzat ezin aurreikusiko ondorioak eta gertaerak eragingo zituen egoeratik.

B) Ikuspuntu teknikitik, banku zentralen (Erreserba Federala, Europako Banku Zentrala, etab.) jardunari dagokionez, izugarri deigarriak iruditu zaizkit ezarritako neurrien erabakitasuna eta exekutibitate gorena. Hortxe jarraitzen du krisiak, eta konpontzen ari da dirua asmatuz eta munduko finantza-sistema diruz estaliz, eta, beraz, sistemaren moneta-oinarria imajinaezinezko proportzioan handituz. “Dirua helikoptero batetik botatz, hala behar izanez gero”, Ben S. Bernanke AEBko Erreserba Federaletako presidentearen hitzetan.

C) Ni bai inozoa. Uste nuen dena ikusita nengoela, kontu publikoen kudeaketari eta kudeatzaileei (politikoei) dagokienez. Baina oker nengoen. Beste behin, agerikoa da bizitza publikoan mugagabea dela autoengainurako eta/edo zinimorako ahalmena. Ez baitagokio beste kalifikaziorik Espainiako Gobernuak krisia kudeatzen izan duen jarrerari: zinikoak dira, edo ezgai hutsak. Lehenik eta behin, krisi-egoerari dagokionez, behin eta berriz ukatu dute horrelakorik zegoenik, gero aitortu behar izateko, gaizki eta berandu. Geroago, bide erdian, neurri urriak, ez-eraginkorrak eta gaizki pentsatuak aplikatu dituzte.

Izan ere, duela asko zegoen iragarritako Espainiako ekonomian krisia izango zela. Norabide okerrean (neurrigabeke-ria higiezinaren sektorean) eta garapeneredu desegokiak erabiliz izandako gehiegizko hazkundeak eragindako krisia zen (eta da), argi eta garbi. Eredu ho-

**Norabide okerrean  
(neurrigabeke-ria  
higiezinaren sektorean) eta  
garapeneredu  
desegokiak erabiliz  
izandako gehiegizko  
hazkundeak eragindako  
krisia zen (eta da), argi  
eta garbi**

## ***Nire ustez, 2009. urtea finantza-ekonomiaren eta ekoizpen-ekonomiaren arteko erabateko hausturaren urtea ere izan da***

rien ezaugarriak hauek ziren: kontsumoaren eta inbertsioaren hazkunde-erritmoa barne-abe-rastasanaren sorrera baino handiagoa izatea; hazkundera, beraz, kanpo-zorpetzean oinarritzea, nahikoa barne-aurrezki ez izateagatik, etab. Iturria ixtean —kanpo-zorpetzera jotzeko aukera, alegia—, nazioarteko finan-

tza-sistemaren krisiaren ondorioz, den-denak porrot egin zuen.

D) Nire ustez, 2009. urtea finantza-ekonomiaren eta ekoizpen-ekonomiaren arteko erabateko hausturaren urtea ere izan da. Zerbait argi eta garbi geratu bada, hau izan da: herrialde garatu gehienetako botere publikoentzat lehenak (finantza-ekonomiak) garrantzi handiagoa duela bigarrenak (ekoizpen-ekonomiak) baino. Krisiaren hasiera-hasieratik hartutako neurri gehienak finantza-sistema salbatzera bideratu dira.

Laguntzak, besteak beste, likidezia-injekzio handiak, ehuneko zerotik gertuko interes-tasak eta banku-sistemarentzako laguntza eskuzabalak izan dira, bankuek beren balantzeak txukuntzeko eta ustiapen-kontu kaskarrak berreskuratzeko.

Baina hori guztia baliabide publikoekin egin da, sektore pribatuak jarritako eta ekonomia erreal eta eraldatzaileak sortutako baliabideekin (aurrezkiaren eta zergen bidez), eta eragile horiek (enpresaburuek) ez dute jaso dagokien ordaina, kredituen bidez, proiektuak garatu, lanpostuak sortu edo lanpostuei eutsi ahal izateko.

## **IV)**

Zer espero daiteke 2010erako? Dudarik gabe, hazkunde-erritmoei dagokionez, oso ondo legoke ekonomia, gutxienez, bere horretan gelditzea, beherantz egiten jarraitu gabe. Izan ere, 2010erako, ez da bultzada handirik espero Barne Produktu Gordinaren (ekonomia-eremu baten hazkundera adierazteko aldagai) osagaietatik.

Halaber, 2010. urtea ekonomiaren egiturazko ezinbesteko erreformen urtea izango da. Lan-merkatuan, pentsio-sisteman eta Gizarte Segurantzaren eredu osoan, erreforma garrantzi-

tsuak egingo dira, batzuk sakonagoak beste batzuk baino, egoeraren beharren eta politika-koiunturen arabera.

2010. urtean, krisiaren ondorio xenofoboek eragindako gertaerak deiturikoak ere gerta daitezke. Horri dagokionez, uste dut komeni dela zentzuz jokatzeko, ez dela beldurrik izan behar eskubideak eta betebeharrak orekaz aplikatu daitezkeen eskatzeko, eta ondoko herrialdeen esperientzietatik ikasi behar dela.

2010ean, nahiko nuke botere publikoek finantza-sistemari (bankuak eta aurrezki-kutxak) dioten begirunezko beldurra galtzea. Ohartu behar dugu bankuek beren sistemaren biziraupena jartzen dutela beste orenen gainetik, eta ondorioz, ez diotela lehentasunik ematen enpresa-ehuna eusteari.

Finantza-sistemak laguntza publikoak jasotzen dituzenean, neurriak hartu beharko lirateke, laguntza horietatik dagokion zatia ekonomia erreal eta ekoizpenekora iristen dela bermatzeko.

Izan ere, euskal enpresa-ehunean, gaur egun, proiektu asko daude finantziario normal baten zain, tratamendu normalizatua eskatzen, edo, hala nahi bada, finantza-sistema osoak duen adina abantaila eskatzen.

Gurera etorrita, 2010ean, euskal ekonomiaren bilakaera zertxobait hobea izango da, konparatzeko erabili ohi diren hurbileko inguruetakoa baino. Langabezia-tasa gutxiago igoko da, enplegu gutxiago galduko da eta hazkundera zertxobait handiago izango da. Hori guztia lortzeko, garrantzi handia izango du Frantziako eta Alemaniako ekonomien berreskuratzeko-maila eta intentsitatea zenbatekoa den, bai eta euskal produktuek merkatu horietan sartzeko zenbateko indarra eta lehiakortasuna duten ere. Baldintza horiek betetz gero, lehenago lortuko da ekonomia berreskuratzeko.

2010. urteak zuek imajinatzen duzuen eta euskaldun guztiok nahi dugun bezalako urtea izan beharko luke. Hala nahiko nuke behintzat.

***2010ean, euskal ekonomiaren bilakaera zertxobait hobea izango da***







# Euskal Herria 2009 adierazleetan

Adierazle nagusien zerrenda hautatua  
eta analisisa

BIZTANLERIA ETA LURRALDEA	Urtea	EH		EB		AEB		JAPONIA	
BIZTANLERIA (MILAKA)	1999-2009	2.900,93	3.089,60	481.617,95	499.723,52	272.690,81	299.398,48 <sup>1</sup>	126.689	127.772 <sup>1</sup>
AZALERA ETA BIZTANLERIAREN DENTSITATEA (BIZT. / KM <sup>2</sup> )	1999-2009	140,84	150,02	112,10	116,29	30,46	32,68	344,12	347,11
BIZTANLERIA ADIN TALDEKA (%) <=14	1999-2008	12,80	13,38	17,46	15,68	21,43	20,29	12,67	12,45
BIZTANLERIA ADIN TALDEKA (%) >=65	1999-2008	14,43	18,65	15,41	17,06	12,67	12,45	16,42	20,82
JAIOTZAK (1000 BIZT.)	2001-2008	8,91	10,26	10,38	10,90				
HERIOTZAK (1000 BIZT.)	2001-2008	8,90	9,07	9,90	9,73				

Iturria: INE, EUROSTAT

EKONOMIA <sup>9</sup>	Urtea	EH		EB		AEB		JAPONIA	
BPG BIZTANLEKO (EAPn, €tan)	2000-2007	22.585	33.014	19.100	24.900	30.700	38.800	22.300	27.900
LANAREN PRODUKTIBITATEA ENPLEGATUKO (€)	2000-2007	56.002	72.361	45.643	56.302	63.263	77.654 <sup>1</sup>	43.789	53.361 <sup>1</sup>
ENPRESA INBERTSIOA (BPGREN %)	2000-2008	25,70	23,17	20,64	21,09	20,32	18,47	25,18	23,31
I+GKO GASTUA (BPGREN %)	1999-2008	0,95	1,79	1,83	1,90	2,63	2,62 <sup>2</sup>	3,02	3,44 <sup>2</sup>
ESPORTAZIOAK (BPGREKIKO %) <sup>7</sup>	2006-2008	26,45	28,67	39,60	41,20	11,00	12,70	16,10	17,50
INPORTAZIOAK (BPGREKIKO %) <sup>7</sup>	2006-2008	25,54	25,83	39,20	40,80	16,70	17,60	14,90	17,40
KANPO-SALDOA (BPGREKIKO %) <sup>7</sup>	2006-2008	0,91	2,84	0,40	0,40	-5,70	-4,90	1,30	0,10
PERTSONA AKTIBOKO ERRENTA ERABILGARRIA (€) <sup>7</sup>	2001-2006	27.060	34.689						

Iturria: EUSTAT, INE, NEI, INSEE, EUROSTAT

GIZARTEA	Urtea	EH		EB		AEB		JAPONIA	
HEZKUNTZA MAILA (%) <sup>3</sup>	2006	41,16		41,59					
ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO GRADUATUAK, MILAKO.	2003-2006	22,48	22,88	12,30		10,90	10,30	13,20	14,40
ENPLEGU-TASA (15-64 URTE) (%)	1999-2009	57,06	63,81	62,50 <sup>4</sup>	65,90 <sup>4</sup>	73,90 <sup>4</sup>	70,90 <sup>4</sup>	68,90 <sup>4</sup>	70,70 <sup>4</sup>
EMAKUMEEN ENPLEGU-TASA (%)	1999-2009	42,99	56,40	53,00 <sup>4</sup>	59,00 <sup>4</sup>	67,60 <sup>4</sup>	65,50 <sup>4</sup>	56,70 <sup>4</sup>	59,7 <sup>4</sup>
55-64 URTE BITARTEKOEN ENPLEGU-TASA (%)	2001-2008	35,46	44,69	38,80	45,60	58,60	62,10	62,00	66,30
LANGABEZIA-TASA (%)	1999-2009			8,70	8,90	4,00	9,30	4,70	5,10
EUSTATEN arabera	1999-2009	13,77	8,65						
INERen arabera	1999-2009	12,51	10,69						
EMAKUMEEN LANGABEZIA-TASA (%)	1999-2008			9,80	7,50	4,10	5,40	4,50	3,80
EUSTATEN arabera	1999-2009	20,43	9,02						
INERen arabera	1999-2009	19,26	12,01						
IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA-TASA (%)	2001-2008			3,90	2,60	0,30	0,60	1,30	1,30
EUSTATEN arabera	2001-2008	3,62	1,03						
INERen arabera	2001-2008	7,52	3,78						
POBREZIAN MURGILTZEKO ARRISKU-TASA (%) <sup>5</sup>	2004-2008	11,66	7,50	16,00	17,00				
GIZARTE BABESA (BPGREN %)	2000-2005	18,86 <sup>6</sup>	19,32 <sup>6</sup>		27,10				

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, INCE, EUROSTAT.

- 1= azken datuak 2006.  
 2= azken datuak 2007.  
 3= Gutxienez bigarren hezkuntza dutenak.  
 4= datuak 2008.  
 5= Erabilitako metodologia: EBn, 2000 urtetik aurrera Lisboako Estrategian onartua, oinarritzko errentaren medianaren %60.  
 6= 2005eko datua da. 2010ean BPGren gainean egindako berrikuspenean araberakoa.

- 7= 2010ean berrikusitako datuak  
 8= Iparraldeko Behin Betiko datuetan oinarrituta  
 9= BPGren gaineko adierazle guztiak berrikusi dira  
 10= 03ko datua berrikusita eta estimazio eguneratua  
 11= EHko iazko datua EUSTATEk emana da, eta aurreko berritu ez denez, INEko datuen arabera da hau

Euskal Herria eta Finlandia 10 urteko adierazleen segida batean erkatuz

Finlandiak, Europako Batasuko estaturen artean, Euskal Herriak duen maila teknologiko antzekoa du.

BIZTANLERIA ETA LURRALDEA <sup>8</sup>	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	
Biztanleria (milaka)		2.892	2.947	2.962	2.974	2.995	3.015	3.029	3.061	3.089
		5.181	5.194	5.206	5.219	5.236	5.255	5.276	5.300	5.326
Azalera eta biztanleriaren dentsitatea (Bizt./ Km <sup>2</sup> )		138,00	142,76	143,37	143,84	144,73	146,40	146,99	148,43	150,02
		17,00	17,10	17,10	17,20	17,20	17,30	17,40	17,48	17,56
Biztanleria adin-taldea (%) <=14		12,52	12,51	12,59	12,70	12,83	13,01	13,20	13,38	
		19,16	19,01	18,87	18,71	18,56	18,35	18,19	17,99	17,85
Biztanleria adin-taldea (%) >=65		18,30	18,28	18,40	18,43	18,39	18,80	18,63	18,65	
		15,00	15,16	15,34	15,58	15,87	16,01	16,46	16,51	16,75
Jaiotzak (1000 Bizt.)		8,00	9,03	9,53	9,61	9,57	9,80	9,87	10,26	
		10,84	10,69	10,88	11,07	11,03	11,20	11,13	11,23	
Heriotzak (1000 Bizt.)		8,70	9,05	9,34	8,99	9,22	8,90	9,04	9,07	
		9,37	9,51	9,41	9,12	9,15	9,15	9,30	9,26	

EKONOMIA <sup>9</sup>	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	
BPG BIZTANLEKO (EAPn, €-TAN)		23.649	25.095	25.447	26.803	28.449	30.709	33.014	
		22.800	23.500	23.300	25.200	25.700	27.000	29.400	29.300
LANAREN PRODUKTIBITATEA ENPLEGATUKO (€)		57.240	58.964	59.116	61.304	64.042	68.200	72.361	
		50.582	51.575	51.134	55.620	56.914	59.105	63.491	62.331
ENPRESA INBERTSIOA (BPGREN %)		20,24	20,80	21,47	22,09	22,64	22,95	23,35	23,17
		19,48	17,96	18,13	18,29				
I+GKO GASTUA (BPGREN %)		1,10	1,10	1,23	1,26	1,37	1,49	1,69	1,79
		3,3	3,36	3,43	3,45	3,48	3,45	3,47	3,72
ESPORTAZIOAK (BPGREKIKO %)							26,45	27,58	28,67
		41,5	40,6	38,7	39,9	41,8	45,50	45,90	47,10
INPORTAZIOAK (BPGREKIKO %)							25,54	25,52	25,83
		32,2	31,3	31,9	33,4	37,7	40,80	40,60	43,10
KANPO SALDOA (BPGREKIKO %)							0,91	2,05	2,84
		9,4	9,2	6,8	6,5	4,1	4,7	5,2	4,0
PERTSONA AKTIBOKO ERRENTA ERABILGARRIA (€)		27.060	28.049	29.171	30.691	32.582	34.689		
		25.138	26.355	27.901	29.379	29.593	30.262		

GIZARTEA	2001		2002		2003		2004		2005		2006		2007		2008	
	EH	FI	EH	FI	EH	FI	EH	FI	EH	FI	EH	FI	EH	FI	EH	FI
Zientzia eta teknologia graduatuak (milako) <sup>10</sup>	19,86	17,20		17,40	22,48	17,40		17,90	22,46	18,10	22,88	17,90		18,80		
Enplegu-tasa (15-64 urte) (%)	58,84	55,9	60,84	55,8	61,65	55,4	62,68	55,2	63,82	55,7	65,01	56,3	66,26	57,0	66,21	57,6
Emakumeen enplegu-tasa (%)	45,31	51,3	48,04	51,9	50,34	51,4	52,29	51,2	53,83	51,9	55,70	52,5	56,47	53,2	57,81	53,6
55-64 urte bitartekoen enplegu-tasa (%)	35,46	45,7	38,00	47,8	38,29	49,6	39,16	50,9	42,47	52,7	43,18	54,5	44,49	55,0	44,69	56,5
Pobrezian murgiltzeko arrisku-tasa (%) <sup>11</sup>		29,0		28,0		28,0	11,66	29,0	9,81	28,0	10,09	29,0	10,67	29,0	7,50	28,0
Gizarte Babesa (BPGren %)	19,23	24,9	19,62	25,7	19,77	26,6	19,63	26,7	19,32	26,8		26,2		25,4		
Langabezia-tasa (%)		9,1		9,1		9,0		8,8		8,4		7,7		6,9		9,4
EUSTAten arabera	9,85		7,87		8,08		7,48		7,13		4,57		3,87		4,64	8,65
INEren arabera	8,87		8,79		8,70		8,88		6,98		6,62		5,87		6,53	7,81
Emakumeen langabezia-tasa (%)		9,7		9,1		8,9		8,9		8,6		8,1		7,2		6,7
EUSTAten arabera	26,02		11,50		10,60		9,31		7,23		5,54		4,46		5,41	9,02
INEren arabera	13,24		13,04		11,60		11,18		9,04		8,62		7,59		7,81	12,01
Iraupen luzeko langabezia-tasa (%)		2,5		2,3		2,3		2,1		2,2		1,9		1,6		1,2
EUSTAten arabera	3,62		2,86		2,50		2,58		1,84		1,36		0,88		1,03	
INEren arabera	7,52		6,40		6,82		7,09		4,43		4,70		3,89		3,78	

EUSKAL HERRIA FINLANDIA

Testuaren jatorrizko hizkuntza: gaztelania

# Begirada kritikoa Euskal Herriko ekonomia-adierazleei

*Nekane Jurado · Ekonomia-zientzietan eta aktuaritza-zientzietan lizentziaduna eta psikologoa.*

*Masterduna ogasuna eta administrazio publikoan.*

2009an, agerian geratu da krisia ez dela krisi ekonomikoa soilik. Ekologiaren, elikagai-subiranotasunaren, osasunaren, genero-harremanen eta balioen krisia ere bada, kapitalismoak garatutako zibilizazio-paradigmaren krisia. Labur esanda, kapitalismoaren oinarriaren krisia da, eredu ideologikoa.

Balio horiek direla-eta, Euskal Herria, gaur egun, kolokan dagoen gizartea da, legez ezarritako kolokatasunean. Biztanle gehienen —etorkinak, emakume gazteak eta adineko jendea— bizi-baldintzen kaskartze orokorrean, sektore publikoak parte-hartze aktiboa izan du, lan-merkatua eta gizarte-babesa desarautzeko eta babesgabetzeko legeen bidez. Baina errealitate hori ezkutuan geratzen da estatistikako batzuetan, hor ez baitira desberdintasunen muturrak adierazten. Beraz, Euskal Herriko egiturazko adierazleak aztertu behar dira, barru-barrutik.

**Biztanleria** apurka-apurka handitzen doa, migrazio-saldoren ondorioz. 3.089.600 pertsona bizi dira bertan; hau da, lurraldeak 150,2 biztanle/km<sup>2</sup>-ko dentsitatea du, EBkoa baino handiagoa (116 biztanle/km<sup>2</sup>). Baina datu hori batzuetan besteko bat baino ez da. Lurraldearen errealitatea da biztanleen % 70 euskal hiriburuen eskualdeetan biltzen dela.

**Biztanleriaren zahartzea** etengabea da (EBren batzuetan bestekoaren baino %1,5 handiagoa); hain zuzen, biztanleen %18,6k 65 urte baino gehiago ditu. Kolektibo hori ari da gehien nabaritzen, hain zuzen, Euskal Herriaren diseinuaren ondorioak. Izan ere, diseinu horretatik kanpo geratzen ari diren biziguneetan gelditzen ari dira; beraz, hein handi batean, espazio-bazterke-


ria jasaten ari dira, zerbitzuak eta aisialdi-aukerak eskuratzearen aldetik.

**Jaiotze-tasari** dagokionez, %1 baino gehiago berreskuratu da azken hamarkadan. 10,26 jaiotza/1.000 biztanle da egungo tasa. Hori dela-eta, 14 urtetik beherako ehunekoak gora egin du (%13,38 da), baina %2,3 txikiagoa da, EBko batzuetan bestekoa baino.

Krisi gorrian, dena den, ekonomia-adierazleek dute garrantzi berezia. Azken hamarkadan izandako BPGren hazkundearen ondorioz, Euskal Herriko urteko errenta per capita 33.014 €-ra iritsi da; hau da, EBko errenta per capita baino % 33 handiagoa. Baina, errealitateari begira, zenbateko horretatik oso urruti daude lanbide arteko gutxieneko soldata (8.736 €)<sup>1</sup>, pentsioen batzuetan bestekoa (12.180 €) eta gehiengo milaeuristaren soldata (gazteak, emakumeak, etorkinak). Batzuetan besteko horrek Euskal Herriko aberastasun-kontzentrazioa ezkutatu baino ez du egingen. EBko edozein herrialdetakoa baino handiagoa da kontzentrazio hori, eta horren ondorio da 18-44 urte bitarteko gazteen % 34,4<sup>2</sup> gurasoen etxetik ezin independizatzea, nahikoa baliabide ekonomiko ez izateagatik.




## GIZARTE BABESA (%)



Iturria: EUSTAT, INE, EUROSTAT

## LANAREN PRODUKTIBITATEA ENPLEGATUKO (€)



Iturria: EUSTAT, NEI, EUROSTAT

Halaber, ez da ahaztu behar BPGrekiko gizarte-babeserako gastua % 10 txikiagoa dela Euskal Herrian, EBko batz bestekoa baino. Hori pentsioetan adierazten da, askoz urriagoak baitira, bai eta gizarte-gastuko gainerako adierazleetan ere (hezkuntza, osasuna, etxebizitza, familia).

**Produktibitatea** 72.361 € langileko da, EBko batz bestekoa baino % 29 handiagoa. Gure ekonomiaren gaur egungo arazoa ez da produktibitate txikia, baizik eta kontsumo urria, eta soldatizoztea eta enplegu-suntsiketa ez dira neurri egokiak arazo horri aurre egiteko, baizik eta produktibitate hori soldatetan banatzea eta kontratazio berriak egitea, kontsumoa sustatzeko.

**Ikerketa eta garapenerako (I+G) gastua** BPGren %1,79 da. Ehuneko hori oso urruti dago 2010. urterako EBko helburutik (% 3), oso azpitik dago EBko batz bestekotik, eta oso urruti Suediak edo Finlandiak, esate baterako, inbertitzen duten zenbaketotik —herrialde horiek Euskal Herriak halako bi baino gehiago inbertitzen dute alor horretan—.

**Enpresa-inbertsioaren adierazlea** (% 23,17), nahiz eta behera egin, Europako Batasuna, Japonia eta AEBetako baino handiagoa da. Baina gogoan izan behar da balio horretan enpresa-inbertsioen guztizkoa sartzen dela, finantza-inbertsioak edo higiezinetan inbertitutakoa barne. Bi jarduera horien espekulazio-ezaugarriak kontuan hartuta, batez ere Euskal Herriko higiezin sektorekoa, inbertsio-mota horiek gehiago izan dira Euskal Herrian, EBn baino.

**Enplegu-tasa orokorra**, %63,81 (2009), EBkoa baino zertxobait baxuagoa da, eta emakumeen enplegu-tasa (% 56,40) batz besteko orokorretik urruti dago, eta EBkoa baino txikiagoa da. Baina tasa horrek ez du batere adierazten enpleguan dagoen dualizazio-maila altua: batetik, langileen sektore bat babestuta dago (hitzarmen bidezko eskubideak, antzinatasuna, BGAE, etab.), eta bestetik, gero eta langile gehiago daude ko-

lokatasun-egoeran, haien soldata eta eskubideak gero eta kaskarragoak baitira. Badirudi ugazabak krisi-egoera aprobetxatzen ari direla beren plantillak saneatzeko, eta, ahal duten neurrian, lehen multzoko langileez libratzeko (erretiro aurreratuak, sustatutako bajak, enplegua erregulatzeko espedienteak), eta haien ordezkariak kolokatasun-egoeran kontratatuzko (ekoizpen-egoerak hobera egiten duenean).


Dualtasun hori dela-eta, krisi honetan, enplegu gehiago suntsitu da Euskal Herrian, EBn baino. Hain zuzen, bi urteko epean, Euskal Herriko **langabezia-tasa** EBkoa baino txikiagoa izatetik EBkoa halako bi izatera pasatuko da. Beraz, 2009ko datuetan, aldaketa izango da Euskal Herriko eta EBko datuen alderaketan, Euskal Herriko enplegu-tasa (orokorra nahiz emakumeena) EBkoa baino txikiagoa izango baita. Eta hori guztia **zientzia eta teknologia prestakuntzaren tasa** (% 22,88) EBko batz bestekoa baino handiagoa izanda.

Deigarria da 55etik 65 urtera bitarteko kolektiboaren enplegu-tasa (% 44,69) batez bestekoa baino ia heren bat txikiagoa izatea (aurre-erretiroak, iraupen luzeko langabezia). Datu hori oso adierazgarria izan daiteke pentsioei buruzko eztabaidarako. Izan ere, kolektibo hori laneratuz gero, gizarte-segurantzak askoz diru gehiago eskuratuko luke, erretiro-adina 2 urte luzatuta baino.

1.-Lanbide arteko gutxieneko soldata, eroste-ahalmenaren parekotasunean, % 40 txikiagoa da, eurogureko batez besteko lanbide arteko gutxieneko soldata baino. Lehen postuan gaude langile pobreen estatistiketan; hau da, lan-merkatuan aktibo izanik pobrezia-atalasetik beherako diru-sarrerak dituzten langileen estatistiketan.


2.-Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2008 txostenaren. Eusko Jaurlaritzak argitaratua (2009ko martxoa). Datu hori lau urtean behin ematen da, eta indizeak izugarri egin du gora: 1996an, % 8,4 zen; 2000. urtean, % 15,2; eta 2004an, berriz, % 21,7.

**I+GKO GASTUA (BPGREKIKO %)**




Iturria: INE, EUROSTAT

**ENPRESA INBERTSIOA (BPGREN %TAN)**



Iturria: EUSTAT, NEI, INSEE, EUROSTAT

## EUSKAL HERRIKO LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA, 2007-2009



Bilakaera %tan	2007-2009	
	EUSTAT	INE
Araba	7,57	6,35
Gipuzkoa	3,91	4,14
Bizkaia	4,64	5,03
Nafarroa Garaia	6,12	6,12
Iparraldea	1,03	1,03
EH	4,78	4,82

\*Oharra: Gaindegiak EUSTAT erabili du iturri moduan Euskal Herriko datuentzat.

2007-2009 epealdian, langabeziak %4,78 puntu egin zuen gora, eta %3,87tik %8,65ra igo zen. Atzeraldia 2008ko datuetan hasi zen nabarmentzen; hala ere, 2009an, igoera izan da Euskal Herriko herrialdeetan. Aipatzekoak dira bi datu hauek: batetik, Araban izan da igoerarik altuena, %7,57 puntu gora egin baitu langabeziak. Bestetik, Iparraldean, langabezia tasa ia mantendu egin da epe berean, %1,03ko hazi baita.

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT

## EUSKAL HERRIKO ENPLEGU TASAREN BILAKAERA, 2007-2009




Lan merkatuan, krisi ekonomikoak gizonak kaltetu ditu emakumeak baino gehiago, enplegu tasari erreparatuz. 2007-2009 urte artean, emakumezkoen enplegu tasa %0,68 jaitsi zen; gizonezkoena, aldiz, %4,54 jaitsi zen.

Krisiaren aurretik, behin-behineko langileak ziren langile guztien %35etik gora, eta, gaur egun, berriz, %20 dira EAEn, eta %24 Nafarroa Garaian. Enplegu partzialari dagokionez, datuek adierazten dute horrelako lanak emakumeen kontua direla batez ere: Nafarroa Garaian, lanaldi partzialean aritzen dira emakumeen %23 eta gizonen %4; EAEn, berriz, emakumeen %26 eta gizonen %4 aritzen dira, eta, Iparraldean, emakumeen %33 eta gizonen %7. Aldi baterako enpleguaren pisua ez da ia aldatu krisiarekin. (Erref.: Mertxe Larrañaga, ikus Adituen Analisia atala).

Iturria: INE, EUROSTAT

## EUSKAL HERRIKO SEKTOREKAKO ENPLEGU TASAREN BILAKAERA, 2007-2008

Eraikuntza sektoreko enplegu tasaren bilakaera, 07-08



Euskal Herrian, sektorekako enplegu tasa, 07-08	2007	2008	07-08
Nekazaritza	1,53	1,52	-0,01
Industria	16,43	16,81	0,38
Eraikuntza	6,34	5,98	-0,36
Zerbitzuak	43,25	43,26	0,02

Eraikuntza	2007-2008
Araba	0,09
Gipuzkoa	0,21
Bizkaia	-0,33
Nafarroa Garaia	-1,43
Iparraldea	0,07
EH	-0,36

Eraikuntza sektorearen pisua jaitsi egin zen Euskal Herrian 2007-2008 epealdian; %6,34etik %5,98ra, hain zuzen. Nafarroa Garaian izan zen galerarik handiena: %1,43. Gipuzkoan, Araban eta Iparraldean, aldiz, joera bestelakoa izan da, eraikuntza sektorean enplegua hazi egin baita; %0,21 eta %0,08 inguruan beste biak.


Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT

**EUSKAL HERRIKO ENPRESA KOPURUAREN BILAKAERA, 2006-2008**

	2006	2007	2008	2006-2008 (%)
Iparraldea	24.551	25.128	25.888	5,40
Araba	26.557	27.135	27.896	5,04
Gipuzkoa	53.114	54.270	55.792	5,04
Bizkaia	95.871	101.900	104.838	9,3
Nafarroa Garaia	46.016	48.402	49.462	7,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>246.109</b>	<b>256.835</b>	<b>263.876</b>	<b>7,20</b>


263.876 enpresa zeuden Euskal Herrian 2008 urtean. 2006 urtean baino %7,2 enpresa gehiago. Euskal lurralde guztietan izan da hazkunde hori. Nabarmenezkoa da, ordea, lurraldeen artean dagoen aldea: Araban, Gipuzkoan eta Iparraldean, %5 inguruko hazkundea izan da, eta, Nafarroa Garaian eta Bizkaian, aldiz, %7,4koa eta %9,3koa izan da igoera, hurrenez hurren.

**EUSKAL HERRIKO ENPRESAK JARDUERA ADARRAREN ARABERA, 2006-2008**



06-08 epealdian, eraikuntza-jarduerako enpresak sustatu dira gehien Euskal Herrian. Eraikuntzan, hain zuzen, %10,89 enpresa gehiago dago, hau da, guztira 14.682 enpresa gehiago dago eraikuntzaren alorrean. Aldiz, zerbitzuetako enpresen hazkundea %7,8koa izan bada ere, guztira 21.068 enpresa gehiago dago alor horretan.

**EUSKAL HERRIKO ENPRESEN SALDOA JARDUERA ADARRAREN ARABERA, 06-07 / 07-08**



Bi urteko epealdian, 17.767 enpresa berri sortu dira Euskal Herrian. Epealdiei erreparaturaz, 2006-2007 aldian, 15.967 enpresa berri sortu ziren; 2007-2008 aldian, berriz, 6.421. Industria da hazkunde negatiboa izan duen alor bakarra: 07-08 epealdian, 89 enpresak baja eman zuten.

Iturria: INE, INSEE

I+GKO GASTUA (BPGREN %TAN)

		2006	2007	2008	06-08 (%)
Totala	EAE	1,55	1,83	1,97	0,41
	NG	1,85	1,82	1,87	0,02
	Iparraldea	0,10	0,10	0,10	0,00
	EH	1,49	1,69	1,79	0,30
Enpresa	EAE	1,22	1,49	1,59	0,37
	NG	1,25	1,20	1,29	0,03
	Iparraldea	0,07	0,07	0,07	0,00
	EH	1,13	1,32	1,40	0,28
Administrazio publikoak	EAE	0,06	0,08	0,09	0,03
	NG	0,14	0,20	0,15	0,01
	Iparraldea	0,01	0,01	0,01	0,00
	EH	0,07	0,09	0,10	0,02
Goi irakaskuntza	EAE	0,27	0,26	0,28	0,01
	NG	0,46	0,43	0,43	-0,02
	Iparraldea	0,02	0,02	0,02	0,00
	EH	0,29	0,28	0,29	0,00

Oharra: 2005-2008 bitarteko Iparralderako datuak gure estimazio propioak eginenez lortu ditugu

Iturria: INE, EUROSTAT

Euskal Herrian Ikerketa eta Garapenean egiten den gastua %0,30 hazi da 2006-2008 artean. Hala ere, %1,79ko gastua BPGrekiko oso urria da Europako Batasunetik 2010erako eskatzen zen %3ari begira. Lurraldeei erreparatu, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak egin dute ahalegin handiena gastua handitzeko (%0,42); Nafarroa Garaian, %0,02 handitu da, eta, Iparraldean, gastua mantendu egin da 06-08 epealdian.

I+GKO PERTSONALA (BIZTANLERIA AKTIBOAREN %TAN)


		2005	2006	2007	2005-2007
Totala	EAE	1,37	1,39	1,57	0,20
	NG	1,64	1,86	1,68	0,04
	Iparraldea	0,02	0,02	0,02	0,00
	EH	1,44	1,49	1,59	0,15
Enpresa	EAE	0,99	1,02	1,17	0,18
	NG	0,82	1,02	0,93	0,11
	Iparraldea	0,51	0,57	0,56	0,05
	EH	0,91	0,98	1,07	0,15
Administrazio publikoak	EAE	0,06	0,07	0,08	0,02
	NG	0,07	0,09	0,09	0,02
	Iparraldea	0,01	0,01	0,01	0,00
	EH	0,06	0,07	0,08	0,02
Goi irakaskuntza	EAE	0,32	0,30	0,32	0,00
	NG	0,74	0,75	0,66	-0,08
	Iparraldea	0,13	0,13	0,14	0,00
	EH	0,39	0,37	0,37	-0,02

Oharra: 2005-2007 bitarteko Iparralderako datuak gure estimazio propioak eginenez lortu ditugu

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT

Biztanleria aktiboaren ehunekoetan, Ikerketa eta Garapenean dabilen langileen kopurua %0,15 hazi da 2005etik 2007ra. Langileen bilakaera sektoreka aztertzen badugu, enpresetan eta administrazio publikoan dabilen langileen kopurua ere igo egin da: %0,15 eta %0,02, hurrenez hurren. Goi irakaskuntzan, berriz, %0,02 behera egin du I+Gko langile kopuruak, baina langile kopurua Nafarroa Garaian gutxitu da bereziki, %0,08 gutxitu baita; gainerako lurraldeetan, goi irakaskuntzako langileen kopurua mantendu egin da 05-07 epealdian.

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO GRADUATUAK 20-29 URTE BITARTEAN (1.000 BIZTANLEKO)




	05-06 (%)
EAE	0,70
Nafarroa Garaia	0,40
Iparraldea	-1,56
EH	0,42

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT

Euskal Herrian, Zientzia eta Teknologian graduatzen diren gazteen kopurua %0,42 handitu da 2005 eta 2006 urte artean; %22,46tik %22,88ra igaro da zehatz-mehatz. Alta, Iparraldean, graduatuzko gazteen kopurua apaldu egin da epealdi berean: %1,57. Aintzat hartu behar da Angeluko Montaury-n dagoen gune zientifikoak garapen nabarmena eza gutu duela, eta, beraz, aldaketa datozen urteetan etorriko da. (Erref.: ikus Adituen Análisisa atala, Eguzki Urteaga)




POPULAZIOAREN BILAKAERA ZONALDEKO, 1968-2006



	1968-2006
Kostaldea	35.512
Bitarteko zonaldea	32.881
Barnealdea	-6.984

Azken 40 urteetan, kostaldean 1,3 aldiz handitu da populazioa, eta, tarteko eskualdean, 1,8 aldiz. Barnealdeak kasik 7.000 biztanle galdu ditu lau hamarkada horietan (nahiz eta azken urteetan joera aldatzen ari den). Joera bera bizi dugu euskal kostalde osoan, hiriburuetan batez ere: Bilbo, Donostia eta BABen.


ZONALDEEN GAZTETASUN ETA ZAHARTZE TASAK, 2006



Zahartze tasarik altuena (60 urtetik gorakoen populazioaren ehunekoa) kostaldean eta barnealdean dago. Aldiz, gazteen tasarik altuena (30 urtez beherako populazioaren ehunekoa) tarteko eskualdean kokatzen da. Hegoaldean, 60 urtetik gorakoak %23,7 ziren, eta 30 urtez beherakoak, berriz, %24.

Iparraldeko biztanleen %31,7k 30 urte baino gutxiago du. Biztanleria aski gaztea da Iparraldekoa, Euskal Herriko batez bestekoarekin alderatuz (%24,9), baina Akitanian gazte gehiago zenbatzen da proportziorik (%34,1). Bestalde, eskualdeen arteko desberdintasunak apalak dira.



25 URTEZ BEHEITIKO SEME-ALABA KOPURUA FAMILIA ETA ZONALDEKA %, 2006



Familien erdiak baino gehiagok ez du haurrik (%52,3). Bestalde, familien tamaina apaldu egin da azken 7 urteetan; Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, esaterako, esaterako, batz besteko familia kide kopurua apaldu egin da 3,8tik 2,8ra 1991 eta 2001 bitartean.


Iturriak: INSEE, POLE EMPLOI, INE, EUSTAT

BPG €/bizt, 2006



Oharra: erregioen hautaketa Mikel Navarro irakasleak eta haren taldeak egindako lanetan oinarrituta dago.

URTEA	2006	2006	2007	2007	2007	2006	
Erregioak	BPG €/bizt.	Etxaguneen errenta netoa €	Zientzia eta teknologian aplikatutako giza baliabideak 10.000 biztanleko	Asteko lan ordu kopurua, batz bestea	Aktibitate tasa	Goi mailako ikasleen proportzioa guztizkotik %tan	
1	MECKLENBURG-VORPOMMERN- DE80	19.200	14.260,9	2.385,82	37	54,21	12,21
2	BRANDENBURG-DE4	19.700	14.992	2.609,99	36,2	54,74	11,20
3	RÉGION WALLONNE- BE3	21.700	15.161,6	2.208,58	36,1	42,14	13,45
4	ITÄ-SUOMI- FI13	23.500	13.752,5	2.028,12	37,7	45,77	19,77
5	POITOU-CHARENTES - FR53	23.800	16.918,5	1.783,74	37,6		12,75
6	BRETAGNE - FR52	25.200	16.671,2	2.242,30	39,4		14,42
7	STEIERMARK -AT22	26.900	17.955,9	1.808,93	38,9	49,64	18,16
8	EUSKAL HERRIA - EH	27.933	16.980,5	2.770,29	38,1	47,58	19,51
9	RHÔNE-ALPES -FR71	29.100	18.288,6	2.147,76	37,3		15,54
10	ZEELAND - NL34	29.500	15.129,6	2.314,60	31,3	50,78	5,24
11	BADEN-WÜRTTEMBERG- DE1	31.400	19.842,3	2.551,12	35,1	52,00	12,66



# Zifratan gakoa

2009 urteko ekonomia eta gizarteko  
zifra adierazgarriak



Argazki Press

**%34**

1995-2007 urtea artean Araba, Bizkai eta Gipuzkoa izan dira Nafarroa Garaiko ekonomiaren hornitzaile eta eroslerik garrantzitsuenak. Epealdi horretan, hiru herrialdeek %25,3ko erosketa bolumena izan zuten Nafarroa Garaian eta %34ko salmenta bolumena. Hala ere, hiru lurraldeen erosketa eta salmenta bolumena apaldu egin zen 2003-07 bitartean. Nafarroa Garaiko erosketa-bolumena Araba, Bizkai eta Gipuzkoan hobetu egin zen bitartean 2005-07 artean, salmenta-bolumenek bestelako bilakera izan zuten.

Iturria: www.c-interreg.es

**-%22,2**

2008tik 2009 urtera bitartean, Hegoaldean, industria-produkzioaren indizea %22,2 jaitsi zen Nafarroa Garaian, eta %20,9 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Industria-jarduera antzera apaldu da Hegoalde osoan, baina, datuok 2008ko abenduarekin alderatzen baditugu, hileko indizea alderatuz, 2009ko abenduan %14,5 igo zen ekoizpena Nafarroa Garaian, eta %2,7 jaitsi zen, berriz, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Iturria: EUSTAT, INE.

**%23,17**

2008. urtean, Japoniakoaren antzera, enpresa-inbertsioa BPGren %23,17koa izan zen Euskal Herrian. 2000. urtetik aurrera, %2,53 jaitsi da enpresa-inbertsioa Euskal Herrian. EBk ere beherantz egin du 2000-08 epealdian: 2008an inbertsioa BPGrekiko %21,09 izan zen. AEBn, %18,47ko inbertsioa egin zuten.

Iturria: EUROSTAT

**%125**

Euskal banku, kutxa eta kreditu-kooperatiben artean, BANKOAK jaso du estaldura-berankortasun tasarik altuena: %125eko estaldura eta %1,59 berankortasun-tasa apala lortu du. Ondoren, IPAR KUTXA dago: 2009ko irailari begira, %102ko berankortasun-estaldura tasa eta %2,24ko berankortasun-indizea lortu zuen. Estaldurari dagokionez, gainerako erakundeak %60-95 artean kokatzen dira, eta berankortasun-indizea, berriz, %2,5-%4 artean.

Iturria: Kreditu erakundeak, CECA-k eta AEB-k argitaratutako datuak. Ikus: Ana Berazak egindako lana 29. orrialdean.

**80**

2009an, Euskal Herrian 80 langile hil ziren lan istripuz. Hiru urteren buruan, lan istripuan hildakoen kopurua jaisten joan da. 2007-2008 urte artean, %10,4 hildako gutxiago izan ziren Euskal Herrian: 125etik 112ra jaitsi zen kopurua. 2008tik 2009ra, berriz, %28,6 egin zuen behera lan istripuan hildako langileen kopuruak Euskal Herrian (112tik 80ra).

Iturria: LAB sindikatua

**%1,79**

2008an, BPGren %1,79 izan zen I+Gko gastua Euskal Herrian. Europan 2010erako ezarritako %3ko helburutik urrun dago kopuru hori, nahiz eta, 10 urteko epean, gastua %0,95etik %1,79ra igo den Euskal Herrian. EB-27ren batez bestekotik (%1,9) gertu baldin badabil ere, artean oso urrun dago beste herrialde batzuetatik: %3,72 ra iritsi da Finlandian, %3,78 Japonian, eta %2,62 AEBn.

Iturria: EUROSTAT



Argazki Press

# %28,78

Iparraldean, bigarren etxebizitzek hazkunde bikoitza izan dute 1999-2006 urte artean etxebizitza nagusien aldean. Etxebizitza nagusien kopurua %12,2 hazi da; aitzitik, bigarren etxebizitzak %28,78 igo dira. Gainera, etxebizitza hutsen kopurua %26,27 jaitsi da zazpi urte horietan.

Iturria: Ipar Euskal Herriko argazki sozio-demografikoa txostena, Gaindegia.



Argazki Press

# %8,65

Euskal Herriak %8,65eko langabezia tasarekin amaitu zuen 2009. urtea (EUSTATen datuak erreferentziatzen harturik). 2008. urtean baino %4,01 langabetu gehiago izan ziren. Hala ere, eta, atzeraldi ekonomikoa tarteko, egoera orain hamar urte baino positiboagoa da, langabezia tasa %13,77koa baitzen 1999an.

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE



Argazki Press

# %7,5

2004. urtetik 2008. urtera, pobrezian murgiltzeko arrisku tasa 4,16 puntu jaitsi da; horixe diote estatistika-institutuek. 2004. urtean, Euskal Herrian, biztanleria osoaren %11,66 zegoen aipatu mugan; 2008an, berriz, %7,5. Finlandian ere, pobrezian erortzeko arrisku tasak puntu bat behera egin du 4 urteko epean (%29tik %28ra). EBn, ordea, 04-08 epealdian, aipatu tasa igo egin da (%16tik %17ra).

Iturria: INE, EUROSTAT

Oharra: Lisboako Estrategian 2000. urtetik aurrera adostutakoa da EBn Euskal Herriko ezarritako datuaren metodologia, hau da, oinarritzko errentaren medianaren %60.

# %4,4

Batez beste, osasungintzan egindako gastu publikoaren inbertsioa BPGren %4,4 izan zen 2007an Hegoaldean, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundean egindakoa baino baxuagoa (%6,5). Beraz, 2007an, Nafarroa Garaian, biztanleko 589,7€ gutxiago inbertitu zen osasungintzan, eta 647,7€ gutxiago, berriz, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Iturria: Azterketak. Hego Euskal Herriko osasun publikoaren inguruko txostena. 2010eko urtarria. 19. zk. Manu Robles-Arangiz Fundazioa.

# %15,4

Euskal Portu nagusien artean, Baionako portuan %15,4 hazi zen trafiko metatua 2008-2009 urte artean. Hegoaldean, Pasaiako portuan eta Bilbokoan %26,62 eta %16 murriztu zen trafiko epe horretan. 2009an, Pasaiako portuak 3,4 milioi tonako trafiko izan zuen, eta Baionakoak 4,3 milioi tonakoa. Bilboko portuan, aldiz, trafiko metatuaurreko bi portuen kopurua erraz gainditu zuen (29 milioi tona), nahiz eta %16ko beherakada sumatu azken urtean.

Iturria: Pasaiako Portua, Bilboko Portua, Baionako Merkataritza Ganbara.

# 263.876

Euskal Herrian, 263.876 enpresa zeuden 2008an, autonomoak barne. 2006tik aurrera, 17.767 enpresa berri sortu dira. 2006-2007 epealdian, 15.967 enpresa sortu ziren, eta, 2007-2008 epealdian, 6.421. Soilik industrian izan da hazkunde negatiboa 07-08 urte artean, sektore horretako 89 enpresa gutxiago baitzeuden epealdiaren amaieran..

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, NIE, INSEE



znacznie większa koncentracja jonów wodorow  
Wskutek tej różnicy stężenia w kierunku  
lanowe ( $\text{HCO}_3^-$ ) z krwi, które do  
krwinki — dla zrównoważenia  
nego jonu chlorkowego. Ten ostatni  
w tym czasie przemieszcza się do  
Dru ga nie zwiększa in  
się z globiną i  
„Krwinki  
W tej  
sposób  
gatunków  
mięśnia.  
mioglobi  
treningu  
wysiężonej prac, za  
czek mogli być z  
dennu, drogowac  
tak, że  
także ma się

make  
something  
lost the comp  
for me, u  
virtues  
Gu  
pointing  
To s  
been



# Adituen analisi

- Lan merkatua.
- Euskal finantza erakundeak.
- Ehun produktiboaren azterketa.
- Mugikortasuna.
- Ikerketarako azpiegitura sarea.

## Lan merkatuaren lanak

**Eguno egoera sozio-ekonomikoak zuzen-zuzenean eragin dio euskal lan merkatuari. Aktibitate tasak, langabeziak, sektorekako lan jarduerak... ez dute bilakaera bera izan krisiaren ondorioz, eta horrek ilundu egin du lan merkatuaren argazkia. Langabezia handia, prekarietatea, eta emakume eta gazteen lan merkaturatze apala dira, besteak beste, adierazle kezkarrienak, Europako Batasuneko batz bestekoekin alderatuz gero.**

Langabezia handia da egungo euskal lan merkatuaren ezauzgarri kezkarrienetarikoa. Azken sei urteetako langabeen kopuru handienera iritsi da, egun, euskal lan merkatua, eta langabezia tasa %8tik gora dago. Lurrealde kaltetuena Nafarroa Garaia da, %10,89ko langabezia tasa baitu; gertu du Araba, %9,88ko tasa baitu; eta, Bizkaia eta Iparraldean, %8,63koa %7,43koak dira tasak, hurrenez hurren. Europako Batasuneko batz bestekoaren oso gainetik daude aipatu lurraldeak, %7,9koa baita EBko tasa. Bestelako irudia erakusten du Gipuzkoak: %6,48ko langabezia tasa du; EBko batz bestekoaren azpitik dago, beraz. Horrez gain, EEE Enplegu Erregulazio Espediente kopuruak ere nabarmen egin du gora. Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian, esaterako, lurraldeko 550 espedientetik gora onartu ziren iaz, eta 70.000 langiletik gora daude egun espediente horietakoren baten eraginpean.

Prekarietatearen adierazleak ere nabarmenak dira, batez ere Hegoaldean. Aldibateratasun tasa, esaterako, %22koa da Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian; Europako %12,7ko batz bestekoaren oso gainetik daude. Bidasoaren bestaldean, halere, EBren batz bestekotik gertu dira, %12,8koa baita tasa hori.

Emakumeak lan merkatura sartzeari dagokionez ere Europan atzetik dabil Hegoaldea. Horren adierazle dira emakumeen aktibitate tasak. Bizkaian eta Nafarroa Garaian integratu dira gutxien emakumeak lan merkatuan, %46,9 eta %49,5eko aktibitate tasak baitituzte, hurrenez hurren. Araban eta Gipuzkoan %52ren bueltan dabilta; EBko %53tik gertuago, beraz. Iparraldeak erraz gainditzen ditu batz besteko horiek, %75 inguruko emakumeen aktibitate tasa baitu.

Emakumeen ondoan, gazteena da lan merkatuan toki gutxien duen beste sektorea. Adin sektore horretako aktibitate tasa handiena Iparraldean dago, %46; EBren %43ren gainetik dago, beraz. Gainerako lurraldeak ez dira %40ra iristen: Nafarroa Garaian, gazteen %37 dago lan merkatuan; Gipuzkoan eta Araban, %31, eta, Bizkaian, %27,6.

**Langabezia handia, prekarietatea, eta emakume eta gazteen lan merkaturatze apala dira, besteak beste, adierazle kezkarrienak**


Sektorekako argazkiari dagokionez, euskal lan merkatua Europako Batasuneko joerara hurbiltzen ari dela erakusten dute datuek, eta hirugarren sektorerako bilakaera sendotu egin da. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, lanean ari diren langileen %65ek zerbitzuen sektorean lan egiten du, eta Iparraldean langileen %58k. Krisiak erakuntza eta industria sektoreari zuzenean jo ostean, zerbitzuen sektorean lanean ari direnen kopurua igo egin da azken urtean. Batik bat Araban izan da aldaketa: urtebetean %5 hazi da zerbitzuetan lan egiten dutenen kopurua. Industrian eta eraikuntzan antzeman da, ostera, jaitsiera handiena: Araban, %6 langile gutxiago ari da lanean industrian. Eraikuntzak, berriz, oro har, Euskal Herri osoan.

Janaldi eta soldatetan, ostera, berriro ere EBtik urrun dago Hegoaldea. 38,7 ordukoa da egun, lanaldia Europako Batasuneko, eta, Hegoaldean, 40 ordukoa. Iparraldean, ostera, EBko batz bestekotik behera daude, 38 orduko lanaldia baitute. Soldatetan ere, Iparraldeak datu hobekak ditu, batz beste urteko 29.000 eurokoa baita bertan lan saria. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, batz beste, 23.900 euroko soldata dute langileek, urteko, eta nafarrek 22.220 eurokoa. EBn, urteko 34.500 eurokoa da soldata.

Euskal lan merkatuak dagoeneko atzeralditik ateratzen ari diren EBko herrialdeen bidetara jarraitu nahi badiot, beraz, sendotzen lanak egin beharko ditu. Datuek erakusten dute Iparraldean aurreratuago dituztela etxeko lanak. Hegoaldekoek aldapa malkartsuagoei aurre egin beharko diete.

**Estitxu Elduaiei**

**Euskal Herriko enplegu-tasaren bilakaera 07-09**



Iturria: EUSTAT, INE, INSEE.



Testuaren jatorrizko  
hizkuntza: euskara

# Euskal Herriko lan merkatua, egungo egitura eta etorkizuneko erronkak

Mertxe Larrañaga Sarriegi · Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU

Gaur egun jendea gehien kezkatzen duen arazoa langabezia da. Horixe diote behintzat inkestek, eta, datuak ikusita, ez da batera harritzekoa. Bizi dugun atzeraldi handi honek eragin benetan kaltegarriak ditu eta izango ditu lan-merkatuan, lan-merkatu formalean nahiz informalean, eta, seguru asko, baita merkatutik kanpo egiten diren lanetan ere. Laburbilduz, enplegu formalean galera handiak ekarri ditu, eta langabezia igotzea da horren adibiderik garbiena. Enplegu informalean, berriz, honako hau gertatu ohi da krisi-garaietan: hasieran, enplegua igo egiten da, batez ere jarduera batzuk ekonomia formaletik ezkutuko ekonomiara pasatzen direlako kostuak jaitsi nahian, baina, krisia luzatzen bada, enplegu horiek ere galtzen hasten dira. Gainera, merkatutik kanpo egiten diren lan-orduak igo egiten dira normalean, lotura estua baitute merkatuko lanak eta merkatutik kanpo egiten denak: garai txarrak iristen direnean, familia askoren errenta jaitsi egiten da, eta, aurretik izandako bizitza-mailari eusteko ahaleginean, etxeko kideen lan-orduak handitu egiten dituzte sarritan.

Gaur egungo krisia finantza-krisia izan da neurri handi batean; baina, krisia ekonomia errealerazabaldutik den heinean, enplegu-krisi bihurtu da: langabeziaren igoera itzela izan da enplegu-krisiaren ondorio begi-bistakoa. Baina, langabezia igozteaz gain, beste kalte batzuk ere eragin ditu krisiak lan-merkatuan: behin-behinekotasuna igotzea eta lan-baldintzak okertzea ekarri ohi dute krisiek, eta oraino ez da, ez gure ustean behintzat, salbuespena izango.

Kreditu faltak finantza-krisia enpresa produktiboetara heltzea ekarri du, eta bereziki larririk izan dira eraikuntza – eta industria – sektorean (batez ere automobilgintzan) eragindako kalteak. Sektore horiek oso-oso maskulinoak dira; esate baterako, gizonak dira eraikuntzako langileen %90etik gora. Hori dela eta, gizonen langabezia-tasa emakumeena baino gehiago igo da, eta, historikoki emakumeen langabezia gizonena baino altuagoa izan bada ere, orain bien arteko aldea ia desagertu egin da. Euskal Herrian, 2007an, emakumeen eta gizonen langabezia-tasen arteko aldea 1,34 puntukoa zen, eta 2009an, berriz, 0,41ekoa.

Krisiaren aurretik, gizonen eta emakumeen arteko aldea positiboa zen lurralde guztietan; hau da, emakumeen tasa gizonenazkoena baino altuagoa zen, eta, bi urte zoro horiek igaro ostean, egoera desberdina da. Krisiaren aurretik, Araban, Gipuz-



Mertxe Larrañaga Sarriegi

**Finantza-krisia izan da neurri handi batean, baina ekonomia errealerazabaldutik pronto, enplegu-krisi bihurtu da**

koan eta Bizkaian zegoen bi generoen arteko alde txikiena. Krisiaren ostean, Bizkaian eta Gipuzkoan aldea negatibo bihurtu da, hau da, estatistikak ditugunetik lehenengo aldiz, emakumeen langabezia gizonena baino baxuagoa da. Aldiz, Araban, aldea handitu egin da, krisiaren eraginez gizonen langabezia laukoiztu egin delako, eta emakumeena, berriz, 4,7 aldiz altuagoa delako orain. Berriz ere, krisiaren aurretik alde handiena zuten lurraldeetan, hau da, Nafarroa Garaian eta Iparraldean, aldea nabarmen txikitu da, eta, gaurko tasak altuagoak direnez, bilakaera ez da

bereziki txarra izan emakumeentzat. Langabeziaren bilakaera desberdin horri erreparatuta, baieztatu daiteke emakumeak eta gizonak enplegu ezberdinetan aritzen direla; hau da, lanbide-bereizketak bizi-bizi jarraitzen du. Bereizketa hori, normalean, emakumeen kalterako izan ohi da (esate baterako, emakumeen enpleguak gutxiago balioesten eta ordaintzen dira), baina, oraino, emakumeak langabeziatik pixka bat babesteko balio izan du. Hori bai, langabeziaren egonez gero, askotan, emakumeen egoera gizonena baino okerragoa izaten da, babes txikiagoa izaten baitute; desberdintasun hori lan-merkatuko ezberdintasunek azaltzen dute, neurri handi batean behintzat.

Dena den, langabeziaren igoera-tasa ezberdin horiek eta langabezia-tasen aldea nola ixten den ikusita, ez dugu ahaztu

behar emakume gutxiago dagoela merkatuan: oraindik ere, 15 puntuko aldea dago gizon eta emakumeen jardueraren artean. Krisi-garaietan, bi fenomeno gerta daitezke emakumeen jarduerarekin loturik: alde batetik, enpleguak galdu eta, gizonekin gertatzen denaren antzera, langabeziak irauten badu, batzuk desanimatu eta merkatutik atera daitezke. Baina, beste alde batetik, aldi berean gerta liteke, egoera txarrak bultzatuta, emakume jakin batzuk -krisi aurretik merkatutik kanpo zeudenak, batez ere- merkatuan sar-

tzeari sartzea. Horixe gertatu da, antza, AEBn, eta litekeena da hemen ere gertatzea, nahiz eta hori baieztatzeko datuak ez dugun.

Jardueren arteko aldea 15 puntukoa bada, enplegu-tasen arteko aldea ere beste hainbestekoa izango da: datuen arabera, Euskal Herrian, gizonen tasa %71,2koa da, eta emakumeena, berriz, %56,4koa. Hori bai, bion arteko aldea pixkanaka-pixkanaka ixten ari dela ematen du; izan ere, orain dela bi urte, 2007an, 19 puntukoa zen. 2009an, enplegu-tasen arteko alde



Argazki Press

handiena Iparraldean zegoen (han, emakumeen enplegua gizonena baino 21 puntu baxuagoa zen), eta alde txikiena, berriz, Gipuzkoakoa zen (11,5).

Langabeziarekin jarraituz, oso kezka-garria iruditzen zaigu gazteekin gertatu dena. 2007an, 16 eta 24 urte bitartekoan langabezia-tasa %10koa zen Euskal Herrian, eta orain, berriz, %25ekoa da. 2009an gazteen langabezia-tasa altuena zuen lurraldea Nafarroa Garaia zen (%30,9), eta baxuena Gipuzkoa (%18,4). Krisiaren aurretik, 2007an, tasa altuena Iparraldekoa zen (%18,2), baina, Iparraldea tasa gutxien hazi den lurraldea denez (lau puntuko igoera izan du "bakarrik"), Iparraldea lehen postutik laugarren postura jaitsi da bost lurraldeen arteko gazteen langabezia-rankinean. Eta, gainera, gazteez ari garela, kontuan izan behar dugu nabarmen gora egin duela aurtengo ikasturtean ikasten jarraitzen duten gazteen kopuruak; seguru asko, horrek lotura estua izango du aurreko datuekin.

Jakina, enpleguaren krisiak bigarren sektorea indar bereziarekin joz gero, zerbitzuek enpleguan duten pisua igotzea litzateke normalena, eta datuek adierazten dute horixe gertatu dela hain zuzen, bai behintzat Hegoaldean. Azken urte eta erdian, zerbitzuek enpleguan duten pisua hiru puntu igo da Nafarroa Garaian, eta %60ra iritsi da; lau puntu igo da, berriz, EAEn, eta %68ra heldu da. Zerbitzuen alorrean, pisu gehien irabazi duen adarra, bai Nafarroa Garaian, bai EAEn, jarduera profesional, zientifiko eta teknikoena da. Dena den, bigarren sektorean berean, joera bat baino gehiago bereiz daiteke lurraldetik lurraldera. Izan ere, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, zerbitzuek

irabazitako lau puntuak eraikuntzak eta industriak galdutako bina punturekin orekatzen dira; Nafarroa Garaian, berriz, zerbitzuek irabazitako hiru puntuak eraikuntzak galdutako hirurak direla esan daiteke, industriak ez baitu pisurik galdu okupazioari dagokionez. Zerbitzuen pisua azpimarratzean, gogorazari behar da zerbitzu-sektorea dela feminizatu den bakarra, sektore horretan aritzen diren langile guztien erdia baino gehiago emakumeak baitira: Nafarroa Garaian eta EAEn, %58, eta Iparraldean, berriz, %52.

Aipatzekoa da, halaber, langabetuen ehuneko altuak urtebete baino gehiago daramala egoera berean, Hegoaldean behintzat: (gizon-emakume guztien) %20 Nafarroa Garaian, eta %30 EAEn. Eta epe luzeko langabezia epe luzeko arazo bihurtzen da: askotan, denbora igaro ahala, langile horientzat gero eta zailagoa da enplegua aurkitzea, eta, nahiz eta egoera ekonomikoa hobetu, asko kostatzen zaie berriro lan-munduan sartzea. Esan daiteke oso nekez egiten dutela aurrera kontratu baten zain daudenen zerrendan; maiz, merkatuan sartu berriek aurrea hartzen diete, eta beti azkenak izaten jarraitzen dute.

Jakina, krisiak Europako herrialde guztiak jo dituen arren, enpleguaren krisia nahiko ezberdina izan da herrialde batetik bestera. EB-27ko azken datuen arabera, langabezia-tasa %10ean jarraitzen du European, eta, herrialde industrializatuetan, Alemanian, esaterako, %8tik behera dago. Beste muturrean

dugu Espainiako estatua: langabezia-tasa %19,3koa da. Eta zergatik horrelako aldeak? Batzuek esaten dute lan-merkatuan dagoela arazoa, lan-merkatuaren zurruntasunean, hain zuzen ere, eta lan-merkatua malgutzeko proposamenak egiten dituzte. Iritzi hori dela eta, asko harrizten gaituena da nola esan daitekeen lan-merkatua zurruna dela, behin-behinekotasuna beste inon baino altuagoa izanik. Zurruntasuna justifikatzeko, esaten dute bi langile-mota daukela (insiderrak eta outsiders), eta sindikatuek insiderrak (langile finkoak) bakarrik defendatzen dituztela. Eredu horren arabera, lan-merkatuko kalteak outsidersrek bakarrik jasaten dituztenez,

merkatua malgutzeko oztopo nabarmenak dira besteak, eta privilegioei eusten diete, gainera. Gure ustez, beste arlo batean gertatutakoaren ondorioa da gaur egungo langabezia, eta jarduera produktiboak eraikuntza-sektorearekiko duen mendekotasuna dago langabezia hainbeste igotzearen atzean, bai eta behin-behineko enplegua ere, horrelako langileak kaleratzea oso erraza eta merkea baita. Gainera, bi gai horiek erabat lotuta daude, behin-behineko kontratazioak pisu ikaragarria baitu, adibidez, eraikuntza-sektorean.

Bestalde, langabezia igotzearekin batera, krisiak enpleguaren kalitatean ere eragiten du, eta ez onerako, jakina. Normalean, behin-behinekotasunak gora egiten du krisi-egoeretan; hori neurtzeko erabiltzen diren adierazleak lanaldi partzialeko

***Krisi-garaian, emakumeen jarduerarekin loturiko bi fenomeno gerta daitezke: alde batetik, enpleguak galtzen dira, baina, aldi berean, krisi aurretik merkatutik kanpo zeudenak, merkatuan sartzen dira***

## ***Etorkizunari begira, enplegua berpiztu nahi bada, seguru asko beste era bateko lan-politikak ezarri beharko dira***

enpleguak, behin-behineko enplegua eta azpienplegua dira, batez ere. Langabetu askok behin-behineko kontratuak zituzte-nez, jaitsi egin da behin-behinekotasunaren pisua enpleguan. Jaitsiera oso nabarmena izan da Hegoaldean (17 puntu jaitsi da EAEn, eta 12 puntu Nafarroa Garaian): krisiaren aurretik, langile guztien %35etik gora behin-behinekoak ziren, eta, gaur egun, berriz, %20 dira EAEn, eta %24 Nafarroa Garaian. Enplegu partzialari dagokionez, datuek adierazten dute horrelako lanak emakumeen kontua direla, batez ere: Nafarroa Garaian, lanaldi partzialean aritzen dira emakumeen %23 eta gizonen %4; EAEn, berriz, emakumeen %26 eta gizonen %4, eta, Iparraldean, emakumeen %33 eta gizonen %7. Aldi baterako enpleguaren pisua ez da ia aldatu krisiarekin, baina langile horien nahigabea igo egin dela esan genezake: egoera horretan daudela jardunaldi osoko enplegua lortu ezin izan dutenen kopurua nabarmen hazi da, hazkuntza 10 puntu ingurukoa izan baita. Azpienplegatuen kopuruak etengabe gora egin du krisiak eztanda egin duenetik. Langileak hainbat arrazoiengatik senti daitezke azpiokupatuta; besteak beste, enplegu desegokia daukatelako, lan-ordu kopurua txikiagia delako edota soldata baxuegia dutelako.

Testuinguru horretan, eta ekonomia berpizteko eta enplegua suspertzeko asmoarekin, gobernu askok gastu publikoa igotzea erabaki dute, Keynesen aginduei jarraituz, baina azpiegitura fisikoak bultzatu dituzte batez ere, seguru asko eraikuntza-sektore pribatuaren gainbehera orekatu nahian. Gainera, erabaki horren atzean dagoen ustea da eraikuntzak enplegu ugari sortzen duela, eta baita sektore eragilea dela ere, hau da, erai-

kuntza berpiztu ostean, gainerako sektoreek ere gora egingo dutelako itzaropena. Gure ustez, horren aurrean galdera erraz bultzatzea komeniko litzateke, hala nola: Zeinen mesederako azpiegiturak dira? Zer motatako hazkundera bultzatzen da horrela? Iraunkorra al da horrelako eredia? Nolako eta norrentzako enpleguak sortzen dira? Seguru gaude beste era bateko beharrak ere ugariak direla gizartean; adibidez, pertsonen zaintzarekin zerikusia dutenak, eta gizarte-zerbitzu horiek ere enplegu ugari sortzen dute. Gainera, enplegua sortzeaz gain, jendearen ongizatearekin eta bizitza-kalitatearekin oso lotura estua eta handia dute; gure inguruan ikusten ari garen herri-lan askok baino handiagoa, seguru asko.

Etorkizunari begira, enplegua berpiztu nahi bada, beste era bateko lan-politikak ezarri beharko dira seguru asko. Langabeziaren arazoei aurre egiteko, egokiena enplegu-kopurua handitzea litzateke, baina ez du ematen horrelakorik gertatuko denik, ez behintzat epe motzean. Egoera horren aurrean, Paul Krugmanek, esate baterako, Alemaniako ereduari begiratzea gomendatzen du. Zer egin du Alemaniak langabezia-tasa kontrolpean izateko? Besteak beste, enplegua banatzeko neurriak hartu ditu, lan-orduak murrizten dituzten enpresei pizgarriak eman dizkiete, eta, ondorioz, langile gutxiago kaleratu dituzte. Jakina, horrek soldata jaistea dakar, baina enpleguari eusten zaio; hori bai, askoz modu prekarioagoan. Gainera, ez dugu ahaztu behar, langabeziaren ondorio larriena soldata-eza bada ere, badituela ondorio negatibo ugari langabetuentzat (eta, neurri txikiagoan, baita haien ingurukoentzat ere): psikologikoak (autoestimugalerak, eta abar), eta baita fisikoak ere (osasun makalagoa eta gaixotasun gehiago). Eta, antza, kalte ekonomiko horiek ez dituzte pertsona guztiek modu berean jasaten; izan ere, psikologikoak handiagoak izaten omen dira gizonengan. Ondorio hori, seguru asko, estereotipoekin lotuta dago, bai eta gizonen denbora betetzeko duten zailtasunarekin ere.



Argazki Press

## Iturria zabalik, baina iragazkiarekin

**Kreditu premia da egungo krisi egoeran ekonomia erre-  
alak duen behar nagusia: kreditua herritarrentzat, kon-  
sumoa indartzeko eta ekonomia suspertzeko; eta kre-  
ditua enpresentzat, inbertsio gehiago egin eta beren jar-  
duera indartu dezaten. Baina kreditua izan da, aldi be-  
rean, egungo krisiaren eragile nagusia, eta, ondorioz,  
kredituekiko neurriak eta baldintzak aldatu egin dituz-  
te banku eta aurrezki kutxek.**

Finantza erakundeek iturria itxi dutela behin eta berriz salatu dute enpresariak eta herritarrek, baina krediturik ez dutela murriztu adierazi dute beraiek, datuak eskuan. 2008ko emaitzen arabera, Euskal Herrian egoitza duten kutxa eta banketxeek ugaritu egin dute mailegutan emandako dirua. Erakundetik erakundera bada aldea, baina guztiek eman dituzte aurreko urtean baino mailegu gehiago 2008an: BBKren %6ko hazkundearen eta Ipar Kutxaren %14,84ko hazkundearen artean daude finantza erakunde guztiak.

Kontsumo propiorako eta hipoteketarako emandako maileguak eta enpresa eta komertzioentzat emandako maileguen kopuruak biak hazi dira, baina maileguak emateko baldintzak nabarmen zorrotzu dituzte, bai enpresen eta bai familien kasuan. Iturriari iragazkiak jarri dizkiote. Hegoaldekoen kasuan behintzat hala adierazi du Espainiako Bankuak egindako ikerketa batek. Ikerketa horren arabera, finantza erakundeek mailegua emateko orduan gehiago begiratu diote ekonomiaren aurreikuspen eta enpresen hazkunde aukerei likidezari baino, eta enpresaburuak ohi baino ahalegin handiagoa egin behar izan dute dirua lortzeko. Banku eta aurrezki kutxa askok tarteko bidea aukeratu dute, gainera: finantza institutu publikoekin akordioak lortu dituzte, enpresak finantzatzeko.

Familien maileguen kasuan ere halatsu gertatu da. Europako Banku Zentralak kontsumoa sustatzeko interes tasak jaitsi ondoren Euriborrak behera egin badu ere, hipoteka maileguei

**Kredituekiko neurriak  
eta baldintzak aldatu  
egin dituzte banku eta  
aurrezki kutxek**

**Krisiak jotako herritar eta sektoreen beharrei  
erantzuteko, produktu berriak ere sortu dituzte,  
bestalde, euskal finantza erakundeek, gizarte  
babesaren premiari aurre egiteko**

ezarritako tartekak handitu egin dituzte finantza erakundeek. Horrez gain, etxearen balio osoa finantzatzeko hipotekak ia desagertu egin dira, baita soldataren %30 baino gehiagoko kuota eskatzen dutenak ere.

Hala ere, hazi egin da bankuek maileguen bidez jasotako dirua, eta horrek likidezia faltari aurre egiten lagundu die. Izan ere, likidezia falta hori da egungo krisiak utzi duen beste beharretako bat. Euskal finantza erakundeak alde horretatik nahikoa "sendo" daudela esan dute beren emaitzak aurkeztu dituztenean, baina merkaturatutako produktu batzuek erakusten dute zenbait finantza erakunde behintzat "pasiboaren gerra" delakoan sartu direla: bezeroen aurrezki berenganatzeko, interes altuagoko produktuak merkaturatu dituzte, esaterako, Euskadiko Kutxak eta BBVAK.

Krisiak jotako herritar eta sektoreen beharrei erantzuteko, produktu berriak ere sortu dituzte, bestalde, euskal finantza erakundeek, gizarte babesaren premiari aurre egiteko. Langabezian gelditu eta hipoteka ordaindu ezinik dabilentzat, esaterako, Zeharo funtsa sortu du Kutxak, eta gizarte ekintzatik 3 milioi euro bideratu ditu bertara. Vital Kutxako arduradunek ere gizarte ekintzako fondoei "norabide berria" emateko asmoa erakutsi dute, "krisiaren ondorioz egoera larrian gelditzen ari diren herritarrei babes handiagoa emateko helburuarekin". Gregorio Rojo presidentearen hitzak dira, baina oraingoz ez dute neurri zehatzik jakinarazi. Gainera, aipatzekoa da gizarte zerbitzuetara bideratutako diru kopuru erreala aurreko urteetako baino eskasagoa izan dela. Izan ere, euskal kutxek irabazien %30-40 bitartean bideratu dute gizarte ekintzara, aurreko urteetan baino ehuneko altuagoa, baina, irabaziak oro har murriztu egin direnez, bideratuko den diruaren kopurua ere jaitsi egin da.

*Estitxu Elduaien*

Finantza Erakundea	2008an gizarte ekintzara bideratutako dirua (milioi eurotan)	Gizarte ekintzara 2007ko irabazietatik bideratutako ehuneko (%)	2007an izandako irabaziak (milioi eurotan)
BBK	82	26,7	307
Kutxa	81	37,5	216
Vital Kutxa	25	35,2	72
Nafarroako Kutxa	51	30,3	168

Iturria: Kutxen urteko memoriak.

Testuaren jatorrizko  
hizkuntza: euskara

## Finantza-erakundeek ekonomia errealarari emandako erantzuna

Ana Beraza · EHUko irakaslea

Krisiaren hasieran Euskal Herrian egoitza duten kreditu-erakundeek abiapuntua askoz hobea zen Espainiako Estatuko finantza-entitate askoren aldean, beren balantzeetan azaltzen ziren kaudimenak, likideziaz eta errentagarritasunak adierazten zuten bezala.

Aipagarria da, euskal erakundeek ekonomia errealararen arazoari emandako erantzun positiboa. Gobernu zentralak zein autonomikoei kredituak familietara eta enpresetara iritsi ahal izateko abian jarri dituzten hainbat programatan parte hartzen ari dira euskal kreditu-erakundeak.

### **Aipagarria da, euskal erakundeek ekonomia errealararen arazoari emandako erantzun positiboa**

BBVA, Banco Guipuzcoano eta Bankoa izan ezik. Bertan parte hartzeko arrazoi nagusia ez zen likideziaz arazoak jasatea, baizik eta finantzaketa merkea lortzea. Izan ere, funtsaren bidez lortutako finantzaketaren interes-tasa erakargarria zen, eta balantzea egonkortzea ahalbidetzen zuen. Guztira, 648 milioi euro lortu zituzten euskal finantza-erakundeek.

Horrez gain, euskal finantza-erakundeek zenbait jaulkipen (hipoteka-zedulak, lehentasunezko partaidetzak, titulizatutako maileguak, etab.) aurrera eraman dituzte, beren kaudimen-maila zein likideziaz egoera hobetzeko asmoarekin. Eragiketa horiei guztiei esker, pasiboko eragiketen bidez (ageriko eta eperako gordailuak) lortu dituzten baliabideekin batera, kredituak ematen jarraitzeko nahikoa likideziaz eskuratu ahal izan dute.

Bestalde, Espainiako Gobernuak, ICO institutuaren bidez, enpresak eta familiak finantzatzeko garatu dituen hainbat programatan euskal finantza-erakunde guztiek parte hartu dute. Gainera, Eusko Jaurilaritzarekin eta Nafarroako Gobernuarekin ez ezik, enpresa-elkarte askorekin ere hainbat lankidetzaz hitzarmen sinatu dituzte. Beraz, nabarmena da euskal finantza-erakundeek euskal gizartearekin duten konpromisoari eusteko asmoa.

Konpromiso hori modu zehatzagoan aztertzeko ikus 31. orrialdea. 2009ko irailera arte, euskal aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek argitaratu dituzten datuak analizatzen badira, bezeroei emandako kredituen hazkunde-tasa moteltzen ari dela egiazta daiteke, baina oraindik positiboa da. Berankortasunari dagokionez,

berankortasun-indizearen hazkunde-tasa igo egin da, oro har, baina estatuko indizearen azpitik dago. Euskal entitateek bezeroekiko duten hurbiltasunari esker, familien eta enpresen egoera sakonki ezagutzen dute. Hori dela eta, berankortasun-arazoak sortu baino lehen, aukerazko soluzioak bilatzen dira entitateak, hala nola, zorra birfinantzatzea, maileguen iraupena luzatzea edota interesen etenaldia. Bestalde, berankortasun-estalduraren jaitziera jarraitzen du, berankortasun-tasa handitzen den heinean, baina estatuko portzentajea baino handiagoa da.

Euskal finantza-erakundeek likideziaz egoera ona da, etorkizunean maileguak ematen jarraitu ahal izateko. Gainera, euskal finantza-erakunde batek ere kaudimen-arazorik izan ez duenez, ez dute behar izan beren baliabideak handitzeko laguntza publikorik; Nafarroako Kutxak, Caja de Burgos eta Caja Canariak, aldiz, sozietate bat eratu dute eta beren jarduerak bateratu egin dituzte, baina kutxa bakoitzak bere eremu naturalean, eta beste lurraldeetan batera jardungo dute. Eragiketa horren bidez, lehiakortasuna eta eraginkortasuna irabazi eta, era berean, kaudimena eta likideziaz sendotu nahi dute; hori guztia FROBen funtsera jo behar izan gabe (egoera zailean dauden finantza-erakundeek eta bat-egiteak bultzatzeko asmoz Espainiako Gobernuak sortutako erreskate-funtsa). Bestalde, BBK Caja Castilla-La Mancha erosten saiatu ondoren, 2010ean bere negozioan zentratu da, baina bat-egite edo erosketa-prozesuak aurrera eramateko aukera irekita uzten du. Azpimarratu beharra dago, kaudimena dagokionez, euskal kutxak Estatuko hamar onenen artean daudela, eta BBK estatuko finantza-sistemako entitate-rik kaudimendunena dela.

Eraginkortasunari dagokionez, eraginkortasun-indizea hobetu egin da kasu guztietan, ustiapen-gastuen murrizketaren



Ana Beraza

### **Euskal finantza-erakundeek likideziaz egoera ona da, etorkizunean maileguak ematen jarraitu ahal izateko**



Argazki Press

ondorioz. Hala ere, euskal finantza-erakundeek Euskal Herritik kanpo dituzten sukurtsal batzuk itxi arren, Euskal Herrian duten bulego-kopurua mantendu edo handitu egin dute.

Haatik, euskal bankuek, euskal aurrezki-kutxen eta kreditu-kooperatiben aldean, kredituen hazkunde-tasa negatiboak dituzte eta berankortasun-ratio altuagoak erakusten dituzte. Hala ere, beren kaudimen, likidezia eta eraginkortasun egoerak ere onak dira.

Bestalde, finantza-erakundeek ekonomia errealearen arazori aurre egiteko diseinaturiko hainbeste plani esker, enpresen finantzaketa-arazoa murrizten ari da. Dena den, oraindik ere, Adegik 2009ko irailean egindako abaguneko inkestaren arabera, hamar langiletik gorako gipuzkoako enpresen % 38k oraindik arazoak dituzte, bai finantzaketa lortzeko, baita zorra birfinantzatzeko ere. Gainera, Eusko Jaurlaritzako kontsumorako bulegoak ohartarazi du desberdinak direla kreditu-erakundeen artean ez ezik, finantza-entitate bereko sukurtsalen artean ere hipoteka-kredituak emateko ezarritako baldintzak eta erabiltzen diren irizpideak. Izan ere, sukurtsal bakoitzaren kudeatzailearen eskuetan uzten da baldintzen negoziazioa.

Horrez gain, finantza-erakundeek kreditua murrizten dutenean, elkarrekiko garantia-elkartean jarduera sendotu egiten da, enpresei inbertsioak egiteko finantzaketa erraztu egiten baitie.

Gauzak horrela, egungo ekonomia eta finantza egoeran, inoiz baino garrantzitsuagoak dira elkarrekiko garantia-elkar-

teek kreditu-erakunde nagusiekin sinatutako lankidetzak hitzarmenak. Izan ere, finantza-erakunde horiek abalaturako enpresei ematen dizkieten mailegu gutxiak itzuliko zaizkiela bermatzen die entitateei.

Urteko formalizazio-bolumenari dagokionez, Estatuko hogeita bi elkarrekiko garantia-elkartetarik, Oinarri eta Elkargi lehenengo hamarren artean daudela azpimarratu beharra dago. Hain zuzen ere, 2009ko lehenengo bederatzi hilabeteetan Oinarrik jardueramaila hirukoiztu egin du, eta formalizatutako abalak % 195 handitu. Elkargik ere jarduera bikoiztea aurreikusten du 2009 urtearen bukaerarako. Hazkunde nabarmen hori 2009ko hasieran Elkargi eta Oinarrik Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako zirkulatzaila-beharren finantzaketa-lerroen ondorioa izan da. 2009ko irailaren bukaerarako, eta aurreko urteko epealdi berarekin alderatuz gero, Elkargiren abal-jarduera nagusia % 6,3 gutxitu da (zirkulatzailaren finantzaketa-lerroaren eragina kontuan hartu gabe). Bi finantza-erakundeek aipatutako finantzaketa-lerroetara aurkeztutako eskaeren % 80 onartu dute gutxi gorabehera. Horren guztiaren adibidea da, Nafarroa Garaian ere, Sodenaren Elkarko Garantia Elkartean jarduera. Bere funtzio nagusia betetzen ari da, Nafarroako Gobernuak krisiari aurre egiteko garatutako planaren barruan.

Bestalde, arrisku-kapitaleko erakundeen kasuan, Espainiako Arrisku Kapitalako Erakundearen arabera (ASCRI), 2009ko lehen bederatzi hilabeteetan, eta iaizko epealdi berarekin alderatuz gero, erakunde horiek Espainian egindako inbertsioa % 49 eta eragiketa-kopurua % 13 jaitsi dira. Testuinguru horretan, ASCRIk 2008an burututako arrisku-kapitaleko eragiketarik onenak saritu ditu, eta horien artean bi euskal finantza-erakundeek sariak jaso dituzte: Gestión de Capital Riesgo del País Vasco eta Diana Capital erakundeek, Progenika Biopharma eta Indal Taldea enpresen eragiketetan parte hartzeagatik, hurrenez hurren.

Beraz, aztertutako datu guztien arabera, Euskal Herriko erakundeek, oro har, estatuko lehiakide askorekin alderatuz gero, kaudimen-maila altuagorekin eta berankortasun-tasa gutxiagokekin aurre egingo diote hurrengo ekitaldiari. Baina, 2010. urtean nazioarteko, estatuko eta erkidegoetako hainbat sustapen-politika desagertzen badira, ahuldu egin daiteke enpresei eta familiei kredituak emateko gaitasuna. Bestalde, BEZaren eta Europako Bankuak aurreikusitako interes-tasa ofizialaren igoerek eragin negatiboa izango dute kreditu-eskaeretan.

Likideziaz ezak, kreditu eskasak eta berankortasun handiak osatzen dute sorgin-gurpila, eta zaila izango da irtenbide bat aurkitzea. Egoera ez da aldatuko ekonomia suspertu, langabezia eta berankortasuna gutxitu, eta enpresaburuek inbertsioak egiteko erabaki-gaitasuna berreskuratu arte.

***Finantza-erakundeek ekonomia errealearen arazoari aurre egiteko diseinaturiko hainbeste plani esker, enpresen finantzaketa-arazoa murrizten ari da***

EUSKAL FINANTZA ERAKUNDEEN KUDEAKETA ADIERAZLEAK, 2009ko irailean

1. Euskal kutxak eta kreditu - kooperatibak

	KUTXA	BBK		VITAL KUTXA		CAN	IPAR KUTXA	EUSKADIKO KUTXA (ek 09)		ESTATUKO SEKTOREA
Bezeroei emandako kredituak (urte arteko aldakuntza-tasa %)	2,7	Kreditu-inbertsioak 5,1	Txikizkako sarea % 5,6	5,61	Hipoteka-maileguak % 3,96	10,99 (Kreditu-inbertsioak ek 09)	4,6 (Sektore pribatuari emandako kredituak)	3,9	Hipoteka-maileguak % 5	0,2
			Enpresa + Erakundeak % 8,4		Enpresei emandako maileguak % 5,68				Enpresei emandako maileguak % 5,1	
			Hipoteka-maileguak % 5,2							
Bezeroen gordailuak (urte arteko aldakuntza-tasa %)	-3,3	11		5,65		57,84 (Administratutako errekurtsoak ek 09)	5,3 (Sektore pribatuaren errekurtso kudeatuak)	7		4,3
Berankortasun-indizea (%)	3,06	2,35		2,51		3,38	2,24	2,68		5,11
Berankortasun-estaldura (%)	86,4	94,9		94,22		70	102	-		-
Zerga ondorengo emaitza	-38,2	0,5		1,92 (Etekin garbia)		-29 (Etekin garbia)	-4,8	24 (Mozkin errepikaria)		-34
Kaudimena	14,6 (ek 09)	21,5		-		13,7	14,82	-		11,75 (ek-09)
Likidezia (Gordailuak / kredituak)	92,53	101,38		-		-	14,36 (gordailuak/ aktibo likidoak)	81		-
Eraginkortasuna	50,7	38,32		-		-	-	38		48,2

Iturria: Kreditu Erakundeek, CECA-k eta AEB-k argitaratutako datuak

2. Euskal bankuak

	BBVA (Espainia + Portugal)	BANKOIA (2009ko Martxoa)	BANCO GUIPUZCOANO	ESTATUKO SEKTOREA
Bezeroei emandako kredituak (urte arteko aldakuntza-tasa %)	-0,6	2,5	-10,6	5,1
Bezeroen gordailuak (urte arteko aldakuntza-tasa %)	-1,8	2,8	9,9 (Eperako gordailuak % 42,9)	13,2
Berankortasun-indizea (%)	4	1,59	3,8	3,6
Berankortasun-estaldura (%)	59	125	83,4	69
Zerga ondorengo emaitza	-2,1	-	-26,1	-10,7
Kaudimena	-	-	12,01	13
Likidezia	-	-	-	-
Eraginkortasuna	34,6	-	-	41

Iturria: Kreditu Erakundeek, CECA-k eta AEB-k argitaratutako datuak

Oharra: Caja Rural de Navarra eta Banque Michel Inchauspé -BAMI- ez dira analisian sartu datu faltagatik.

## Hirugarren sektorerantz

**Ekonomiaren joera orokorrari jarraituz, zerbitzuen sektoreak du egun pisu handien euskal ekonomian, eta joera hori gero eta sendoagoa da. Industriak, ordea, inguruko herrialdeetan baino pisu handiagoa du oraindik. Etorkizunari begira, nazioarteratzean, ahalegina sendotzen ari da I+Gean eta sektore emergenteetan.**

Hirugarren sektorea indartzeko joera nabarmena izan du euskal ekonomiak azken urteetan, eta, egun, aktibitatearen erdia inguru biltzen du sektore horrek. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Balio Erantsi Gordinaren %59,3 ematen dute zerbitzuek, eta, Nafarroa Garaian, %52,6. Iparraldean, berriz, enpresen %48,3 da sektore horretakoa, eta langileen %53,8 biltzen du. Iparraldean, bereziki indartu da sektorea azken lau urtean: bertan sortutako enpresa kopurua kontuan hartuz gero, %8,6 hazi da zerbitzuen sektorea. Hegoaldean, berriz, %2 hazi da sektorearen garrantzia, Balio Erantsi Gordina kontuan hartuta.

Hirugarren sektorea indartzeko joera horrek Europako Bata-suneko joerari jarraitzen dio, baina bestela dira kontuak industriaren arloan: inguruko herrialdeetan baino pisu handiagoa du egun industriak euskal ekonomian. Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian, Balio Erantsi Gordinaren %25 inguruko pisua du oraindik, nahiz eta urteak joan ahala murriztu: %3 inguru jaitsi da azken lau urtean. Iparraldean, garrantzia gutxiagoko sektorea da: enpresen %4 soilik aritzen da sektore horretan, nahiz eta lurralde osoan langileen %13,4 biltzen duen.

Lehen sektoreak ez du pisu bera mugaren alde batean eta bestean. Iparraldean, abian diren enpresen %16,8 lehen sektorekoa da, nahiz eta langileen %4,8 soilik hartu. Nafarroa Garaian, berriz, Balio Erantsi Gordinaren %2 ematen du lehen sektoreak, eta, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, %1,1. Sektore horren joera, ordea, berdintsua da lurralde osoan: azken urteetan, galtzen ari da bai ekonomian duen pisua, bai sektorean dagoen enpresa kopurua, eta baita langile kopurua ere.

Eraikuntza, ostera, etengabe hazi da krisia iritsi den arte. Egun, %8 inguruko pisua du Euskal Herriko ekonomian, eta, batez ere, dinamismo handia izan du Iparraldean. Egungo krisiak bereziki jo du, ordea, sektore hori, eta hazkunde gelditzen ari dela erakusten dute datuek.

Nazioarteratzea, Ikerketa eta Garapenean inbertsioa, eta sektore emergenteen aldeko apustua dira, orain, etorkizunari begira ekonomia sendotzeko erronkak. Hala diote adituek. Eta hiru kontu horietan badute eskarmentua euskal enpresek. Nazioarteratzeari dagokionez, irekiduran alde nabaria dago mugaren alde batetik bestera: Hegoaldean, %60ren bueltakoa da irekidura tasa, eta, Iparraldean, %11,6koa soilik. Atzerrian ezarritako enpresak kontuan hartuz gero, berriz, 2008an, 313 proiektu gauzatu zituzten Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal enpresek atzerrian, eta, Nafarroa Garaian, 220tik gora bazuten proiekturen bat atzerrian. Iparraldean ere gero eta gehiagok parte hartzen dute Baio-

nako Merkataritza Ganberak nazioarteratzea sustatzeko dituen programetan.

Horrez gain, Europako Batasunean Ikerketa eta Garapenean inbertsio gehien egiten duten herrialdeen zerrendan 50. postu inguruan daude Nafarroa Garaia eta EAE, BPGren %2 inguruko inbertsioa dutela. Iparraldean, %1,5 inguru inbertitzen da.


Eta sektore emergenteetan ere gero eta euskal enpresa gehiago dago. Jakina da Hegoaldean energia berriztagarrien sektoreak nolako garrantzia duen: Iberdrola enpresa da horren adibide. Horrez gain, nanoteknologian eta bioteknologian, esaterako, aha-legin berezia egiten ari dira, besteak beste, Biobask, Nanobask edo Sodena proiektuak.

Ingurumenarekin zerikusia duten jarduerak dira beste apustua: Nafarroa Garaian, esaterako, 2008an langileen %3k lan egiten zuen jada esparru horretan. Iparraldean, turismora eta aisialdira bideratu dira ahaleginak: Angelun egitekoak diren Riverside park enpresa eta aktibitate zentroa, eta Biarritzeko Irudi Polo proiektuak dira, besteak beste, horren erakusle.


*Estitxu Elduaian*

Sektoreen bilakaera azken urteetan:


HEGOALDEAN %tan



ZERBITZUAK




ERAIKUNTZA



Iturria: INE

IPARRALDEAN



Iturria: Baionako Merkataritza Ganbara.



Testuaren jatorrizko  
hizkuntza: gaztelania

## Ekoizpen-sarea ekonomia globaleko ziklo-aldaketaren aurrean

Mikel Gómez Uranga, Jon Barrutia, Goio Etxebarria · UPV/EHUko irakasleak

Jarduera ekonomiko osoaren berrikuntza da euskal ekonomiak bizi duen industria-krisiari eman diezaiokegun erantzun hoberena.

Ez dago formula magikorik, I+Gera zuzendutako giza eta finantza-baliabideak handiagotu behar dira nabarmen. Halere, euskal ekonomia industria-ekonomia denez, industria horren oinarriak berregituratu behar dira errotik.

Egungo krisi larriaren testuinguruan, euskal industriako sektoreak aztertuko ditugu, bai eta horiek epe ertainean egokitzeko daukaten ahalmena ere paradigma zientifiko teknologikoa aldatzen ari den egoera honetan. Arreta berezia jarriko dugu euskal ekoizpen-sareko sektore tradizioaletan.

Une bakoitzean, lurralde baten bereizgarri da kluster jakin batzuetan daukan espezializazioa. Klusterren bilakaerak kluster berrien sorrera dakar, edo lehendik zeudenen berregituraketa. Baina, kluster egitura birmoldatzeko, nahitaezkoa da teknika eta antolaketa ohiturak aldatzea. Horretarako, berrikuntza politika berriak ezarri behar dira, eskualdeak lehia abantaila lor dezan epe ertainean. Sistemako zati eta eragile batzuk gehiago nazioartekotu beharko dira. Euskal enpresek, esportatzeaz gainera, negozioa bilatu behar dute kanpoan. Alabaina, euskal enpresa talde batzuek moteldu egin dituzte kanpoan instalazio berriak irekitzeko prozesuak, finantziario falta dela eta.

Euskal ekonomiako ohiko sektore batzuek, hala nola makina-tresnaren sektoreak, imitazio-prozesuak abiarazten zituzten berrikuntzarako lehen pauso gisa. Lizentziak erabiliz, barne-ikaskuntza eta gaitasunen hobekuntza lortzen ziren, mekanika sektorean batez ere. Intentsitate teknologiko handiagoko beste sektore batzuetatik etorritako ekipamenduak eta teknologiak ziren, adibidez, zenbakizko kontroleko ekipamenduak. Lehiakor izateko aukera ematen zuen horrek, norberaren ikerketan baliabide gehiegi erabili beharrik gabe.

2000tik aurrera, beste sektore batzuk sortu eta indartu ziren, abangoardiako sektoretzat jotzen zirenak. Horien artean aurkitzen dira sendagaien sektorea, osasun-zientziena, bioteknologiak, nanozientziak eta software aurreratuen sektorea; sektore horietan garrantzi handiagoa zuten jakintza kodetuko inputek. Jakintza hori zientzia-printzipioetan oinarritzen da



gero eta neurri handiagoan, eta, beraz, I+G sailek ere gero eta garrantzia handiago hartzen dute eragileen arteko lankidetzaren logika batean sartzen diren heinean.

Alde horretatik, unibertsitateek eta ikerketako beste zentro batzuek estatus berezia eta lehentasunezkoa dute, gizarteari jakintza eta teknologia berriaren ekarpena egiten diotelako, oinarriko ikerketaren eta langile kualifikatuaren prestakuntzaren alorrean egiten duten lanaren bitartez. Unibertsitateek betetzen duten funtzio bikoitz hori dela eta, herrialde askotan unibertsitateen eta industriaren arteko lankidetzaren sustatzera bideratu da berrikuntza eta teknologia politika.

Patentatze estrategiak eta prozedurak indartu dira sektore berri horietan, eta "start up" motako enpresak sortu dira, batez ere oinarriko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren konbinazio sistematiko batetik datozen jakintzak aplikatu eta ustiatzeko. Horrela, protagonismo berezia hartu dute unibertsitateen eta enpresen arteko harremanek, eta unibertsitateetan sortutako enpresa txikien taldeak osatu dira ("spin off"). Oraingo garai honek desberdintasun garbi bat dauka aurreko garaiekin, lehen ez baitzen uste ikerketa zientifikoak ekarpenik egin behar zionik ekoizpenari. Horrela, antzeko baliabide- eta eragile-konfigurazioa duten biozientzia-poloak sortu dira, eta hori oso erakargarria da beste toki batzuetako ikertzaileentzat, industrietan eta inbertitzaileentzat.

Bio klusterren ezagun garrantzitsuena da parteneriatu publiko/pribatuak eragileen arteko lankidetzaren bitartez. Bioen jakintzaren mugan egon behar dute enpresek, eta merkatu-aukerak sortuko diren harreman-esparru batean sartu behar dute ikertzaile akademikoek. Bestalde, beste enpresa batzuekin lankidetzan jardun behar dute, I+G funtsak erabili ahal izateko. Bio klusterrak ez daude medikuntzaren eta osasunaren sektoreetan soilik. Beste sektore batzuetan ere badaude, hala nola, nekazaritza industrialarekin, elika-

**Jarduera ekonomiko osoaren berrikuntza da euskal ekonomiak bizi duen industria-krisiari eman diezaiokegun erantzun hoberena**



Argazki Press

**Unibertsitateek eta ikerketako beste zentro batzuek estatus berezia eta lehentasunezkoa dute, gizarteari jakintza eta teknologia berriaren ekarpena egiten diotelako**

bioteknologiaren eta biomedikamentuen arloko ikerketek.

80. eta 90. hamarkadetan gune industrializatuetan teknologia aurreratudun sektoretzat jotzen zirenek egin zituzten patente gehienak (patenteen %70 gutxi gora-behera): ingeniariak elektrikoak, tresnen sektoreak, prozesuen ingeniariak, ingeniariak mekanikoak eta makineriaren sek-

toreak. Hamarkada honetan, bilakaera prozesuan daude sektore horiek.

“Ingeniariak mekanikoak, makineria” sektorea da Espainiako guztirakoari dagokionez EAEn patenteen pisu erlatibo handiena duen sektorea, eta, horren barruan, ekipamendu eta kontsumo ondasunak eta ingeniariak zibila, eraikuntza eta meatzaritza azpisektoreak, bai eta, bestalde, garraioa eta tresnamakineria ere. Nabarmentzekoak dira, baita ere, honako azpisektore hauek: makineria elektrikoak eta gailuak, energia elektrikoak, analisia, neurketa eta kontrol-teknologiak eta inprimatzea. Aitzitik, EAEn presentzia txikiagoa dauka kimika eta farmazia salgaiak sektoreak.

Nafarroa Garaia dagokionez, egoera ez da EAEkoaren berdina, bertako ekoizpen-sarean garrantzi handiagoa baitute bioteknologia eta farmazia salgaiak azpisektoreetako patenteek. Halere, gorago aztertutako sektoreei dagokionez, EAEko batza bestekoaren antzeko pisu erlatiboa dute Nafarroa Garaian ere.

Auto elektrikoak eta hibridoak dagokionez, etorkizuna heldu da munduko industriarentzat. Bateriak kargatzeko segmentuan sartuko da euskal industria. Dagoeneko badago proiektu estrategiko bat Euskal Autonomia Erkidegoan, auto elektrikoaren baterien hornidurarako sare bat sortzeko. Zenbait enpresa taldek parte hartzen dute proiektu horre-

**Ekoizpen-jarduerek bilakaera bat izaten dute, eta ez dira teknologia jakin batzuen mende gelditzen**

gaiekin, edo eta turismoarekin lotutako sektoreetan; nekazaritza espezializazioko landa guneetan kokatzen dira.

Ekoizpen-jarduerek bilakaera bat izaten dute, eta ez dira teknologia jakin batzuen mende gelditzen. Gutxienez lau hamarkadatan zehar euskal industriaren bereizgarri izan diren industria arloetako asko erdi-mailako teknologiako sektoreen artean sartzen dira ELGAren sailkapenaren arabera; erdi/goi-mailako segmentuan sartzen dira horietako batzuk (nabarmentzekoak dira produktu kimikoak, makineria eta ekipamendu-ondasunak, makineria eta gailu elektrikoak, motorrak eta garraio-ekipamenduak), eta beste batzuk, berriz, erdi/behe-mailako segmentuan sartzen dira (beste batzuen artean, petrolio finketa, plastikoa, fabrikazio metalikoa eta ez-metalikoa, bai eta meatzaritza eta eraikuntzako produktuak ere). Ia lau hamarkadatan zehar, adar horietako batzuek emaitza onak lortu dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina XXI. mendetik aurrera aldaketak egin beharko dira orain arte lortu dituzten emaitzak mantendu ahal izateko.

Sistema berri bat osatuko da, adar guztiak elkarri lotuta izango dituen, eta teknologiak zeharkakoak izango dira sistema horretan gero eta neurri handiagoan. Horrela, adibidez, goi-mailako teknologiako sektoreen erabiltzaile nagusi bihurtuko dira behe-mailako teknologia gisa sailkatutako sektoreak. Zientziak eta teknologiak ekoizpen sare osora hedatuko dira. Gaur egun ezin da esan, toki batzuetan behintzat, nekazaritza elikagaien sektoreak behe-mailako teknologia erabiltzen duenik, eta, aurrera begirako ikerketen arabera, hementik urte gutxira eraikuntza materialek edo ehun sektoreko materialek nanoteknologiak erabiliko dituzte barra-barra. Elikagaien sektorean ere gero eta garrantzi handiagoa dute

### ***Pentsa daiteke, teknologia tradizionalen bilakaera dela eta, ez dela patente dinamika sendorik izango une honetan***

tan, hala nola Repsol - Petronorrek eta Eusko Jaurlaritzak, EEE-ren bitartez. Orain arte, enpresa japoniarrek, estatubatuarrek eta korearrek landu dituzte bateria horiekin lotutako teknologia nagusiak.

Pentsa daiteke berrikuntza sistema indartzeak (ikerketaren eta industria-aplikazioaren arteko harremanak) berrikuntza emaitza propioak sorraraziko dituela epe ertainean.

Eduki zientifiko handiagoa duten patenteen sektoreetan patentatzen dute unibertsitateek lehentasunez. Bizi-zientziekin lotutako arloei buruz ari gara, biomedikuntza eta bioteknologia barne, bai eta kimikari buruz ere (Europar garrantzi handia dauka). Arlo horiez gainera, aipa ditzakegu telekomunikazioak eta ingurumen tresnak eta teknologiak ere.

Egiaztatuta dago nanoteknologiaren esparruan bi heren baino gehiagoren ekoizpenean jarduera zientifikoa erabiltzen dela. Arlo horretan, jakintza berriak sortzen dira zientzietan eta ingeniartzetan baino askoz ere abiadura handiagoz. Adar horretan, zientzialariek eragin handia dute patente jardueran, eta


lankidetzat estua dago industriaren eta mundu akademikoaren artean.

Egungo sektoreetako askotan, enpresa estrategietako giltzarri dira patenteak globalizazio aldiari. Zientzian oinarritutako patenteetan agertzen dira zientziarekin lotura handiena duten asmakizunak, eta honako arlo hauetan sortu ohi dira batez ere: biogenetikan, kimika aurreratuan, software aurreratuan, biomedikuntzan, nanozientzian, nanoteknologiaren, etab.

Pentsa daiteke, teknologia tradizionalen bilakaera dela eta, ez dela patente dinamika sendorik izango une honetan. Alabaina, Japoniako makineria elektrikoaren manufakturako zientziaren eta patenteen arteko mendekotasuna aztertuz gero, ikus daiteke sektore horretako 10 enpresa japoniar garrantzitsuenek egiten dituztela patente gehien mundu osoan. Beraz, ondoriozta dezakegu makineria elektrikoaren industria zientzian oinarritutako industria dela.

Bukatzeko, esan dezakegu globalizazio-garaian ezin dela sortzen ari diren merkatu jakin batzuetan egon, herrialde horietako patente bulegoetan asmakizunak erregistratu gabe. Nazioartekotutako euskal industriak patente jarduera jakin bat gauzatu beharko du "in situ" kokatzen den tokietako merkatuetan. Patente hirukoitz delakoek, Europako, Ipar Amerikako eta Japoniako patente bulegoetan eskakizuna aurkezteaz gainera, laugarren bulego batean ere aurkeztu beharko lukete eskakizuna, hain zuzen ere, Txinan.

#### **EGINDAKO PATENTE ESKAERA 10.000 BIZTANLEKO, 2005**



Iturria: EUROSTAT

## Mugikortasunerantz mugi

**Mugikortasun plan bateratu eza. Hori da Euskal Herriaren mugikortasun arazo nagusia. Herrialde bakoitzak badiitu bere lehentasunak eta planak; garraio bide baten edo bestearen aldeko apustua egin du, eta bateragarritasun eskasa dago. Sarea sendotzean eta koordinatzean dago etorkizuneko erronka.**

Batzuek metroa, besteek autobusa edo tranbia... hainbat estrategia abian jarri dira Euskal Herriko lurraldeetan azken urteetan, guztiek ere lelo bera dutela: garraio publikoa sustatu eta ingurumena zaindu. Helburu hori lortzetik oso urrun daudela erakusten dute, ordea, datuek: oraindik ere auto pribatua erabiltzen da gehien desplazamenduetan, joan-etorrien %70en, hain justu.

Hiriburuei erreparatzea besterik ez dago koordinazio ezaren nondik norakoak ikusteko. Bilbo da, egun, pertsonen garraiorako plan osoena duen hiriburua. Metroa da mugikortasun horren oinarri, eta apurka-apurka bere linea sarea hedatzen ari da. Metroa iristen ez den eremuetarako garraioa, berriz, tranbiarekin eta autobus lineekin osatuta dauka Bizkaiko hiriburuak.

Donostiak metroan oinarritutako eredu horri jarraitzeko asmoa iragarri du berriki. Bertako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak hiri barruan metroa abian jartzeko proiektua aurkeztu zuten iragan udan, eta hiri inguruetara hedatzeko aukera ere aipatu zuten. Bitartean, joan etorri gehienak Bidasoa aldera egiten dira hiriburutik, eta harako zerbitzua topo bidez eskaintzen da. Hortik aurrera, autobusak eta aldirietako trenak osatzen du garraio publikoko eskaintza.

Gainerakoetan, ez dago metroa egiteko asmorik. Gasteizek tranbiaren eta autobusaren aldeko apustua egin du: bi garraio bideen lineen inaugurazioak 2009an izan dira, eta badirudi horiek izango direla datozen urteetako ardatzak.

Lapurdiko kostaldean, berriz, autobus zerbitzuen lineak indartu egin dituzte, baina hortik aurrera ez da aparteko plangintzarik barnekalderako, eta beste horrenbeste gertatzen da Iparraldeko gainerako lurraldeetan ere. Iruñea eta haren inguruetarako ere asmo berririk ez dute iragarri oraingoan, eta autobusean oinarritzen da bertako mugikortasuna.

Halatsu gertatzen da lurralde barruko komunikazioetan eta lurralde artekoetan ere. Lurralde barruan egiten dira, egun, Euskal Herriko joan-etorri gehienak, eta, horretarako, garraio publikoaren sarea autobusean eta trenean dago oinarrituta. Baina zerbitzuak urriak dira, eta maiztasuna eskasa.

**Mugikortasun plan bateratu eza, hori da Euskal Herriaren mugikortasun arazo nagusia**

Trenari dagokionez, egokien dauden lineak Santurtzi-Bilbo-Laudio-Orduña eta Irun-Brinkola tartekoak dira, baina horiek ere badute zer hobetua. Eusko Jaurlaritzaren eskumenera iristear daude, eta horrek berritzea eta sendotze aukera ona ekar dezake.


Euskal Herriko lurraldeen arteko komunikazioak ere autobusean eta trenean daude oinarrituta gehienak, baina horietan ere eskasa da maiztasuna. Trenbide konbentzionalaren sareak, berriz, Espainia eta Frantziako ibilbideak ditu oinarri, eta zenbait linea zaharkituta daude: Baiona-Altsasu-Gasteiz-Miranda, Baiona-Donibane Garazi, Altsasu-Iruñea-Kastejon eta Bilbo-Miranda ibilbideek, adibidez, egokitze premia handia dute.

Datuek argi erakusten dute, garraio publikoaren aldeko benetako ahalegina egiten denean, beraren aldeko apustua egiten dutela herritarrek, eta ibilgailu propioa etxean uzten dutela. Bilbo hirigunea da horren adibide: plan garatuena du, eta joan-etorrietarako garraio publikoa pribatua baino gehiago erabiltzen duen hirigunea bakarra da Euskal Herrian: han, %80k erabiltzen du garraio publikoa, eta gainerako hiriguneetan ez da erdira ere iristen.

Egungo sarea indartzea eta koordinatzea, da, hortaz, etorkizuneko erronka. Europako garraio publikoaren sistemara bennetan hurbildu nahi bada, hiriguneetako garraio eskaintza indartu beharko da, baina ez hori bakarrik: lurralde bakoitzaren barrualdeko desplazamenduak ere ugartu beharko dira, maiztasun handiagoz ezarri, gisa horretako joan-etorriak baitira ugariarenak.

**Estitxu Elduaien**

### Mugikortasun hazkundearen bilakaera garraio bideka 2006



Iturria: LAB sindikatua

Testuaren jatorrizko  
hizkuntza: gaztelania

# Euskal garraio-politikaren ezinbesteko errotiko aldaketa. Bi egoeratan oinarritutako azterketa

Roberto Bermejo · EHUko irakaslea

## Egoera konbentzionala

Honako ezaugarri hauen bidez laburbildu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko garraioaren arazo historikoak:

- Errepide bidezko garraioaren erabateko nagusitasuna, denborak aurrera egin ahala indartzen doana, gune batzuetako agitazio trafikiko bizia eta joan-etorriko kamioien fluxu handia direla eta. Faktore horiek pilaketa ugari eragiten dituzte. Trenak ez dira ia erabiltzen salgai-garraiorako: horien merkatu-kuota %2 baino baxuagoa da.

- Eguneroko joan-etorrien eskariari erantzuteko, trenbide azpiegiturak falta dira, eta daudenak ez dira egokiak; Bilboko metroa salbuespena da, bai eta, neurri txikiagoan, Euskotrenen, RENFEren eta FEVEren aldirietako zati batzuk ere. Ez dago ez tren erregionalik ez eta distantzia luzekorik ere. Autobus-zerbitzuak eskasak dira, hiriburuak eta metropoli-area batzuk lotzen dituztenak salbu.

Egoera horren aurrean, EAEko gobernu erakundeek azpiegitura berriak sustatu besterik ez dute egiten. Azpiegitura berri horiek faktore positibo ugari dituztela baieztatzen dute: lehiakortasuna eta ekonomia garapena bultzatzea, lurraldeko eta gizarteko egituraketa eta kohesioa sendotzea, lurralde osorako irisgarritasun homogenea bermatzea, garraio sistemaren iraunkortasuna bermatzea, garraio moten arteko oreka berretzea eta, azkenik, euskal sistema nazioarteko testuinguruan behar bezala sartzea lortzea. Alabaina, aldundiek Eusko Jaurlaritzak (EJ) baino finantza baliabide gehiago dituztenez, alde batetik, ahalegin handiagoak egin dira errepideen eraikuntzan, eta monopolizatu egiten dute hori gainera; bestetik, bere horretan dirau barneko trenbide sarearen urritasunak (EJren eskumena).

EAEko gobernu erakundeen arabera, hiru hiriburuen arteko Abiadura Handiko (AH) trenbide egitura bat behar du EAEk, Europarekin lotuko gaituena. Garraio azpiegituren gabezia handia daukate foru lurraldeek. EAEko gobernu erakundeen arabera betiere, Bizkaia Bilboko saihesbide berri bat behar du (Supersur), bai eta Txorierriko iraganbidea zabaltzen jarraitzea ere, etab.; Gipuzkoak (kanpoko) portu berri



Roberto Bermejo

bat behar du Pasaian, Hondarribiko aireportua handiagotzea, Donostialdeak saihesbide berri bat behar du, bai eta, agian, metro bat ere, etab.; Arabak logistika-zentro handi bat behar du (Araba Sur), eta ezinbestekoa zaio (Gipuzkoari bezala) Eibar-Gasteiz autobidea amaitzea, bai eta aireportu itzalia berpiztea ere, etab.

Azpiegiturak ugaritzeak hazkunde ekonomikoa bultzatuko duela dioen argudioak ez du oinarri sendorik.

Garraio ekonomialariak ados daude honen inguruan: behin herrialde industrializatueta ohiko den azpiegitura maila batera heldutakoan, eragin negatiboak ere izan ditzake ekonomian. SACTRA txosten britainiarra (1999) baieztatzen du, garraio maila jakin batetik aurrera, mugikortasuna handiagotzeak eragin kaltegarriak izan ditzakeela jarduera ekonomikoan, eta herrialde industrializatuak heldu direla maila horretara. Eddington txostenak (2006) ere ondorio horiek berresten ditu: "historian zehar, lotura berriek paper garrantzitsua izan dute hazkunde ekonomiko bizkorreko garaietan ekonomia askotan, baina ekonomia helduek (...) dauden garraio sareen pro-



Argazki Press

### *Azpiegiturak ugaritzeak hazkunde ekonomikoa bultzatuko duela dioen argudioak ez du oinarri sendorik*



Argazki Press

duktibitatea hobetzera bideratu behar dituzte politikak eta inbertsioak". Batzuetan, errentagarritasun sozioekonomikoaren gaineko azterketak manipulatu egiten dira, onurak puztu eta kalteak gutxietsi egiten baitira, azpiegitura handien eraikuntza justifikatu nahian. Kritika zorrotza egiten dio horri Frantziako Kontuen Auzitegiak (Cour de Comptes, 2006), eta bat dator aurretik aipatutako ikerlan horiekin: "ekipamenduen berrikuntzarako gastuei lehenetasun handiagoa eman behar zaie garapen inbertsioei baino".

EAE txikia dela kontuan hartuta, EAEko gobernu-erakundeek ezin dute esan, EBn eta estatuan esaten den eran, AHko trenek garraio moten arteko oreka ekarriko dutenik hegazkinei bidaiariak kentzen dizkietela eta. Horregatik, horren defentsarako beste ildo bati heltzen diote: linea misto bihurtzen da, eta, horrela, pilaketak arintzen dira, bidaiariak eta salgaiak errepideetatik aterako direlako, eta, gainera, CO<sup>2</sup> isurketak murriztuko dira. Alabaina, munduan ez dago linea mistorik, honako bi salbuespen hauekin: Alemaniakoa (AHko linea bakarrean, erabilera horretarako prestatua izan ondoren: aldapa txikiak, aparkatzeko toki ugari eta 140 km/h abiaduran doazen konboiak, baina pisu gutxiko eta merkataritza balio handiko salgaiak eramateko soilik balio du) eta Euromed (fisikoki ezinezkoa zelako Mediterraneoeko kostan linea berri bat eraikitzea; mantentze-kostu handiak dauzka). Horri dagokionez, salgai fluxua oso arina da, linearen berrikuntzan ez direlako kontuan hartu salgai garraioaren behar espezifikoak, garraio transpirinirreko Koordinatzaile Europarraren Davignon Txostenak (2008) adierazten duen eran: aldapa handiegiak daude linea horietan, eta "aurreratzeko eta aparkatzeko toki faltak zaildu egingo du salgai garraioa". Hiru hiriburuak soilik lotzen dituen linea batek ez du EAEko lurralde kohesioa sendotuko. Europarekiko lotura demagogiko hori ezinezkoa da, Frantziako Gobernuak ez duelako AH mugaraino eraman nahi. Azkenik, AHk ez ditu CO<sup>2</sup> isurketak mu-

rrizten, areagotu baizik. Hala adierazten du Suediako trenbide administrazioaren txosten batek; zentzuzkoa denez, tren konbentzional batek behar duen energiaren bikoitza behar du AHkoak.

EJk (2007) dio euskal Yak sare konbentzionala libre utziko duela salgaiantzat: "Yaren bidez salgaiak garraiatzeko aukeraz gainera, hori egoteak zirkulazioa arinduko du orain ibilbide luzeko lineetarako eta tren erregional gehienetarako erabiltzen diren bideetan". Baina sare hori salgaiak garraiatzeko desegokia dela gehitzen du: "Azken urteotan, ia geldituta dago zabalera iberikoko sareko salgai-garraioa, horren ahalmena mugatzen duten gune batzuk daudelako batez ere".

Urduñako portua eta Altsasu-Zumarraga lotura dira gune kritiko horiek. EAEn, gainera, gauzak zailtzen dituen beste faktore bat dago; hain zuzen ere, euskal industriako ohiko salgaiak eta Bilboko portutik igarotzen direnak oso astunak izatea. RENFEk linea mistoak baztertzen ditu, eta, horregatik, iparralderantz doazen kamioiek euskal Yra pasa beharko dituzte beren kargak Gasteizera iristean.

Bestalde, zentzugabea da errepide gehiago eraikiz errepide pilaketak desagerraraziko ditugula pentsatzea. Inork ez du horrelakorik lortu, ez eta lortuko ere. Izan ere, EBren garraioari buruzko Liburu Zuriak (2000) adierazten duen eran, errepide azpiegitura berri bat eraikitzen denean, eskari estali bat aktibatzen da, eta azpiegitura berria bete egiten da azkenean.

### **Petrolioaren goi mugaren egoera**

Petroliotik dator garraioak kontsumitzen duen energiaren %98, eta kontsumo horren %74 errepide garraioan erabiltzen da. EAEn ere ratio hori antzekoa da, baina areagotzeko joera izan du beti gainera: 1996-2007 aldian, urteko hazkundera %3 baino handiagoa izan zen batez beste.



Argazki Press

Gero eta nabarmenagoa da petrolio urritzen ari dela. Horren erakusgarri da 2005-2008 aldian petrolio eskaintzak izan zuen geldialdia. Eskaintza geldialdi hori zela eta, petrolioaren prezioa 147 \$/upel izan zen 2008ko ekainean. Ondoren, krisialdiak (eskaladak handiagotua) eskaria murriztu zuen, eta upelaren prezioa izugarri jaitsi zen 32 \$/u-ra heldu arte. Baina adituak bat datoz honako alderdi honen inguruan: petrolioak 2008an jo zuen bere goi-muga (gehieneko erazketa ahalme-

na). Horrek azal dezake zergatik ari den suspertzen petrolioaren prezioa (2009ko azaroaren hasieran 80 \$/u zen), munduko ekonomiaren suspertzea atzeratzen ari bada ere.

Beraz, suspertzea hasten denean, upelak 2008ko prezio altuena gaudituko du, eta krisialdi ekonomiko sakon eta luze batean sartuko da munduko ekonomia. Fatif Birolek (2007),

***Bistakoa da jende ugari alde batera utzi beharko duela bere autoa eguneroko joan-etorrietarako, eta garraio kolektibo eraginkorra eskatuko duela***

Energiaren Nazioarteko Agentziako (ENA) ekonomialari-buruak, adierazi du “zer edo zer egiten ez badugu bizkor, eta era ausartzean (...) gure energia-sistemaren gurrpilak irten egin daitezke. Mezu hori zabaldu nahi dugu”. Horregatik, petrolioaren lehenbailehen alde batera uzteko eskaria egin die ENAK gobernuei. Europako Batzordeak berak ere onartu du azkenean arazoa. Horren “Garraiorako etorkizun iraunkor bat” jakinarazpenenak “Erregai fosilen urritasun gero eta handiagoa” izeneko atal bat dauka (COM-2009- 279/4).

Petrolioaren goi mugaren ondorioz, aldaketa ugari egingo dira garraio sistematan, horiek zenbaterainokoak izango diren jakitea zaila bada ere. Baina, bistakoa da jende ugari alde batera utzi beharko duela bere autoa eguneroko joan-etorrietarako, eta garraio kolektibo eraginkorra eskatuko duela. Testuinguru horretan, ez da zentzuzkoa errepideak eraikitzen jarraitzea; horren ordez, trenbideak modernizatu eta handiagotu beharko lirateke, bai eta autobus-zerbitzuak hobetu ere. Lan hori egiteko, aldundiek EJrekin lankidetzan jardun beharko dute, Bilboko Metroaren ereduari jarraiki.

Aire-garraioa izugarri murriztuko da, eta konpainien bat-egite handien egungo erritmoa biziagotu egingo da. Desagertu egingo dira kostu txikiko konpainia gehienak, ezin izango dituztelako beste kostu batzuk murriztu erregaien kostu handiak direla eta.

Itxi egin beharko dira aireportu txiki asko, orain baino defizit handiagoak izango dituztelako. Estatuak kudeatzen dituen estatuko 47 aireportuen artean, Madrilgoa, Bartzelonakoa, Malagako, Palmakoa eta Alacantekoa soilik dira errentagarri. Hondarribiko eta Gasteizko aireportuak itxi egin beharko dira.

Salgai garraioari dagokionez, areagotu egingo dira salgaiak errepidetik trenetara eta itsasontzietara aldatzeko prozesuak ibilbide luzeetan. Izugarri haziko da tren garraioaren eskaria, egoki samarra den azpiegiturarik badago. Horregatik, euskal Y-a birmoldatu egin beharko da salgaiei lehentasuna emateko, hori eraikuntzako edozein fasetan egonda ere krisi energetikoa hasten denean. Davignonek uste du bi iraganbide transpirinarrak birmoldatu egingo direla salgaiei lehentasuna emateko: “Ziurtasun handiagoz uste dut (bere agintaldiaren hasieran baino) azpiegitura horien funtzioa aldatu egingo dela salgai garraioaren mesedetan” (Davignon, 2008: 12).

Itsaso bidezko salgai garraioa sendotu egingo da, baina ez dauka zentzurik Pasaiaiko kanpoko portua eraikitzeak, krisialdi energetikoak eragingo duen depresio ekonomikoa kontuan hartuta, eta Bilboko portuaren neurria egun jasotzen duen kargarako handiegia dela kontuan hartuta.

Baina ez da nahikoa garraio motak egoera berrietara egokitzea; etengabe hobetu behar da garraio sistema. Batzordearen garraioari buruzko *Liburu Berdeak* dionenez, “gero eta ahalgin handiagoa egin behar da azpiegituren erabilera eraginkorragoa lortzeko”. Horrez gainera, onartzen du bere akatsa izan zela AHko Europako trenbide sare (Europar barnako Garraio Sarea edo TEN-T) baten alde egitea, eta aitortzen du (egoera berri honen aurrean) “lehenik eta behin, sakonki berraztertu behar dela ikuspuntu politikoa” (COM-2009- 44amaierakoa).

Testuaren jatorrizko  
hizkuntza: gaztelania

# “Euskal Herria etorkizunera begira. 2025ari so” elkarrizketa liburuaren pasarte Nafarroa Garaiko mugikortasunaren inguruan

Juan Carlos Longas · NUPeko Ekonomia Aplikatuko irakaslea

### Kostaldean ez ezik, hiri handien inguruan ere bada mugimendua, hala nola Gasteizen, Iruñean, Baiona-Angelu-Biarritz aldean...

Bai, hala da. Oreka bilatu behar da; izan ere, hirigune nolabait garrantzitsuak badiren arren, hiriburuak dira sartzeko eta irteteko ateak. Salgaiak, bidaiariak, eta abar, hiriburuetatik sartzen dira, eta, horregatik, hiriburuak ezinbestekoak dira, are inbertsio mota jakin batzuk sortzeko ere. Kalitate handiagoko inbertsioez ari naiz; horretarako, hornikuntza egokia behar da, baita bizi-kalitate altu samarra ere, eta hori guztia hiri handi batean baizik ez da errentagarri. 50.000 biztanleko hiri estandarren sare batera joateak ez du zentzu handirik, baina litekeen gauza da hiri handi samar batek abiatu hiri ertain gehiago sortzea, esate baterako. Ez dago halako eredurik ez Nafarroa Garaian ez Araban. Nafarroa Garaian, 180.000-190.000 biztanle ditu Iruñeak, eta 30.000-35.000 ditu Tuterak, Nafarroa Garaiko bigarren hiriak. Iruñerrian, 270.000 biztanle inguru bizi dira; metropoli eremu aski zabala da. Baina arazoa da nola kudeatzen den metatze falta hori. Tentaldia izan daiteke eremu horretatik jendea ateratzea arazoa konpontzeko; hedapen sakabanatuaren sistema bera izango litzateke, dentsitate baxuko urbanizatzeko eredu bat, eta horrek estatistikoki arazoa konponduko luke, baina beste arazo batzuk sortuko lirakeke. Kontuz ibili behar dugu konponbideekin.

### Mugikortasuna eta iraunkortasuna: kontzeptu kontrajarriak?

Une honetan ez dago garapen iraunkorrik. Gauza guztiei jarren diete iraunkorraren etiketa, baina borondatezko ekintzak ez dira aski. Dena da iraunkorra, baina autobideak eraikitzen jarraitzen dugu. Saturazio arazo bat konpontzeko, beharbada ez da beharrezkoa beste azpiegitura bat eraikitzea. Zenbait gauza ordaintzera ohitu behar dugu; bidesariak, esate baterako. Nafarroa Garaian, A-15eko bidesaria kentzearen alde daude mugimendu sozial asko, baita ezkerrekoak ere. Hori akatsa da. Beste alternatiba batzuk bilatu behar dira.

Europako Batasunak berak garraioaren liburu zurian dakar trafiko pilaketaren kostuak EBko BPGren %3 inguruko kostua sortzen duela beste kalte batzuk direla eta, hala nola kutsadura edota denbora. Alegia, badira arrazoi ekonomikoak ere. Garraioaren liburu zuriak, duela zenbait urte idatzia, trenbide sarea indartzearen alde egin zuen. Baina egiazki ezer gutxi egin dugu arlo horretan. Autobide gehiago eginez gero, errepide bidezko desplazamendu gehiago izango dira. Politika oldarkorra egin behar da, erabiltzaileak errepideko garraio pribatutik ga-



Juan Carlos Longas

rraio publikora aldarazteko; trenbidera aldarazteko, zehatzago. Espainiar estatuan, krisia aitzakiatzat hartzen dute herri lan erraldoiak egiteko; abiadura handiko tren bultzatzen dute alde batetik, baina, bestetik, autobide gehiago eraikitzen dituzte. Eta ez dago politika seriorik. Hau da, abiadura handiko tren inbertsio publiko bat egiteko eta jarduera ekonomikoak sortzeko mekanismo gisa erabiltzen dute; ez da bidaiariak alde batera eta bestera eramateko garraiobide alternatibo bat. Gainera, hor daude Kyotoko proto-

kolokoak ezarritako neurriak betetzeko arazoak, estatistikoki ezinezkoa baita gaur egun neurriak betetzea.

Gaur egungo jardura ekonomikoaren dinamikak trafikoak sortzen du; trafikoak bakarkako lekualdatzeak bultzatzen ditu; horrenbestez, ez da iraunkorra bakarkako lekualdatze horiek errazteko azpiegiturak eraikitzea. Ez aurrekontuei dagokionez, ez lurralde antolaketari dagokionez, ez ingurumenari dagokionez.





## Iparaldeko mugikortasuna

Azpiegiturei dagokienez, Iparraldean daude: errepide sare trinkoa, Bordele, Paue, eta Donostiara bideratutako autopistak, barnekaldera begirako bigarren mailako errepideak (Beskoitze, Bidaxune, Donapaleu, Ustaritze, Kanbo), kostaldetik barnekalderako trenbide sarea (Donibane Garazi, Ahurti-Peyrehorade), erregio mailako bidaiarien tren zerbitzua TER eta Parisera begirako AHT, nazional zein internazional mailako lineak dituen aireportu bat, komertzioari bideraturiko portu bat, Hendaian plataforma logistikoa...

Aurrera begirako proiektu interesgarri moduan, Iparraldeari, batez ere, errepidezko trafikoaren trinkotasuna saihestu eta bidaiarien garraioaren eragingo luketenak lirateke: A63aren 3 karriletara zabaltzeko hautua, Pirinio Atlantikoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak Atlantiar eta Nafar Pirinioak lotzeko duten proiektua.

Euskadiko eta Akitaniako ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordeen arabera, gaur egungo garraio politika ez da gai bere lurraldeetako jarduera sozio-ekonomikoarekiko irisgarritasunaren eta euskarriaren arazoa ebazteko, argi ikusten baitu estutze puntuak daudela sare transeuroparrean. Gudan eraginik zuzenena duena Pirinioetako pasabide atlantikoak da; bide ardatza aseta dago eta mugikortasun, jarduera ekonomiko eta ingurumenaren eragozpen larriak sortzen dira; horrez gain, errepidez egindako merkantzien garraioarekiko hautabiderik ez dago epe laburrean zein ertainean.

Iturriak: Lurraldea, Hautetsien eta Garapen Kontseilua, "Pays Basque 2020. Atelier "infrastructures-déplacements". Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordea. "Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Akitaniaren arteko bidaiarien hurbileko garraioa. Berehala hobetzeko proposamen eta gomendioak".




### Iparaldeko garraio-azpiegiturak



Iturria: Baionako Merkataritza Ganbara. Ipar Euskal Herriko Atlas Ekonomikoa, 2007.

### Merkataritzaren pilaketa



Iturria: Baionako Merkataritza Ganbara. Ipar Euskal Herriko Atlas Ekonomikoa, 2007.

## Ikerketa ikertzen

**Unibertsitateak, ikerkuntza kooperatiboko zentroak, oinarrizko eta bikaintasunezko ikerketa zentroak, berrikuntza eta garapena bultzatzeko zentroak... Euskal Herrian, ikerkuntzan aritzen diren erakunde ugari eta era askotakoak daude. Betiko ikerkuntza esparruen ondoan, gainera, ikerkuntza erakundeak eta zentro berritzaileak ugaritu egin dira azken urteetan, eta ikerkuntza hobetzeko bideak ikertzen erreferente bihurtzen hasi dira.**

Europako Batasunaren arabera, berrikuntzaren arloan EBko batz bestekoaren gainetik dago Euskal Herria, eta horrek agerian uzten du ikerkuntzan egiten den ahalegina. Datu ofizialen arabera, 2007an, 20.450 langile ari ziren ikerkuntzan lanean Hegoaldean, eta 1.550.590 mila euro bideratzen zen jarduera horretara. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egiten da inbertsio handiena, barne gastuaren %9tik gora bertara bideratzen baita. Iparraldeari dagokionez, 6.793 langilek lan egiten zuen ikerkuntzan, eta 2.828 enpresak.

Enpresek inbertitzen dute gehien ikerkuntzan, inbertsioen %70 inguru bideratzen baitute jarduera horretara; ondoren datoz unibertsitate eta goi mailako ikasketa zentroak, %15 inguruko inbertsioa egiten baitute, eta, azkenik, erakunde publikoak.

Euskal unibertsitateak ikerkuntzan egiten duen ahalegina inguruko herrialdeen erdia dela eta, kritika ugari jaso ditu sistemak azken urteetan. Egoera horri buelta eman nahian, erakunde publikoek diru laguntzak iragarri dituzte, unibertsitatean ikerkuntza indartzeko. Inbertsioak inbertsio, Euskal Herriak unibertsitate sare zabala du, eta zentro guztiak dituzte ikerkuntzarako alor eta langileak. Nafarroa Garaiko eta Euskal Herriko Unibertsitate publikoak daude batetik, eta Deusto, Mondragon, eta Nafarroa Garaiko unibertsitate pribatua, bestetik. Sarea Iparraldeko ESTIA teknologia industrial aurreratuen ingeneritza zentroak osatzen du, gainera, besteak beste.

Betiko ikerkuntza esparruetatik haratago, gune berri ugari sortu dira, ordea, azken urteetan euskal ikerkuntzan. Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroak (CIC) dira horren adibide. Azken

hiru urtean, hainbat sektore emergentetan espezializatutako gisa horretako zentro ugari zabaldu dira: biomaterialak, bioteknologia, mikro-nano-teknologia, teknologia energetikoa, biozientziak, biomedikuntza, turismoa... alor horiek ikertzen dituzten zentrozen sarea nabarmen zabaldu da Hegoaldean. EAEn, esaterako, zazpi CIC sortu dira azken hiru urtean.

Horrez gain, oinarrizko eta bikaintasunezko ikerketen zentroak ere sortu dira, bertako zientziarentzat intereserako edukia sortzeko helburua dutenak. Gisa horretako sei zentro daude egun Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, hainbat alorretan: biofisika, fisika, aldaketa klimatiko, matematika edo hizkuntza eta jakinduria.

Bestalde, ohiko zentro teknologikoak ere badaude, industria alorrari lotuta teknologia propioak ikertzen eta garatzen dituztenak. Egun, gisa horretako 30 zentro daude Hegoaldean; tartean, Inasmet, Robotiker, Cidemco, Leia, Labein, Cemitec, Cimean, Idab, Idema edo Evena. Industriari lotutako ikerkuntzan nagusi dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, baina jaki, nekazaritza eta ardogintza sektoreei lotutakoak ugariago dira Nafarroa Garaian.


Euskal ikerkuntza sarea indartzeko eta sendotzeko, azkenik, parke teknologikoak eta enpresen berrikuntzarako zentroak daude. Datu ofizialen arabera, Euskal Herrian, inguruko lurraldeen aldean, ahalegin handia egiten da gisa horretako azpiegiturretan, eta Europako lehen postuetatik gertu dago egun bertako parkeen sarea. Arabako, Bizkaiko, Donostiako edo Nafarroa Garaiko parke teknologikoez gain, Garaia berrikuntza poloa eta Izarberl Biarritzeko teknopolisa erreferente bihurtu dira kontinente zaharrean.

**Betiko ikerkuntza esparruetatik haratago, gune berri ugari sortu dira, ordea, azken urteetan euskal ikerkuntzan**

**Berrikuntzaren arloan EBko batz bestekoaren gainetik dago Euskal Herria, eta horrek agerian uzten du ikerkuntzan egiten den ahalegina**

**Estitxu Elduaian**

**Berrikuntzaren Europar Adierazlea 2007**



Iturria: EIS (European Innovation Scoreboard).

Testuaren jatorrizko  
hizkuntza: euskara

## Sistema desorekatua

Juan Ignacio Perez Iglesias, EHUko Fisiologiako Katedraduna

***Euskal Autonomia Erkidegoko ikerketaren arloa etengabe garatu da Autonomia Estatutua indarrean dagoenetik. Hutsaren hurrengoa zen jarduera-eremu bat izatetik, garrantzi handia duen sektorea izatera igaro da azken hiru hamarkadetan. Bidea ez da erraza izan, eta dugun I+Gren sistemak gabezia handiak ditu oraindik.***

Zientzia eta teknologiako euskal sistemaren lehen bi hamarkadak hazkunde hamarkadak izan ziren. Joan den hamarkadaren bukaeran, unibertsitatea, teknologia zentroak eta zenbait enpresa genituen I+Gren arloko eragile garrantzizkoenak. 1999ko datuei erreparatu gero, enpresetan egiten zen I+Gerako gasturik handiena (gastu osoaren %77), unibertsitatearen azpiarloan txikia (%21) zen gastu hori, eta askoz txikiagoa (%2) ikerketarako erakunde publikoen azpiarloan egiten zena. Egia esan, esan liteke ia ez zegoela bat ere ikerketarako erakunde publikorik.

Espainiako estatuan baino gastu handiagoa egiten zen EAeko I+Gren arloan 1999an. %1'15 INEren arabera eta %1'29 EUSTATen arabera, I+Gren gastua barne produktu gordinaren %1'2 ingurukoa zen (BPGren %0'92 enpresetan, %0'25 unibertsitatean eta %0'03 erakunde publikoetan). Espainiako estatuan, %0'95 ingurukoa zen gastu hori. Esan beharra dago, hala ere, enpresetan egindako gastuak teknologia zentroetan egindakoa hartzen duela barne, eta hori gastu guztiaren %15 ingurukoa zela. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan zentro teknologikoek bete dute, nonbait, beste herrietan ikerketarako erakunde publikoek betetzen duten lekua.

Beste herrietako I+Gren gastuaren egituraren aldean, oso desorekatua zen EAeko gastuarena, eta horrek ondorio kaltegarri nabarmenak zekarzkie sistema osoari. Ikerketa aplikatuaren eta garapenaren aldera lerratuegi zegoelako zen desorekatua. Enpresa eta zentro teknologikoek sistematan zuten nagusitasunaren ondorioa zen hori. Jakina, oso txikia zen unibertsitateari zegokion gastuaren zatia, eta kontu ezaguna da herri aurreratuetan unibertsitateak direla oinarritzko ikerketaren eragile nagusiak. Gainera, ikerketa erakunde publikoen garrantzirik ezak areagotu egiten zuten desoreka, Euskadin ez baitzegoen Espainiako CSIC, Frantziako CNRS, Britainia Handiko NERC edo Alemaniako Max Plancken moduko ikerketa erakunderik. Horrelakoek oso zeregin garrantzitsua betetzen dute euren herrietan, goi-mailako ikerketa egiten baitute, oinarritzkoa zein aplikatua, eta elkarrekintza emankorrak baitituzte unibertsitateekin.

Hortaz, EAEn, unibertsitate arloaren ahulezia genuen bate-tik, eta ikerketarako erakunde publikoen gabezia bestetik. Bi faktore horien ondorioz, eta salbuespenak salbuespen, ahul samarrak ziren goi-mailako ikerkuntza eta ikertzaileen prestakuntza.



Juan Ignacio Perez Iglesias

Kasu horretan ere, oso argigarriak dira datuak. EAek Espainiako estatuari 2000an egiten zion BPGren ekarpen erlatiboa %6'4koa zen, eta %5'2koa populazioarena. Bestalde, %9koa zen I+G gastuen ekarpen erlatiboa, hau da, errenta edo populazioarenak baino askoz ere handiagoa. Baina, harri-garria bada ere, %4koa baino ez

zen kalitatezko zientzia dokumentuen ekoizpenaren ekarpena. Espainiako estatuan, EAE zen I+Gren arloan ikertzaileko gastu handiena egiten zuten autonomia erkidegoa, baina ikertzaileko zientzia dokumentuen ekoizpen apalena zuena zen aldi berean.

Beraz, desoreka nabarmena zegoen gure I+G sistematan: enpresetan eta zentro teknologikoetan inbertsio egokiak -hau da, edozein herri aurreraturen barne-produktu gordinaren arabera egiten diren mailakoak- egiten ziren; unibertsitate eta ikerketarako erakunde publikoetan, berriz, inbertsioa oso txikia zen. Eta horren ondorioz, emankortasun apala zuen oinarritzko ikerketaren arloak gure artean. Hortik zetorren, noski, gure ikerketa-jardueraren batz besteko maila ere oso apala izatea eta horrek, bere aldetik, ondorio txarrak zituen ikertzaileen prestakuntzari begira. Izan ere, zientzia dokumentu gutxiegi argitaratzea ahulezia horren adierazlea baino ez zen. Hortaz, ikertzaile eta goi-mailako pertsonal gaituaren prestakuntza ahula bazen, I+Gren esparru osoak jasaten zuten ahulezia horren ondorio kaltegarriak, enpresa eta zentro teknologikoek ere. Bistan da, beraz, sistema desorekatua zela eta, aurrera begira, garrantzi handiko aldaketak egin behar zirela.

Eta horixe izan da azken urteotan izandako aldaketa handien arrazoi nagusia, garrantzizko aldaketak egin baitira Euskal Autonomia Erkidegoko I+Gren arloan. Ikus dezagun zertan izan diren edo nondik nora doazen aldaketa horiek.

Hamarkadaren hasierako urteetan Ikerketa Kooperatiborako Zentroak (IKZ) sortzeko planak egin zituen Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak. CIC-Biogune izan zen lehena (2004an sortu zen), eta beste sei etorri dira gero. Desberdintasun handiak

***Ikerketaren arloa hutsaren hurrengoa zen jarduera-eremu bat izatetik, garrantzi handia duen sektorea izatera igaro da azken hiru hamarkadetan***

daude zazpi zentro horien artean, ez baitira egituratu eredu bakkarraren arabera. Sektore ekonomiko berriak sortzea edo sustatzea lortu nahi izan da zenbaiten bitartez; horixe da CIC-Biogune (biozientzia eta bioteknologia) edo CIC-Nanoguneren (nanozientzia eta nanoteknologia) kasua. Beste IKZ batzuen bidez, berriz, goi-mailako ezagutza sortzea lortu nahi izan da, berriak ez diren jarduera sektoreei bultzada emateko; CIC-Tourgune (turismoa) edo CIC-Energigune (energia) dira bigarren helburu horren adibide argiak. Nolanahi ere, enpresa eta ekonomia garapena suspertzeko edo bultzatzeko asmoarekin sortu dira zentro horiek, eta denetan goi-mailako ikerketa egitea lortu nahi izan da; horretarako, mundu osotik etorritako ikertzaileak kontratatu dituzte. EAEn egiten den ikerketa zientifiko-teknologikoaren maila goratuko du horrek.

Bestalde, Bikaintasuneko Ikerketen Euskal Zentroak (BERC: Basque Excellence Research Center) jarri dira abian hamarkadaren bigarren erdian. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sortu ditu zentro horiek, eta IKZ zentroyen kasuan bezala, zenbait ezagutza esparrutan egiten dute beren jarduna. Matematika aplikatuko (Basque Center for Applied Mathematics) eta klima aldaketakoa (Basque Center for Climate Change) izan dira lehenak, baina guztira, sei dira gaur egun BERC gisa onartu diren ikerketa zentroak. Ikerketa zentro horien jardura ez dago sektore ekonomiko jakin batzuen zerbitzuan, goi-mailako ikerketa egitea baitute zeregin nagusia, eta, horretarako, mundu osotik ekarri dituzte bertan aritzen diren ikertzaileak.

Ikerbasque erakundearen sorrera izan da azken urteotan egiten den interes handiko hirugarren ekimena. Kataluniako ICRE-Aren ereduari (Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuarako Kataluniako Institutuari) jarraituz, Ikerbasque sortu da. Erakunde publikoa da, nahiz eta -fundazio bat denez- izaera juridiko pribatua duen. Mundu osoko eta bertoko goi-mailako ikertzaile onak



Argazki Press

**Desoreka nabarmena zegoen gure I+G sisteman: enpresetan eta zentro teknologikoetan inbertsio egokiak egiten ziren; unibertsitate eta ikerketarako erakunde publikoetan, berriz, inbertsioa oso txikia zen**

kontratatu eta, EAEko ikerketa erakundeekin egindako akordioen bitartez, erakunde horietan lan egiteko kontratuak egiten dizkie ikertzaileei. Unibertsitatean, zentro teknologikoetan, ikerketa kooperatiboko zentroetan eta bikaintasuneko ikerketen euskal zentroetan aritzen dira Ikerbasquek kontratatutako ikertzaileak.

INEk 2008. urterako argitaraturiko datuetara jo dugu, gaur egungo egoeraren balorazioa egiteko. INErenak hartu ditugu, EUSTATEk argitaratu dituen azken I+Gren jardueretako datuak 2007koak direlako; gaurkotuagoak erabiltzea nahiago izan dugu.

Euskal Autonomia Erkidegoak I+Gren arloan egiten duen gastua nabarmen igo da azken hamarkadan zehar. Barne produktu gordinaren %12 ingurukoa zen 1999an egiten zen I+Gren gastua, eta %19ra igo da 2008an. Erkaketa hori bezain interesgarria da sektoreen araberrako gastuaren partiketa. 2008an, gastu osoaren %81 egokitu zitzaion enpresen alorrari (zentro teknologikoak barne, noski), %5ekoa ikerketarako erakunde publikoei, eta %14 unibertsitateei. Barne produktu gordinaren ehuneko gisa adierazita, honako hauek dira 2008an arlo bakoitzari dagozkion datuak: BPGren %1'59 gastatu dute enpresek (+ zentro teknologikoek) I+G jardueretan (%0'99 1999an), %0'09 ikerketarako erakunde publikoek (%0'03 1999an), eta %0'28 unibertsitateek (%0'27 1999an).

Datuok argi adierazten duten bezala, azken hamarkadan zehar areagotu egin da enpresen alorrak duela hamar urte zuen nagusitasuna; bestalde, txikia da erakunde publikoei dagokien gastua baina, hala ere, igoera nabarmena izan du azken urteotan, hirukoiztu egin baita dagokion BPGren ehunekoak. Eta azkenik, duela hamar urte zegokion ehuneko txikiari eusten dio unibertsitatearen alorrak. Beraz, unibertsitate alorrari dagokion BPGren ehunekoak aldatu ez denez, lehenago aipatu den I+Gren gastu egituraren egoera desorekatuak, unibertsitateari dagokionez, bere horretan dirau edo, hobeto esan, areagotu egin da, beste bi alorrei dagokien gastua nabarmen handitu delako. Hortaz, ikerketarako erakunde publikoek egiten duten gastua handitu izana berri ona bada ere, zuzendu gabe dago oraindik EAEko I+Gren sistemak duen ahulezia handiena, unibertsitatearen alorra urrun baitago oraindik edozein herri aurreratutan ohikoak diren ahalegin-mailetatik.

Garrantzi handikoak izan dira azken urteotan hartu diren neurriak eta abian jarri diren ekimenak. Emaitza onak izango ditu ikerketa erakunde berriak sortu izanak, eta horrek esan nahi du EAEko emankortasun zientifikoa handitu egingo dela datozen urteotan. Ikerketa politiken emaitzek, baina, urteak behar dituzte nabarmenak izateko. Hortaz, oraindik ez dira emaitzok islatuko estatistiketan. Hala ere, gabezia handi bat konpondu gabe dago oraindik, unibertsitate-alor indartsurik gabe ez baita sistema osoaren emankortasuna eta kalitatea era nabarian goratuko.

Testuaren jatorrizko  
hizkuntza: euskara

## Ikerketaren eta Garapenaren egoera Iparraldean

Eguzki Urteaga · EHUko Irakaslea · [eguzki.urteaga@ehu.es](mailto:eguzki.urteaga@ehu.es)

**Iparraldeko ikerketaren eta garapenaren egoera ulertzeko, ezinbestekoa da Frantziako Estatuaren errealitatea azaltzea; baitetik, estatistika-datu gehienak estatu oso-koak direlako eta, bestetik, Frantziako estatua zentralizatua denez, legeak, politikak eta egiturak Parisen erabakitzen direlako.**

### Ikerketa eta garapena Frantziako Estatuan

Nahiz eta ikerketan eta garapenean inbertitzen den diru-kopurua EAerekin alderatuta nahiko handia izan, beherantz doa. Izan ere, 1980ko hamarkadan ikerketan inbertitutako diruak gorantz egin zuen, BPGren %2,4ra hurbilduz, baina 1993az geroztik beherantz egin zuen. 2006an, BPGren %2,1 zen, ELGEko batez bestekoa baino zerbait apalagoa (%2,26), eta herrialdeen seigarren tokian kokatuta, Suedia, Finlandia, Japonia, Estatu Batuak eta Alemaniaren atzetik. Horrez gain, Frantziako enpresa pribatuek gutxi inbertitzen dute I+G+b-n. ELGEko datuen arabera, ikerkuntzan gastatzen den diruaren %63 sektore pribatutik dator eta bereziki teknologia industrialetan biltzen da: automozioan, aeronautikan, farmazian, elektroniketan, medikuntza tresnerian eta materialen arloetan. ELGEko batz bestekoa %69koa da; Japoniak, Estatu Batuak eta Alemaniak, berriz, batz besteko hori gaintzen dute: %70etik %77ra bitartean inbertitzen dute<sup>1</sup>.

Gainbehera hori are eta sakonagoa da 2002az geroztik, Raffarin eta batez ere De Villepin eta Fillon lehen ministroek hainbat neurri hartu baitzituzten: ikerlarien eta unibertsitateko irakasleen kontratazioen murrizketa, CNRS ikerketa gune nazionalaren berrantolaketa (sei institututan banatuz, bi jadanik existitzen direla jakinik), unibertsitatearen autonomia bultzatzen duen lege berria<sup>2</sup>, ikerketarako balibideak banatzeaz arduratzen den Agentzia bat sortzea eta Sauvons la recherche mugimenduaren salaketak. Aldaketa horien irakurketa beltza egin

1.- JOURNET, N.: «La réforme de la recherche», in Sciences Humaines, 203, apirila (2009), 26. or.

2.- 2007ko abuztuan onartutako "Unibertsitateen Askatasun eta Ardura" legeak unibertsitateen aurrekontu autonomia ezartzen du, baita haien barne funtzionamendua aldatu ere: errektoreek botere handiagoak dituzte, administrazio kontseilua kanpoko eragileei irekitzen zaie, fundazioak baimentzen ditu eta, oro har, ikasketa baldintzen eta irakaskuntza zein ikerketa karreraren kudeaketan arteko berdintasuna hausten du. Horren truke, Estatuak unibertsitateei eskaintzen dien aurrekontuak gora egiten du: +%50 bost urtean, hau da, 10.000-15.000 milioi € gehiago, zeren unibertsitateak Estatuari lotuta dauden "zentro mailako kontratuen" mende izaten jarraitzen du.



Eguzki Urteaga

da, alegia, estatuaren eta oro har botere publikoen esku-hartzea murrizten doala eta zientzia zein teknologia finantzatzearen eginkizuna sektore pribatuaren eskutik utzi nahi dela<sup>3</sup>.

Egoera horrek hainbat mobilizazio eragin ditu. 2007ko urrian, Unibertsitateen Askatasuna eta Ardura izeneko Legeak (UAA) unibertsitate frankoren blokeoa eragin zuen, ikasleak zein irakasleak egitasmo horren aurka altxatu baitziren. 2008ko martxoan, CNRSko ikerlariak "ikerketa-zentro handiak

desegitea" arbuizatzeko antolatuta ziren. Berrikitan, Ikerketarako Agentzia Nazionalaren (IAN) egoitza okupatu dute ikerketa-enpleguen ezegonkortasuna salatzeke, eta 2008. urte osoan zehar protestak egon dira AERESek martxan jarritako ebaluazioen aurka. Azkenik, 2008ko abenduan, ikerlari-irakasleen estatusa aldatzen duen dekretu ba-

**Iparraldeko ikerketaren eta garapenaren egoera ulertzeko, ezinbestekoa da Frantziaren errealitatea azaltzea**

3.- Eraldaketa horiek, 2000. hamarkadan hartutako norabide orokorrean kokatzen dira. Horrela, finantza legeei buruzko lege organikoaren, alegia, 2001ean bozkaturako finantza legearen asmoa gastu publiko guztiak emaitzen lorpenei baldintzatzea da. 2004an adierazitako eta 2006an legean islatutako ikerkuntzarako akordioaren oinarrietariko bat da. Ikerkuntzaren aurrekontuaren gorakada sektore publikoaren zuzendaritza bermatzeko tresna berrien sorkuntzari lotua dago. 2006ko legeak lankidetzara arauak erreformatzen ditu eta unibertsitateen gainean eragina dauka. Erakunde berriak sortu dira. Ikerkuntza Zientifiko eta Teknikoaren Goi Kontseiluak ikerketaren norabide orokorrak finkatzen ditu, nahiz eta bere eginkizuna aholkularitza mailakoa izan. Erakundeen alboan dagoen Ikerketarako Agentzia Nazionalak kredituak jaso eta banatzen ditu epe motzeko ikerketa egitasmoak finantzatzeko, horietako batzuk goi-mailan erabakitzen dira eta besteak ikerlarien proposamenei lotuak daude. Ikerketa kredituak hasieran mugatuak ziren (358 milioi € 2007an), baina berehala hasi ziren handitzen: 955 milioi €-koak izan dira 2008an eta 1.600 milioi €-koak 2009an. Ikerketaren eta goi-mailako irakaskuntzaren ebaluazio agentziak zentroen, tituluen, aldizkarien, taldeen eta ikerlarien kalifikazioak biltzen ditu, beste erakundeez gain (CNU, CNE, CNRS). Agentziaren ebaluazioak peritaje gisa ageri dira. Emaitzen arabera, autoritateek kredituak, karrera profesionalak eta egitarauak modulatu ditzakete. Erakunde horrek neurriak hartu ditzake unibertsitateak sektore publikotik zein pribatutik datozen eragileekin lankidetzan aritzeko, balibideak batzeko eta zerga murrizketak onartzeko enpresen kasuan.



Argazki Press

tek ikerlarien eta unibertsitate irakasleen greba mugimendu sakona eragin du, eta ikerketa ministroak egitasmoa bertan behera utzi behar izan du. Mobilizazio horien arrazoiak anitzak dira, besteak beste, ministerioak hitzemandako diru laguntzak ez direla heldu. Izan ere, 2008ko lege zuzentzaile batek Ikerkuntzarako eta Goi Mailako Irakaskuntzarako ministerioaren aurrekontua %2,2 jaitsi duenez (500 milioi euroko galera), laborategien aurrekontua gutxitu eta lanpostu berrien sorrera galarazi da. 2009an, galera 800 milioi eurokoa izan daiteke.

Izan ere, Gobernuak ikerketa “desfuntzionarizatu” nahi du. IANek diru laguntzak egitasmoen arabera banatzen dituzenez, kontratu unibertsitarioek, sektore pribatuaren parte-hartzeak eta CNRS baliabide agentzia bilakatzearen mehatxuak kezka piztu dute ikerlarien baitan. Kulturaren alorrean, sektore pribatutik datozen kudeaketa metodoak gaizki ikusiak dira, komunitate hori berdintasunari, interes orokorrari eta banakako merezimendu baloreei atxikia baitago. Politikaren alorrean, zientzia komunitatea bere independentziaren afirmazioaren gainean eraiki da, bai ezagutzari, bai metodoei dagokienez. Alde

horretatik, zuzendaritza eta zaintza tresnek, baita autonomia zein liberalismoa goraiatzaren duten diskurtsoek ere, topo egiten dute tradizio horrekin. Kezka are eta larriagoa da jakitean Lisboako estrategiak eta eskaera

**Izan ere, Gobernuak ikerketa “desfuntzionarizatu” nahi du**

sozialari garrantzia ematen dion diskurtsoak bidea ireki diotela estrategia horri<sup>4</sup>.

Dena den, hainbat txostenek kolokan jarri dute Frantziako estatuko ikerketa sistemaren eraginkortasuna. 2007ko urtarrilean, finantza ikuskaritza orokorreko txosten batek balorazio negatiboa egin zuen: berrikuntza teknologikoaren ahulezia, sektore publikoaren produktibitate ekonomiko urria, ikerkuntza industrialaren azpigarapena -horren lekuko Frantziako estatuan egindako patenteen beherakada da: mundu osoko masaren %5,5 2006ean; 1988an, berriz, %8,3 zen-. Baina, batez ere, Estatua-ren gastua eta estatus publikoa daukaten ikerlarien kopurua (162. 000, 364.000 ikerlarietatik) kontutan izanik, txostenak gastu ez justifikatuak, kudeaketa txarra, antolaketa ezegokia eta emaitzen ebaluazio eskasa azpimarratzen ditu. Halaber, gogoratzen du ikerketa pribatua sustatzea komeni dela, eta aldaketa sakonak gomendatzen ditu: egitasmoen zuzendaritza, unibertsitateak bateratzea eta autonomia garatzea, finantziario sistemaren sinplifikazioa, ikerlariak emaitzetara hurbiltzea eta doktoregaiei laguntzea.

Baina, ikerketa zientifikoa ez da soilik aplikazio teknologikoen arabera balioesten. Ezagutzen ekoizleen eta distira intelektualaren arabera ere ebaluatzen da. Maila horretan, Frantziako estatuko ikerketa ez dago bere unerik hoberenean. Zientzia eta teknika behatokiaren arabera (2008), mundu osoko argitalpenetan, Frantziako estatuari dagokion zatiak beherantz egin du 1999az geroztik, eta atzerriko aldizkarietako aipameneen kopurua ez da hobea. Oro har, bere eragina munduko batzuk bestekoa baino ahulagoa da. Atzeritik datozen ikasleen kopuruak gora egin du, baina Ingalaterran eta Alemanian baino maila apalagoan dago. Nobel saria eta beste sari batzuei dagokienez, tamaina bereko Europako herrialdeen atzean dago, Estatu Batuak aipatu gabe. Nahiz eta hainbeste datu ez eduki, Iparraldeko biztanleriak antzeko sentsazioa dauka.

### Iparraldearen berezitasunak

Testuinguru horrek eragin zuzena dauka Iparraldean egiten den ikerketaren eta garapenaren gainean, eta bost ezaugarri aipa daitezke.

Lehenik, lurralde horrek onarpen politiko-administratiborik ez daukanez, 1997ko Voynet legeak aurreikusten duen herri gisa izan ezik, ez dauka berezko erakunderik, ez Eskualde Kontseilurik, ez Kontseilu Orokorririk. Horri gehitzen bazaio zientzia-politika Estatuaren eskumena dela eta garapen ekonomikoa eskualdeen esku dagoela, ezinezkoa zaio Iparraldeko berezko politika zientifikorik sortzea eta ondoren gauzatzea. Herri izen-datu dutenez, alegia, lurralde egitasmoa, Estatua, eskualdeak, departamentuak eta udalak elkarrekin batu daitezke, politika sektorial batzuk aurrera eramateko. Hori bera gertatu da (2001-

4. - JOURNET, N.: «La réforme de la recherche», in Sciences Humaines, 203 (2009), 29. or.

5. - AHEDO, I., URTEAGA, E.: La nouvelle gouvernance en Pays Basque, L'Harmattan, Paris, 2004.

2006) Euskal Herriko Hitzarmen Bereziarekin<sup>5</sup>, baita Euskal Herria 2020 planarekin ere.

Bigarrenik, Iparraldeak ez dauka berezko unibertsitatearik. Gaur egun, Paue eta Aturriko Herrietako Unibertsitateak (PAHU) eranskin bat dauka Angeluko eta batez ere Baionako kanpuse-tan<sup>6</sup>. Bertan, zuzenbideko, ekonomiako, euskal filologiako eta letra modernoetako lizentziaturak eskaintzen dira, bai eta nazioarteko eta Europako zuzenbideei buruzko masterrak ere; komertzializazio nahiz enpresa eta administrazio kudeaketako UDTak ahaztu gabe (unibertsitateko diploma teknikoak). Azken urteetan, Angeluko Montaury-n dagoen polo zientifikoak garapen nabarmena ezagutu du, eta biologiako, informatikako eta fisika-kimikako lizentziak, industria eta informatika UDTak, baita lizentzia masterrak eta master profesionalak eskaintzen ditu, besteak beste, eraikuntzan, ingurumenean eta sistema informatikoetan. Unibertsitateari, ingeniari eta eskolak gehitzen zaizkio; adibidez, ESTIA eta ISA BTP. Eskaintza ugartzen joan den arren, urria izaten jarraitzen du<sup>7</sup>, 37 titulazio besterik ez baitaude. Horrez gain, lehen eta bigarren zikloak lantzen dituzte, eta hirugarren zikloa alde batera utzi. Hori dela eta, urtero 8.000 ikasle inguruk Iparraldetik kanpo joan behar dute goi-mailako ikasketak egiteko.

Hirugarrenik, lurralde horretan dauden ikerketa guneen kopurua murrizta da. PAHUri loturiko zentroez gain (IKER eta CDRE, adibidez), CNRSri eta INRari elkartutako laborategiak daude (Ecobiop, esaterako). Izan ere, ikerketa eta, beraz, ikerlari, aurrekontu eta argitalpen gehienak Pauen kontzentratzen dira. Horrela, PAHU osoan, 500 ikerlari daude, 26 laborategitan banatuak, horietariko 9 CNRSri lotuak. Guztira, 335 doktoregai daude eta 70 tesi irakurtzen dira urtero. Ikerlariak 400 argitalpen baino gehiago plazaratzen dituzte, eta 13 patente aurkeztu dituzte<sup>8</sup>, 12 milioi euroko aurrekontua dutela, soldatak kontuan izan gabe. Arazoa da horietako zati txiki bat besterik ez dela Iparraldean kokatzen<sup>9</sup>.

Laugarrenik, lurralde horretan kokatuta dauden enpresak neurri ertain eta, batez ere, txikikoak izanik, eta ekoizpenean edo aplikazioan bereizten direnez, ikerketa eta garapen gutxi egiten dute, ez dutelako beharra sentitzen, ez dutelako nahiko dirurik, ez daukatelako prestatutako langile-rik edota ez dutelako botere publikoen aldetik behar-ko luketen laguntzarik jasotzen. Horren ondorioz, ez dira oso berritzaileak, eta zailtasunak dauzkate hazteko eta, beraz, ikerlari hobereak erakartzeko<sup>10</sup>.

Bosgarrenik, Iparraldeak baliabideak dauzka ikerketa eta ikerlariak erakartzeko. Izan ere, lurrez eta airez gainerako eskual-

## **Lurralde horretan kokatuta dauden enpresak neurri ertain eta, batez ere, txikikoak izanik ikerketa eta garapen gutxi egiten dute**

de eta herriekin ongi komunikatuta dago, bizi-kalitatea eskaintzen du, instituzio publikoak (eskualdeak, departamentuak, hiri-elkargoak eta udalak) eta Baionako Merkatal eta Industria Garbara gisako erakunde parapublikoek borontatea ageri dute, adostutako eta finantzatutako lurralde egitasmo bat dauka, eta biztanleria potentzialaren ikasketa maila altua da, batik bat atzerrira joan direnak itzultzen badira.

Beraz, Iparraldeko ikerketak eta garapenak baliabideak eta aukerak badauzka, baina giza kapitalarekin (zientzian eta teknologian aplikatutako giza baliabideak 10.000 biztanleko 249,65 dira; Parisko eskualdean, berriz, 2.893,88 dira), inbertsioarekin (I+Gko gastua %1,2 da; Frantziako estatu osoan, berriz, %2,24, hau da, batz bestekoaren erdia) eta egiturarekin loturiko arazoei aurre egin behar die, batik bat geroa bermatzeko.

6.- EDUCATION NATIONALE: L'enseignement supérieur et la recherche. Bayonne, Académie de Bordeaux et du Pays Basque (2007).

7.- CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE: Synthèse de la contribution de l'atelier Enseignement supérieur-Recherche. Baiona, 2006ko ekaina.

8.- Aitzitik, egindako patente-eskaerak 10.000 biztanleko, 2005eko datuei erreparatu, batz bestea 2,44 da, eta Euskal Herri osokoa, berriz, 0,65.

9.- URTEAGA, E.: "Zientzia eta teknologiari buruzko gizarte irudikapenak Iparraldean", Argitaratze, GGOA, EHU, 2009.

10.- EIZAGIRRE, A., URTEAGA, E.: Zientzia eta teknologiaren gizarte irizkiak eta irudikapenak Euskal Herrian, Cuadernos Sociológicos vascos, 26, 2009.



Argazki Press

**Zientzia-politika Estatuaren eskumena dela eta garapen ekonomikoa eskualdeen esku dagoela, ezinezkoa zaio Iparraldeko berezko politika zientifikorik sortzea eta ondoren gauzatzea**

with raised letterforms that were

no paper

and process of typefaces, some to select, some to

put. Traditionally, type is simply

study and proof  
apply in the  
sed letterforms







# Urteko azterlanak

Euskal Herriko ekonomia eta gizarteko alorrak jorratzen duten ikerketen laburpenak

- Mugaz gaindi aritzeko ezinbesteko gida
- Gizarte-desorekak Nafarroa Garaian
- Iparraldearen argazki gaurkotuagoa
- Lehiakortasunaldi berrirantz
- Iparraldean euskaraz eskola-maila altuena jasotako en egoera sozio-laborala

# Mugaz gaindi aritzeko ezinbesteko gida

Bidasoa-Txingudiko hiritar, profesional eta enpresei aukera paregabea eskaintzen die pertsona eta kapitalen zirkulazio askeak, mugaren alde bateko zein besteko gizartearen eta ekonomiaren ateak baitituzte zabalik. Baina Bidasoa ibaiaren alde bietako sistema juridikoak ezberdinak izanik, zailtasunak ere ez dira makalak. Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak argitaratutako gida honek traba horiei aurre egiten laguntzeko helburua du, zailtasun horiek dituzten biztanleentzat laguntza tresna bat izatea.

Sistema juridiko ezberdinen informazio eta oinarriak jasotzen ditu horretarako, baina oso modu praktikoan antolatuta: mugaz gaindiko esparruan planteatu daitezkeen egoera ezberdinak planteatzen ditu, bakoitza galdera baten bidez, eta galdera horiei erantzun zehatzak ematen dizkie, beti ere erantzun integrala ematen saiatuz. Gida edo eskuliburu gisako argitalpena da, informazio praktikoa hutsa biltzen duena.

239 galdera zehatz planteatzen ditu eskuliburuak, eta bakoitzari dagokion erantzuna ematen dio. Galdera guztiak zazpi ataletan daude banatuta, egoera ezberdinen arabera. Hala, aurreko kapituluak, Europako hiritar izanik, Gipuzkoan lan egin eta bizi denaren egoera planteatzen du, eta egoera horretan sortu daitezken galdera zehatzak jasotzen ditu; bigarrenak, Eu-

**Izenburua:** Bidasoa Txingudin bizi eta lan egin europarra izanik. Mugaz gaindiko eskuliburu praktikoa.  
**Argitaratzailea:** Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa.  
**Egilea:** Bidasoa-Txingudi Partzuergoa (Irun, Hondarribia eta Hendaiaiko udalak).  
**Hizkuntza:** Euskara.  
**Orrialde kopurua:** 116  
**Argitaratze data:** 2009  
**Ikerketa eskuratzeko:**  
[www.bidasoa-txingudi.com](http://www.bidasoa-txingudi.com)

ropako hiritar izanik, Frantziako estatuan lan egin eta bizi denaren egoera, dagozkion galderekin; hirugarrenak, Europako hiritarra izanik, Frantziako estatuan bizi eta Gipuzkoan lan egiten duenaren egoera, dagozkion galderekin; laugarrenak, Europako hiritarra izanik, Gipuzkoan bizi eta Frantziako estatuan lan egiten duenaren egoera, dagozkion galderekin; bosgarrenak, egoitza Frantziako estatuan izanik, jardura ekonomikoa Gipuzkoan garatzen duten enpresak, eta egoitza Gipuzkoan izanik, jardura ekonomikoa Frantziako estatuan Garatzen duten enpresak, dagozkion galderekin; seigarrenak Gipuzkoan nahiz Frantziako estatuan bizi eta mugaz bi aldeetan lan egin, dagozkion galderekin; eta azkenak, erretiro-pentsioa duten jubilatuak eta baliaezintasuneko edo bizirauteko pensioa duten pentsiodunak aztertzen ditu, dagozkion galderekin.

Erantzun horietan egun mugaz gaindi bizi diren hiritar, enpresa, eta profesionalen egoerak aztertzen



dira, indarrean dauden araudietan aurreikusitak diren forma juridikoak alderatu, eta argitalpenaren amaieran, arautegiak, formularioak eta helbide interesgarriak ere jasotzen dira.

Alor horiek aztertuta zenbait egoera islatzen ditu, eta honako alderdi hauek jorratu, besteak beste: forma juridikoak, enpresak sortzeko nahi-taezko tramiteak, elkartearen estatutuak, bazkideen

erantzukizuna, kapitala eta ezarpenak aintzat hartuz. Tokian tokiko zergak, errentak, elkar-teak eta jardura ekonomikoak ere jasotzen ditu, eta aitortpena aurkezteko bete-beharrak, erregimen bereziak, izaera eta aplikazio esparrua, eta zerga eskala aztertzen ditu. Horiez gain, lan kontratuak ere aztertzen ditu, besteak beste, kostu, gizarte segurantzak, pentsioak, eta osasun laguntza aztertuz, eta sakon jasotzen ditu osasun eta hezkuntza esparruko zenbait alor.

Irungo, Hondarribiko eta Hendaiaiko udalek garatu dute gida, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren baitan. Eusko Jaurlaritzak, Region Aquitaine, Laborare Cosein, Bidasoa Activa eta Baionako Merkataritzak eta Industria ganberaren babesak du.



Argazki Press

# Gizarte-desorekak Nafarroa Garaian

Aberastasunaren banaketa bidegabea behin eta berriz salatzen dute sindikatuek. Salaketa hori datu ofizialen bidez egiaztatzen du ELAren Manu Robles-Arangiz Institutuak egindako lan honek, errentaren banaketaren, zerga sistemaren, ekonomia zailtasunen eta enpresa publikoen antolaketaren inguruko datuen bidez, hain justu. Nafarroako Foru Erkidegoaren egoera aztertzen du, zehazki, eta agerian uzten ditu bertako gizartearen desorekak.

Zenbait alor aztertzen ditu ikerlanak, baina guztiak ikertuta, ondorio berdineira iritsi dira lanaren egileak: ekonomiaren hazkunde garaian zein krisialdian, beti galdu duela eta galtzen duela langile klaseak, eta bereziki ahulenak. Gainera, txostenean ikertzen diren politika publikoek (zerga-sistema eta pobreziaaren aurkako borroka, adibidez) egoera horrekin zerikusi handia dutela ikusi dute egileek. Horregatik, sindikatuaren borrokaren parte bat politika aldatzera zuzendu behar duela ondorioztatu du ELAK, kapitalaren errentak eta errenta altuak babesten dituen politika alde batera utzi, eta gizarte osoaren onura bilatzen duen politikaren alde eginez.

Ondorio nagusi horretara iristeko, Nafarroako Foru Erkidegoko errenta banaketa, zerga sistema, ekonomia zailtasunak eta enpresa publikoen antolaketa aztertu ditu lanak, banan-banan. Horretarako, erakunde publikoen datuak eta ikerketak hartu ditu oinarri: NIEk, Nafarroako Gobernuak eta Estatistika Institutuak, eta Nafarroako Biztanleriaren Bizi Baldintzei buruzko 2007ko Inkestak argitaratutako datuak, hain justu.

Aipatu alor bakoitzari atal bat eskaintzen dio lanak. Hala, aurreneko zatian, Nafarroa Garaiko errentaren banaketa ikertu du lanak, NIEko datu ofizialak oinarri hartuta. Datu horiek mahai gainean, atal horrek erakusten du 2008an lanaren errentak indarra galdu duela aberastasunarekiko, eta enpresaburu eta kapitalaren errentak handitu egin duela bere partaidetza.

Bigarren zatian, berriz, Nafarroa Garaiko zerga sistema aztertu dute, zenbait epealditan. Aurrena, zerga itundu biltzaia aztertu dute, 2008koa, eta zer bilakaera izan duen 2007koaren aldean. Gero, 2009ko urtarrietik eta maiatzera artekoa aztertu dute, eta 2008ko epealdi berarekin alderatu. Hirugarren zatian, 2008koa eta zer bilakaera izan duen 1998koaren aldean aztertu dute, eta azkenik, laugarren zatian, Pertsona Fisikoen Gaineko Zergaren azterketa egin dute, 2007koa, eta zer bilakaera izan duen 2001ekoaren aldean. Atal horretako datuek erakusten dute



zerga biltzetan ekarpen handiena lanaren errentak egiten dutela (%61,5), baina banaketa egiterakoan enpresari errentek baino gutxiago jasotzen dutela (langileriak %44,1 eta enpresaburuek %44,6).

Ikerlanaren hirugarren zatian ekonomia zailtasunaren ezaugarriak aztertzen dira, 2007ko datuak kontuan hartuta. Honako argazki hau utzi du atal horrek: Nafarroa Garaiko etxeen laurdenak baino gehiagok ditu maila baxu edo ertaineko diru-sarrerak. Hamarretik lauk arazokak ditu hilabete amaierara iristen, eta hamarretik batean ez zegoen diru-sarrerarik. Ikuspegia are latzagoa da zainketak behar dituzten eta pertsona zaharrak bizi diren etxeetan, bai eta familiaburu emakumezkoa, langabea, erretiratu, jubilatua, pentsioduna edo etxeko zereginetan diharduena bada.

Azkenik, txostenaren azken zatian, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak S.L.U. sortzeari buruzko ELAren balorazioa jasotzen da. Bertan, sindikatuak kapital publikoko enpresa pribatuak egotea kritikatzeko, eredu horrek iruzurra eta irregulartasunak gertatzeko arriskua ekartzen duelako.

Izenburua: Desorekak Nafarroan. Errenta-banaketa, zerga-sistema, ekonomia-zailtasunak, eta enpresa publikoak Nafarroan. Argitaratzailea: Manu Robles-Arangiz Institutua. Egilea: ELAko Azterketa Bulegoa. Hizkuntza: euskara, gaztelania. Orrialde kopurua: 40. Argitaratze data: 2009ko ekaina. Ikerketa eskuratzeko: [www.mrafundazioa.org](http://www.mrafundazioa.org)

## Zerga garrantzitsuenen ondoriozko diru-bilketa, zerga mota kontuan hartuta, egitura eta bilakaera.

### NAFARROA GARAIA, 2009-2008 urtarrila-maiatza

	2009		2008-2009
	Milioi	%	% Ald.
PFEZ	410,9	38,4	-5,1
BEZ	251,4	23,5	-16,5
ZERGA BEREZIAK	171,6	16,1	-5,4
SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA	60,4	5,6	8,5
GAINERAKOAK	174,8	16,4	X
GUZTIRA	1069,1	100	-3,18

Iturria: Nafarroako Gobernuak publikaturiko informazioa

# Iparraldearen argazki gaurkotua

Iparraldeko datu eguneratuak lortzea oso zaila da. INSEE Frantziako estatuko estatistika eta ikerketa ekonomikoen erakundeak oso lantzean behin ematen ditu Iparraldeko udalerrri guztietako datuak, eta orain arte eskura ziren azkenekoak 1999koak ziren. 2009an, datu berriak eman ditu erakunde horrek, 2006koak, eta horrek Iparraldearen argazki eguneratuago bat egiteko aukera eman du. Argazki hori atera du, hain justu, Gaindegiaren Ipar Euskal Herriko argazki sozio-demografikoa argitalpen honek, eta, ondorioz, Euskal Herri osoaren ikuspegi bateratu gaurkotuago bat irudikatzen laguntzen du.

INSEEk batutako azken datu horiek erakutsi dute Euskal Herriko lurraldeetan antzeko arazo-

ak bizi dituztela, eta, hortaz, erronkak ere bertsuak izango direla. Ekonomia garatua duen gizarte moderno bat eta biztanleriaz zahartua erakutsi dute azken datuek. Landa eremuak husten ari dira, gune urbanoak handitzen, familia unitateen tamaina urritzen, zerbitzuen sektorea indartzen, eta industria eta jarduera tradizionalak ahultzen. Bereziki kezagarria da eskualde euskaldunenak husten ari direla Iparraldean, belaunaldi gazte formatuak kanpora joaten ari direla, eta egitura industrialak ahultzen ari dela. Datu horiek etorkizuneko erronkak zehazten dituzte, eta lurraldearen etorkizuna nondik eta nola landu behar den ulertzeko argibideak ematen ditu.

Eneko Gorrik zuzendu du Gaindegiaren lana. Lontzi Amado, Jokin Zaldumbide, Jean Joel Ferrand, Xabier Harlouxet eta Xabier Itcaina izan ditu laguntzailerak, eta Solange Mariluz eta Imanol Esnaola izan dira argitalpenaren arduradunak. INSEEk emandako datu multzo handia irakurlearentzat eskuragarriago izateko asmoz, modu sistematikoan antolatu dute lana, eta informazio hautaketa handia egin dute. Lan deskriptiboa da, ez da analisisian murgiltzen, baina Iparraldeko datuak inguruko lurraldeekin alderatzen saiatu da: gehienetan Euskal Herri mailan, eta beste ba-

tzetan departamenduari edo eskualdeari begira.

Informazio hori guztia zazpi ataletan banatu dute. Aurreneko atalean, biztanleriaren inguruko datuak jasotzen dituztenak, eta barnealdea husten ari dela eta kostaldea gainezka dagoela erakusten.

Bigarren atalean, berriz, familia aztertzen du. Iparraldean bikoteak nagusi direla erakusten du, gero eta familia txikiagoak daudela, eta, ondoren, nolako elkartzeak dauden deskribatzen du. Hirugarren atala formazioari dagokio: eskolatzearan emazteak gehiago dira, eta hezkuntza maila altuena dutenen argazkia dakar.

Laugarren atala biztanleriaren jarduna aztertzeraz dator. Aktibitatea eta enplegua aztertzen ditu, enpleguak eta jarduera, sektoreka eta kategoria sozio-profesionalaren arabera, eta, besteak beste, langabeziak gazteak, emazteak eta atzeritarrak bereziki jotzen dituela argi uzten du. Bosgarren atalean, berriz, enpleguaren gaineko datuak ematen ditu, eta lan baldintzak, lan jarduna, emazteen egoera, eta lansariak aztertzen ditu.

Seigarren atalak enpresak ditu aztergai, eta haien dinamizotasuna, langile kopuruak eta sektore batzuen pisua kontuan hartzen ditu. Azkenik, etxebizitzaren atala jasotzen du zazpigarren eta azken atalak: gero eta etxe gehiago dago, bereziki bigarren etxebizitzak, eta etxebizitzaren aintzinasuna aztertzen du.



Izenburua: Ipar Euskal Herriko argazki sozio-demografikoa.

Argitaratzailea: Gaindegia.

Egilea: Gaindegia.

Lan taldea: Eneko Gorri, Solange Mariluz, Imanol Esnaola, Lontzi Amado, Jokin Zaldumbide, Jean-Joel Ferrand, Xabier Harlouxet, Xabier Itcaina, Patxi Ladeveze, Miren Ehorga.


Hizkuntza: Euskara eta frantsesa.

Orrialde kopurua: 40

Argitaratze data: 2010 urtarrila

Ikerketa eskuratzeko:

[www.gaindegia.org](http://www.gaindegia.org)



Iturria: INSEE. [www.atlasa.net](http://www.atlasa.net)

# Lehiakortasun aldi berrirantz

Euskal Autonomi Erkidegoa lehiakortasun aldi berrirako bidean al doa? Eta zein dira gomendio nagusiak ibilbide hori ahalik eta eraginkorrena izan dadin? Bi galdera horiei erantzun nahi die Orkestra Lehiakortasuneko Euskal Institutuak argitaratu duen bigarren txostenak. Lanaren helburua da EAEn lehiakortasunaren inguruan egindako ikerketen emaitzak aurkeztea, eta ondoren etorkizunari begira lehiakortasuna hobetzeko eman beharreko pausoak aurkeztea.

Txostenak bi zati bereizi ditu. Lehengoan, hainbat kapitulutan EAEn eta bertako enpresen lehiakortasunaren emaitzak neurtzen ditu, eta emaitza hori lurraldeak berrikuntzan duen kokapenari lotu zaio. Bigarrean, EAeko ekonomiaren lehiakortasunerako faktore kritikoak aztertu dira; gure lurraldea berrikuntzan oinarritutako aldira igarotzeko katalizatzaile izan daitezkeenak, hain justu.

Lanak ondorioztatzen du inbertsioa oinarri duen eta eraginkortasuna bilatzea lehenesten duen lehiakortasunaren alditik berrikuntzaren bidetik produktibitatea hobetzea eta balio proposamen bakarra garatzea lehenesten duen aldira igarotzeko bidean dagoela euskal ekonomia, eta aldi berri horretara behar bezala igarotzeko gakoak zein diren zehazten ditu.

Hala, EAeko ekonomiaren erronkak dimentsio bikoitza duela dio: batetik, eredu aldatzearen erronka eta lehiakortasunaren garapenaren gorako aldiatara igarotzea, eta, bestetik, Espainiako estatuko eta munduko ekonomiekin eragiten dien krisi egoerari aurre egiteko erronka, gainerako ekonomiekin ezinbesteko lotura baitu.

Eredua aldatzeari dagokionez, goragoko lehiakortasun aldira pasatzeak lankidetzarako eta berrikuntzarako beste modu batzuetan aurrera egitea eskatzen duela dio. Beharrezkoa da klusterretako beste eragile batzuekin edo berrikuntza arloko eskualdeko sistemako eragileekin lankidetzan aritzeaz gain, EAeko enpresen eta gainerako eragileen jakintza gehiago barneratu eta nazioarteko sareetan sartzea. Bestalde, esperientzian oinarritutako berrikuntza eta ikaskuntza areagotu egin behar dira, eta eredu parte-hartzailagoak sustatu. Gainera, euskal ekonomiak zientzian eta teknologian oinarritutako ikasketak moduak ere indartu beharko ditu berrikuntza arloan, bereziki berrikuntza sistemaren eraginkortasuna hobetu eta output eta input teknologikoak alderatuta ageri den ratio desegokia zuzendu.




Krisiari aurre egiteari dagokionez, berriz, Orkestraren proposamena da EAeko ekoizpen egituraren indarguneetan oinarritzea, eta berrikuntza sistemako elementuak indartzea, bereziki lankidetzarako gaitasun nahikoa garatua eta politika publikoak diseinatzerakoan eta ezartzerakoan eragile publiko eta pribatuaren arteko lankidetzara eraginkorra.

Krisia bera lehiakortasun aldi berrira pasatzeko pizgarria eta aukera izan daitekeela ondorioztatzen du amaieran argitalpenak, eta aldi berri hori honako sektore hauetan oinarrituko dela: I+G nahikoaren eta eraginkorren aldeko apustua egitea, berrikuntza alorraren ereduari gutxi garatu diren alderdiak garatzea, euskal enpresen tamaina handitzea, ekintzaile programak garatzea, nazioartera urrats sendoz hurbiltzea, atzerriko jakintza eta inbertsioak erakartzea, beharrezko finantza baliabideak biltzea eta, behar izanez gero, finantza tresna berriak garatzea, eta erakundetze egokia antolatzea, bai ekintza politikoari begiratuta eta bai lankidetzari begiratuta.

Izenburua: Euskal Autonomia Erkidegoaren Lehiakortasunari buruzko II. Txostena: berrikuntzan oinarritutako lehiakortasun aldira  
 Argitaratzailea: Deusto Argitalpenak. Deustuko unibertsitatea.  
 Egilea: Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua.  
 Hizkuntza: euskara, gaztelania, ingelese.  
 Orrialde kopurua: Laburpen exekutiboak 23  
 Argitaratze data: 2009  
 Ikerketa eskuratzeko: [www.orkestra.deusto.es](http://www.orkestra.deusto.es)

**BIZTANLEKO BPG (EAP-€ETAN) ETA EUROPAKO BERRIKUNTZA ADIERAZLEAREN BALIO (2008)**



Europako Berrikuntza Adierazlearen balioa 2008an

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoaren Lehiakortasunari buruzko II. Txostena.

# Iparraldean euskaraz eskola-maila altuena jasotako en egoera sozio-laborala

Iparraldeko ikastolen historia orain 40 urte hasi zen, zehazki 1969an. Ama ikastolarekin hasi, eta handik hamabi urtera zabaldu zuen lehen lizeoa Seaskak, eta ordutik ehunka dira 3. zikloa euskaraz bertan egin duten ikasleak. Hain justu, ikasle horiek osatzen dute Iparraldean euskaraz eskola maila altuena jasotako kolektiboa.

Baina Seaskatik atera ondoren, nora jo dute ikasle horiek? Non ikasi dute? Zer? Zein lanetan ari dira?

Non? Euren ibilbide sozio-profesionalaren jarraipenik ez da egin orain arte. Eta informazio horrek interes eta garrantzi handia du, bai ikastolen elkartearantz eta euskaltzaleentzat, baita Iparraldeko sare sozio-ekonomikoarentzat ere. Horren garrantzia jabetuta, Gaindegia, Seaska eta Hezkuntekekin elkarlanean, lan hau sustatu du, Iparraldearen etorkizunerako zer erakutsia izango delakoan.

Izenburua: Iparraldeko gazteen ibilbide akademiko eta sozio-profesionala. Seaskako ikasle ohien esperientzia 1984-2008 bitartean.

Argitaratzailea: Gaindegia.

Egilea: Gaindegia, Seaska eta Hezkuntekekin lankidetzan.

Lan-taldea: Ramuntxo Etcheberry, Beñat Castorene, Jaki Aguerre, Guillermo Etchebarria, eta ikasle ohiak, Eneko Gorriren zuzendaritzapean.

Hizkuntza: Euskara.

Orrialde kopurua: 62

Argitaratze data: 2009ko urria.

Ikerketa eskuratzeko:

[www.gaindegia.org](http://www.gaindegia.org)



nomiko eta sozial handienetako eginkizunetatik kanpo gelditzen dira euskaraz eskolatutako profesionalak.

Izan ere, Iparraldearen erronka sozio-ekonomiko nagusietako bat bere jardura ekonomikoa dibertsifikatzea da, turismoa eta turismoarekin lotutako zerbitzuen nagusitasuna orekatzea, eta industria eta industriari lotutako zerbitzuak garatzea, hain justu. Egun Seaska uzten duten ikasle gehienak ez daude erronka horretan laguntzeko prestatuak.

Hor dago erronka: Iparraldeko sare ekonomiko eta sozialaren erronketan inplikaturiko den giza talde sendoa sortzea, eta horretarako Hegoaldeak aukera ezin hobeak eskaintzen ditu.

Eneko Gorrik zuzendu du lana, eta Ramuntxo Etcheberrik, Beñat Castorenek, Jaki Aguerrek, Guillermo Etcheberriak eta Seaskako ikasle ohiak osatu dute lantaldea, Anton Mustirats eta Eusko Ikaskuntzaren laguntza izan dute.

Ikerketa egiteko informazioa galdeketen bidez lortu dute, eta galdeketa hori zazpi atalen inguruan eraiki: ikasleen datuak, gaurko egoera, ikasketa-ibilbidea, lan-ibilbidea, bizitokia, hizkuntza-ohiturak, eta Seaska. Guztira 96 galdera egin dituzte, horietatik sei irekiak. Galdeketa osatzeko, hiru aukera eskaini dizkiete ikasle ohiak: on-line bidez, paperez, e-postaz, edo telefonoz. Erantzun gehienak on-line eta e-postaz jaso dituzte.


Ikasleak aurkitzeko auzo-lanean ibili da lantaldea, ikasle ohiak batzuekin harremanetan jarri eta haien laguntzarekin ikasle ohiak aurkitu dituzte. Halere, gehien erabili duten tresna Internet izan da, eta batik bat bertako sare sozialak, Facebook eta gisa horretako sareek ikasle ohi asko aurkitzeko balio izan baitute.

Ikerketa bera hiru atalban banatu dute, baina argitalpen honetan bi nagusi aipatzen dira: ibilbide sozio-profesionala, batetik, eta ikasle ohiak mugikortasuna, bestetik. Horrez gain, ikerketari loturiko analisi gehigarri bat ere jasotzen du dokumentuak, Hegoaldeko joatearen aukeraren ingurukoak aztertzen dituenak, hain justu.

Ikerlanak ondorio argiak utzi ditu. Seaskaren lanari esker, euskaraz eskolatutako profesional multzo zabala dago Iparraldean, eta gainerako kolektiboek baino hautu sendoagoa hartu dute Iparraldean bizi eta lan egiteko. Horrek Iparralde bertako seme-alabek haren duen joera apaltzeko balio du, bertako sare sozio-ekonomikoari profesional onak eta euskaldunak eskainiz.

Baina giza zientziei lotutako ikasketak eta lanbideak dira nagusi, eta joera horri ertsiz gero, laster ugaritu daiteke langabetuen kopurua ikasle ohiaren artean. Adar horiek aurreratu, gainera, eragin eko-

LANA BADA ZURE SEKTOREAN, IPARRALDEAN?



Iturria: Iparraldeko gazteen ibilbide akademiko eta sozio-profesionala. Seaskako ikasle ohien esperientzia 1984-2008. Gaindegia.



# Prentsan jasotakoa

Kazetari ezagunek 2009an landuenak izan diren gaien *top ten* zerrenda osatu dute

- Lana, gabeziarik larrienerantz - Karmele Aranburu.
- Asmoak ugari, neurriak eskas - Iker Aranburu.
- Abiadura handiko trenabiatzeko zalantzak - Idoia Eraso.
- Beltza, are beltzago - Iker Bizkarguenaga.
- Zuzeneko nahiz zeharkako zergak, gora - Juan Mari Arregi.
- Iparraldeko espekulazioaren kontrako ekintzek etenik ez - Aitor Renteria.
- Sektore berrietan tokia egin nahian - Carlos Etxeberri.
- Bat egiteko aukerarik gabe, bakoitza bere aldetik - Miren Garate.
- Polo berria, Nafarroako automobilgintzarako arnas - Juan Angel Monreal.
- Eusko Jaurkitza berriaren lehen greba orokorra - Miren Ibañez.

# Lana, gabeziarik larrienerantz

Langabeziak azken hamarkadako tasa handienak lortu zuen Euskal Herrian 2009an. Udazkeneko datuak erreferentzia hartuta, %50-60 egin du gora langabetu-kopuruak urtebetean, eta azaroan 164.000 herritarretik gora zegoen lanik gabe Hegoaldean. EEE Enplegua Erregulatzeko Espedienteen kopurua ere inoizko handiena izan da.

- Urtea hastearekin batera, Hegoaldeko langabezia-tasa teknikoak izatetik bi zenbaki izatera pasa zen, %10,66ra, hain zuzen. Iparraldean, berriz, Baionako enplegu-poltsan agertzen ziren lan-eskaintzen kopurua %34 jaitsi zen.
- Udaberria hasterako, Hegoaldeko langabetuen herenak jada amaitua zuen langabezia-prestazioa, eta hainbat premiazko laguntza eskatzen hasi zen.
- Urteko lehen sei hilabeteetan, 2008 urte osoan baino bi aldiz EEE gehiago onartu ziren Hegoaldean. Eusko Jaurilaritzak 2.059 EEE onartu zituen urtarrietik azarora, 20.430 langileri eragiten zieten espedienteek. Nafarroako Gobernuak 537 onartu zituen urtarrietik irailera, 16.312 langileri eragiten zietenak.

## MP3 bat edo zortzi kromo sorta?

Zortzi urteko neskato batek badu MP3 bat, eta haren lagunek ezin dute trastea ukitu ere egin, ez baitie uzten. Zazpi urteko beste bat saiatzan ari da, baina ez du lortzen. Nor ote da biktima?

Datorkigunaren adibide bat besterik ez da. Arazoa ez da gaur egungo langabezia, baizik eta etorriko den langabezia tasa. Eta horrekin batera gure etxeetara etorriko dena. Ez dugu artean onartu ez garelako sekula izango orain arte izan garen bezain aberats. Aberats diot, inoiz ez baikara ohartu aberats ginenik. Txikiak ginela bizi izan genuen egoerara ohitu beharko dugu. Arreta handiagoa ematen genion kartzoiak etxe edo kamioi bati, play station-aren azken modeloari edo dena delakoari baino.

Arazoa ez da soilik haurrek eguberrietan agertzen duten jarrera; helduok dugu arazoa urte guztian zehar. Ohituta gau-

de gaur, bihar eta etzi gure lagunak trago edo afariak ordaintzera, baina egunen batean ezin egingo dugu halakorik... Egunen batean, gogoan izan nahi ez dugun egoera bat etorriko baitzaigu: langabezia. Beti izan dugu gure familiararen "koltxoia", Euskal Herrian tradizioa denez, baina beharbada iritsia da koltxoi hori aski izango ez den garaia. Mezua oso garbia da: ez bagara ohartzen ez garelako berriz izango behinola izan ginen aberatsak, ez dugu inoiz erreakzio izaten dira. Badugu krisiaren onena ateratzen ikasteko aukera. Bien bitartean, mesedez, ahal den neurrian, koltxoia eta arrazoimenari eutsi.



**Karmele Aranburu**  
Herri-Irratia

# Asmoak ugari, neurriak eskas

Finantza-merkatuaren kontrol-gabezia agerian utzi zuen krisiak. Merkatu horren eragina ekonomia errealeraino iritsi zen 2009an, eta kalte nabarmena egin zion. Horren aurrean, finantza-sistema kontrolatzeko neurriak iragarri zituzten agintariek, nahiz eta, oraingoz, neurri zehatzak eskas izan.

- Urtearen hasieran EBko finantza-merkatua kontrolatzeko neurriak zorroztea adostu zuten Berlinen Batasuneko agintariek, hala nola, rating agentzien, inbertsiorako elkarte pribatuen eta paradisu fiskalen kontrola areagotuz.
- Udaberrian, AEBk finantza-merkatua kontrolatzeko neurri sorta iragarri zuen.
- G20ren udaberriko eta udazkeneko bileretan finantza-sistemaren kontrola areagotzeko oinarriak ezarri zituzten, Finantza Egonkortasunerako Kontseilua (FSB) sortzeko konpromisoa hartu zuten eta kalifikazio-agentziak kontrolatzeko erregistro bat sortzea erabaki zuten. Horretaz gain, bankuetako buruen bonifikazio-sistema bateratua martxan jartzea, eta bankuen erreserbak handitzea erabaki zuten.

## Lehenago lepoan nahi dute burua

2008eko irailean finantza-mundua eztanda egiteko zorian izan zen. Urtebete eta hilabete gutxi batzuk geroago, ezin esan daiteke *business as usual* izatera iritsi denik, baina horrela izan dadin ahaleginak egiten ari dira munduko banku nagusiak. Nola uler daiteke bestela Wall Streeteko handikiek iaz baino gainsari handiagoak pagatzea beren buruei? Edo sektorea zorrotzago arautzeko eta kontrolatzeko, gobernuek egingo ahalegin apal guzti-guztiei lelo berdinarekin erantzutea: "Sektorearen lehiakortasunari kalte egingo diote". Herrialde aberatsak —pobreen krisia ez da berria— Bigarren Mundu Gerraz geroztiko atzeraldi handienera bultzatu izanak ez ditu kikildu. Agintarien jendaurreko errietak eta herritarren mespretxuak bost axola zaizkie, ikusten dutelako etekinak lehenago negoziotik datozela oraindik, inbertsio-bankuetatik eta haien inguruan sortzen den kasino-jokotik.

Neurri efektista batzuk gorabehera —aurten bankarien gainsariari %50eko zerga

ezartzea herrialde batzuetan—, finantza-munduari bere erregituraketa paperean baizik ez dago oraindik. 2010ean ikusiko da nolako egiturak jartzen diren inbarrean, eta bankuen lobby lanak zer neurritaraino urardotzen dituen hasierako asmoak. Iraultza espero duenak jarrai dezala zain. Agian hurrengo astindura arte, orain oharkabean puzten ari den hurrengo burbuila lehertzen den arte. Eta Euskal Herrian zer? Espainiako estatuko finantza-sektoreari buruzko mesfidantzen haizeak ukitu egin ditu hemengo kuxak ere, baina, itxuraz behintzat, kalte handirik gabe. Iraganeko handinahakeriak ahaztuta, zuhurragoak eta kontserbadoreagoak bihurtu dira. CANek aliatu bitxiak aurkitu ditu, eta besteak ekaitza —ekonomikoa eta politikoa— baretu zain, behingoz bat egiteko.



**Iker Aranburu**  
BERRIA



## Abiadura handiko tren abiatzeko zalantzak

Lapurdin Abiadura Handiko Trena eraikitzeko proiektuaren bueltan eztabaida eta iritzi kontrajarri ugari egon dira 2009an. Ingurumenaren aldeko taldeek ez ezik, herri-elkargoek eta Frantziako Gobernuko ordezkari batzuek ere eskatu dute bertan behera uztea. Asmoek bere horretan jarraitzen dute, ordea.

- Urtearen hasieran, Baiona-Angelu-Miarritzeko herri-elkargoak ez zuen onartu Frantziako Gobernuak AHTren bide berria egiteko proposatutako finantzamendua.
- Udaberrian, Michèle Alliot-Marie eta Dominique Buisserau Frantziako Gobernuko ordezkariak eskatu zuten AHTren Lapurdiko zatiko azterketa bertan behera uztea, egungo trenbide sareak gainezka egin arte.
- Udan RFFk eta Lapurdiko 50en bat hautetsik Lapurdin AHTren linea egitea hitzartu zuten. Erabaki horien ondoren, Suitzako adituen ikerketak adierazi du egungo trenbide sarea baliatuta ez dagoela saturazio arrisurik datozen 50 urtean.

## Beltza, are beltzago

Lehendik ere burua altxatu ezinda zegoen lehen sektorearen egoera are gehiago larritu da krisialdiarekin. Beltza are beltzagoa ikusten ari dira euskal nekazari eta arrantzaleak, eta egoera jasanezina dela adierazteko protesta ekintza ugari egin zituzten 2009an.

- Udaren hasieran hazi ziren nekazarien protestak. Ekainean, EHNEk deituta: Bilboko erdigunea gelditu zuten traktore eta guzti, bestelako nekazaritza politika bat eskatzeko.
- Uztailean, esne merkatua erregulatu eta prezioak ezartzeari uko egin zion EBk, eta kuotak 2011n kenduko dituela berretsi zuen.
- Udazkenean, Europa osoko esne ekoizleek protesta egin zuten Bruselan, EBko nekazaritza ministroen bilaren atarian. 280 milioi euroko diru-laguntza eskaini zien Bruselak nekazariei.
- Abenduan, Europako Batzordeak 2010eko martxotik aurrera antxoia arrantzatzen utziko die Euskal Herriko eta Frantziako Estatuko arrantzaleei.

## AHTrik ez, gizarteko estamentu guztiak elkartu dituen borroka

Gaspe eta zaharrak, eskuindar zein ezker-tiarrak, politikariekin batera herritarrak, Abiadura Handiko Trenbide berriaren kontrako borrokak gizarteko eremu guztietako jendea elkartu du Ipar Euskal Herrian. Manifestazioetara joateko ohiturarik ez duen jendea ere elkartu zen urriaren 17an Baionak inoiz ikusi duen manifestazio handienetarikoa batean. Hala ere, hautetsi boteretsu batzuek azpiegituraren aldeko defentsa sutsua egiten jarraitzen dute. Abiadura Handiko Trenak beren herrietatik pasatzen ikusten ohituta dauden biztanleak dira lapurtarrak. AHT jadanik Lapurdiko kostaldetik pasatzen baita, trenbide berri baten beharrik ez dute ikusten herritar eta euskal politikariren parte handi batek. Iritzi hori bereziki zabaldu da Suitzako Citec kabinete independenteak ezagutzera eman zuenetik gaur egun dagoen trenbidea 2050. urtera arte ez litzatekeela saturatuko adie-

razten duen txostena. Azpiegitura berriaren kontra dauden hiru herri elkargoek eskatu zuten txostenak adierazten du, linea berrituz gero, hurrengo berrogei urtetako beharrei erantzuteko ahala lukeela. Txosten hori urtean zehar indarra hartzen joan da, trenbide berriaren aldekoen arrazoiek ezin izan dituztelako kontrakoek gertzatu. Egitasmoaren Gidaritza Batzordeak merkantzien garraioaren aurrikuspenen beste txosten bat ere eskatu behar izan du, aurretik egindakoaren faltasutasa argi geratu baita. Ibilibidearen aukeraketak gatazka eta zeresan handiak sortu ditu. Trenbide berriaren kontrako jarrerak baretzeko, Lapurdiko ibilbidearen %60 lurpetik joango dela hitz eman dute.



Idoia Eraso  
GARA

## Lehenengo sektoreko krisi iraunkorra

Euskal Herriko lehen sektoreak bizi duen krisi sakona bere gordintasun osoan azaldu zaitu 2009an, baina horrek ez du esan nahi azken hilabete edo urteetan sortu eta garatutako arazoak denik. Alderantziz, izaera estrukturala dauka gainbehera horrek, eta tamaina bereko erantzuna eskatzen du, sektore horrek etorkizunik izango badu. Aldagai asko dira lehen sektorearen krisi honi eragiten diotenak, eta horien artean lehengaien bilakaera eta produktuen eskaria garrantzitsuak izanagatik, ez dira garrantzitsuenak. Itsaso eta larreetan edo euskal herritarren mahaietan baino, bulegoetan dago egiturazko krisi honen oinarria. Izan ere, antxoaren arrantzari buruzko erabakiek -norabide batekoek zein beste- edo esnearen salneurrien eta kuoten auziak erakutsi dute, berriz ere, instituzioetan jokatzen dela partida hau, eta gure arrantzale eta baserritarrek harmailetatik ikusi behar dutela, zelaira ateratzeko aukerarik gabe. Azken finean, estatu interesek eta indus-

triarren presioek baldintzatzen dituzte, beste ezerk baino gehiago, lehen sektoreari hain modu zuzenean eragiten dieten erabakiak, eta erabaki horiek Bruselan hartzen dira, euskal herritarrok ordezkari zuzena ez dugun instituzioetan, alegia. Eta testuingurua Europa osoko nekazari zein arrantzaleentzat zaila bada, are zailagoa da Euskal Herrikoentzat, beraien izenean, beste baldintzapenik gabe, hitz egingo duen inor ez baitago bertan. Horri gehitu behar zaio bertako instituzioek sektore horren beharrei ematen dieten erantzun epela eta laguntza eskasa. Elementu horiek guztiek erabat belzten dute lehen sektorearen etorkizuna, eta denbora oso azkar doa bere kontra. Herri honentzat funtsezkoa den sektore baten kontra.



